ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-10-14
ASTELEHENA
425. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Erreketatik zikinkeria ateratzen

Auzolanean jardun dute, herriz herri | 11

Neska bat, eskularru eta botekin. | J.A.

Elosuko plaza berritua jendez eta ganaduz bete zuen feriak | 12

Kilian Jornet, Arrasateko Mendi Hamabostaldian eguenean | 14

Aitor Mendizabal lau t'erdiko pilota txapelketan izango da berriz | 26

Arrasate-Oñatik errekorra egin du 30.ean

458 parte-hartzaile batu zituen zapatuan, inoiz baino gehiago. Yeray Varela eta Elena Loyo izan ziren gizon-emakume azkarrenak | 24

Yeray Varela oñatiarrak hirugarrenez irabazi zuen proba. Argazkian, helmugan sartzen.

IMANOL SORIANO

Ikertzen jarraitzeko indarra Elortza eta Azpiazuri

Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kide dira zapatutik | 4

Debagoienean lau presok dute 197/2006 doktrina ezarrita

Europako Giza Eskubideen Auzitegiak egunotan jakinaraziko du epaia | 5

SINADURAK

RAFA MUNGIA | 8
8 | TXOMIN MADINA
ANDER ETXEBERRIA | 14
17 | MAIALEN MADARIAGA
AINHOA NEGERUELA | 18
19 | AITOR AGIRIANO
OIHAN VEGA | 37
40 | XABIER ZUBIZARRETA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 10 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | GURE TALDEAK 33 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

Lan-orientazio zerbitzu ibiltaria hasiko da bihar, martitzena

Enplegu Zentroa dago Mankomunitatean, bi orientatzailerekin; aurrerantzean, herriz herri ere bai

Zuriñe Galartza eta Agurtzane Arregi lan-orientatzaileak, kontsulta-materiala erakusten.

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Eskoriatzan estreinatuko du Mankomunitateak bere enplegu orientazio zerbitzu ibiltaria, Lanbiderekin elkarlanean. Hain zuzen, bihar, martitzena, joango da Mankomunitateko Garapen Agentziako Zuriñe Galartza orientatzailea Eskoriatzako udaletxera, goizean zehar jendea atenditzeko gertu. Asmoa da bi astean behin, martitzenetan, egotea orientatzailea Eskoriatzan, betiere baldin eta jendeak aurrez izena eman badu aholkularitza hori eskatzen; baina, hasteko, datorren martitzenean, hilak 22, ere joango da.

Eskoriatzan bakarrik ez, zerbitzu ibiltari hori Debagoieneko herri gehienetan izango da –Aretxabaleta, oraingoz, ez ematea erabaki dute. Azken asteotan ibili dira Garapen Agentziako ordezkariak, batetik, eta udaletako eta Bideberri Mankomunitateko arduradunak, bestetik, egutegi bat eta zerbitzuaren ezaugarriak lantzen.

Urteetan egon izan da enplegurako orientazio zerbitzua, ez bakarrik Mankomunitatearen egoitzan, baita Lanbiderekiko erakunde kolaboratzaile gehiagotan ere. Orain, UGT sindikatuaren egoitzan, Arrasaten; Bergarako udaletxean; Aretxabaletako Lanbide Eskolan eta Kutxa Zeharo, Katealegaia eta Gureak enpresen egoitzetan ematen da.

Enplegu Zentroa Arrasaten

Orientazio zerbitzu hori Enplegu Zentro baten ematen duen bakarra Mankomunitatea da. Bertan egoten dira Agurtzane Arregi eta Zuriñe Galartza orientatzaileak. Zerbitzua doakoa da eta langileak eta langabeak berdin joan daitezke berau jasotzera; aurrerantzean, beste herri batzuetan ere bai, zerbitzu ibiltaria martxan jartzen denean. Oraingoz, Mankomunitatearen egoitzan orientatzaile batekin egoteko, onena da aldez aurretik hitzordua egitea, 943 79 30 90 telefonora deituta edo *orientatzailea@debagoiena.net* edo *enplegu_zentroa@debagoiena.net* helbidera mezua bidalita. Astelehen, eguazten eta egubakoitzetan, 09:00etatik 14:00etara arteko ordutegia dute, eta martitzen eta eguenetan, 09:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 16:00etara.

Lana bilatzeko orientazioa ematen dute Agurtzanek eta Zuriñek. Horrez gain, Mankomunitatearen enplegu zentroan, Internetera konektatutako ordenagailuak erabil daitezke, eta kontsulta-material ugari ere badago erabiltzaileen eskura: lan-eskaintzak, ikastaroak, lan-deialdi publikoak, praktika eta beka deialdiak, atzerrian lana bilatu nahi dutenendako informazioa, prentsa-ebakinak...

Interneten bere kabuz interesatzen zaiona bilatzen badaki orientazio zerbitzura joaten den jende askok; beste batzuek, berriz, ez, eta horiei laguntzen ahalegintzen dira: "Interneten

Hezkuntza eta nekazaritza, gora

Irailean, hezkuntzan eta nekazaritzan hazi zen gehien kontratazioa Espainian. Hezkuntzan, abuztuan baino 47.000 lan-kontratu gehiago egin ziren, eta nekazaritzan, mahats-biltze sasoia dela-eta, 27.000 gehiago. Manufakturak 7.000 kontratu izan zituen, eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoek, 4.000.

7.000 izenemate 500 lanposturako

Urriaren 22ra arte dago zabalik Aramon taldeak kudeatzen dituen eski-estazioetako lan deialdia, eta, komunikabideek argitaratu dutenez, 300 eta 500 lanpostu artean kubritzeko dagoeneko 7.000 lagunek eman dute izena; baina norbera lanpostu baterako baino gehiagorako aurkez daiteke, eta aste betean 32.995 eskaera zeuden eginda.

Formigalen eskiatzen. | TOPSPORTHOLIDAYS

Hizkuntzak ez dira erabiltzen

Kontratua egiterakoan eskatu zizkieten atzerriko hizkuntzak ez dituzte erabiltzen langileen % 63,3k, nahiz eta erdiei baino gehiagori hizkuntza horiek eskatu zizkieten lan-elkarrizketa egiterakoan, Adeccok egin duen inkesta baten arabera. Erabiltzen ez dituztenen % 24,9k esan zuten "oso puntualki" erabili behar izan zituztela bakarrik.

Itsas bidaietan 400 lanpostu

Manpower enpresak itsas bidaietan lan egiteko 400 lagun behar ditu. Askotariko eskaintzak daude: harreragileak, hotel-zuzendariak, zerbitzariak, azafatak, elikagaien arduradunak... Kontratu egonkorra, formazioa eta promozio aukerak ematen dituzte. Ingelesa eskatzen dute. Curriculuma utz daiteke *www.manpower.es* webgunean.

Hemen ascensores igogailuak debagoiena
943 04 40 01
691 52 22 04
debagoiena@ascensoreshemen.com
www.ascensoreshemen.com
BENETAKO
24 ORDUKO ZERBITZUA GUK
BAKARRIK EMATEN DUGU
• Pieza originalak
• Euskarazko zerbitzua
• Debagoienean bertan

| LEIRE KORTABARRIA

informazio asko dago, baina oso sakabanatuta egoten da. Beraz, jendeak eskertzen du informazio hori leku baten, bateratua egotea. Baina Interneten ondo moldatzen denak ere aurrez aurreko tratua nahi eta eskertzen du", azaltzen dute Agurtzanek eta Zuriñek.

Lehenengo, helburua zehaztu

Agendak beteta dauzkate orientatzaileek "datozen bi asteotarako". Hala ere, beti daude jende berria hartzeko gertu. Jende asko atenditzen dute; Agurtzane Arregik Arrasateko udaletxean ematen zuen lehen orientazio zerbitzua, eta, bere esperientziaren arabera, "orientazio bila datorren jendearen tipologia asko aldatu da 2008tik hona. Debagoiena enplegu beteko eskualdea zen, eta orain, ez".

Langile eta langabeendako zerbitzua den arren, pentsatzekoa da gehienbat langabeek erabiliko dutela; eta hala da. Helburua, edozein kasutan, beti berbera da: pertsona horrek lanpostua aurkitzeko dituen aukerak hobetu, pertsona hori enplegura bideratu. Nondik hasi? "Lehenengo pausoa helburu profesionala argitzea da. Izan ere, orientazio profesional ona jasotzeko, ezinbestekoa da norbera zeren bila doan ondo jakitea", azaltzen du Zuriñek. Gero, "plangintza bat egin eta horra ailegatzeko laguntza" ematen diote. Norberak dituen baliabideen arabera eta hobetu dezakeenaren arabera, helburu batzuk edo beste batzuk betetzen saiatuko dira: "Izan daiteke formazioa, komunikatzen ikastea, curriculuma hobetzea, elkarrizketak egiten ikastea...", esaten dute Enplegu Zentroko orientatzaileek.

Orientatzailearen eta bezeroaren artean "dinamika bat" sortzen dute: "Adibidez, curriculuma eguneratu nahi badu bateren batek, horretan laguntzen diogu; baina, gero, horrekin lan bila hasten denean, baliteke berriz ere etortzea", esaten dute.

Bestalde, behar den adina alditan joatera animatzen dute erabiltzailea. Izan ere, "curriculuma osatu, helburuak zehaztu eta lan bila denbora baten ibili baldin bada, emaitzarik gabe, zerbait gaizki egiten ari garen edo zerbait falta den seinalea da".

Denetariko egoerak

Askotariko jendea eta premiak izaten dituzte: "Jende askok ikasketak bukatuta dauzka eta luzaroan lanean egon da, baina orain lanik gabe dago eta ez du bere burua inoiz horrelako egoera baten topatu; ez daki nola bilatu lana. Etortzen dira ere etxean lan egin izan duten emakumeak eta orain soldatapeko lanpostu bat behar dutenak; edo enplegua aurkitzeko zailtasun bereziak dituztenak".

Beste erabiltzaile mota bat ikasketak bukatu berri dituztenak dira: "Horiek curriculuma oso landuta izaten dute, eta beharbada atzerrian bilatu gura dute lana".

Denbora luzean lanik gabe dagoen jendea ere badago. Orientatzaileek ohartarazten dutenez, "langabezian kronifikazio arriskuan dago jende asko. Erabiltzaile bat orain 20 urte hasi zen lanean eta ez zuen bere burua prestatzen jarraitu, eta gaur egun formazioa eduki behar du lan bila dabilen batek".

Langabe horietatik asko "galduta" sentitzen dira, eta horiekin "modu integratuan" lan egin behar izaten dute: "Lehenengo, ikuspegi orokor bat behar izaten dugu, ze premia eta ze baliabide dituen ikusteko; motibazioa lantzea oso garrantzitsua da..."

ESANAK

"Jende asko lehen aldiz dago langabezian, eta ez daki nola bilatu lana"

AGURTZANE ARREGI
ORIENTATZAILEA

"Orientazio ona jasotzeko, zeren bila goazen argitu behar da lehenengo"

ZURIÑE GALARTZA
ORIENTATZAILEA

KONTAKTUA

943 79 30 90

ORIENTAZIOA ETA ENPLEGU ZENTROA

Mankomunitatearen egoitzan (Nafarroa etorbidea, 17) hitzordua egin daiteke orientazio zerbitzua jasotzeko. Enplegu Zentroko ordenagailuak ere erabil daitezke.

ORTUZAL PROMOCIONES S.L
943 76 11 18
943 79 40 00
619 71 82 78

AURETXABALETA
AUKERA EZIN HOBEA

ETXEBIZITZAK:
2 logela
2 bainugela
Sukalde hornitua
Ganbara bikaina

Azken etxebizitzak!!

ABENDUAREN 31 BAINO LEHENAGO

Etxe tasatuak baino merkeago!!!

160.000€
(BEZa ez dago barne)

Ikertzen jarraitzeko indarra jaso dute Elortza eta Azpiazu historialariek

Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kide izendatu zituzten bi oñatiarrak zapatuan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Senideen eta lagun askoren aurrean jaso zituzten Jerardo Elortza eta Jose Antonio Azpiazu historialari oñatiarrek Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kide izendatzen dituzten diplomak eta dominak. Zapatu eguerdian izan zen, Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatean.

Jerardo Elortza, Juan Bautista Mendizabal eta Jose Antonio Azpiazu, ekitaldiaren ostean. | MARIAN GONZALEZ

Ekitaldi solemnea

Ekitaldi solemnea izan zen, protokoloak markatutakoa. Unibertsitateko Max Weber aretoko mahai nagusia Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kideek eta Oñatiko alkateak, Mikel Biain, osatu zuten. Elkarteko Gipuzkoako presidente Juan Bautista Mendizabal izan zen hitza hartzen lehena. Aretoa bete zuten lagunei egun onak eman ostean, zutik jartzeko eskatu zien, Azpiazu eta Elortzari ongietorria egiteko. Honela, aretoko izkina bateko pasillotik barrena heldu ziren bi ikerlariak mahai nagusiraino, txalo artean. "Albiste ona da bi lagun hauek elkarteko kide izatea, euren lanak zabaldu ahal izango ditugulako eta indar berria emango diotelako elkarteari", esan zuen gero Mendizabalek. Mikel Biainek hartu zuen hitza ondoren. "Jerardo eta Jose Antonioren aurretik Iñaki Zumalde zena ere izan zen elkarte honetako kide, eta haren lana ere goraipatu gurako nuke, Udalaren izenean. Orain, beste bi herritar hauek hartuko dute haren lekukotza, eta ez dut inolako zalantzarik euren betebeharra ondo egingo dutela".

Gonzalo Duok egin zuen Jerardo Elortzaren aurkezpena eta Elortza bere lanari buruz berba egiten hasi zen gero. Manuel Umerez Goribargoitiak 1805 urte inguruan oñatieraz idatzi zituen bi eskuizkribuez jardun zuen, "ez bakarrik duten hizkuntza balioagatik, baizik eta orduko ohitura eta bizimodua nolakoa zen ere jasotzen dutelako", Elortzaren iritziz. Jose Antonio Azpiazuk, berriz, unibertsitatearen historiaz egin zuen berba: "Euskal Herriko, Burgosko eta Kantabriako ikasle asko egon ziren hemen, iparraldeko unibertsitate bakarra zen-eta. Lege-gizon asko formatu ziren bertan". Elkarteko Asunción Urzainkik laburtu zuen gero Azpiazuren lanen garrantzia.

Bi ordu iraun zuen ekitaldian, musika ere entzun zen. Ekitaldiaren azkenengo zatian, esaterako, *El borracho burlado* kantaren zati batzuk abestu zituen Amaia Azpiazuk, Xabier Ugarte gitarran zela. Bukatzean, otamena egon zen.

Manifestazioa plazatik irteten. | IMANOL SORIANO

Oñatin Euskal Herritik joateko eskatu diote ostera Guardia Zibilari

O.E./M.B. | OÑATI

Urriaren 12arekin batera, Oñatiko Fan Hemendik! batzordeak elkarretaratzeak eta manifestazioa egin zituen zapatuan, Guardia Zibila Euskal Herritik joan dadila eskatzeko. Arratsaldean hasi eta iluntzera arte, manifestazioa hasi bitartean, elkarretaratzea egin zuten kuartelaren aurrean Oñati zein inguruko herrietako eragile ezberdinetako ordezkariek.

Hain justu, Sortuk, Ernaik, LAB sindikatuak, San Martingo Etxe Okupatuak; Oñatiko Talde Feministak eta Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko gaztetxeek parte hartu zuten hiru ordu inguru iraun zuen elkarretaratzean.

Oihuak eta txaloak

Manifestazioa Foruen plazan hasi zen eta, herriko kaleetan zehar ibili ostean, Guardia Zibilaren kuartel aurrekaldera iritsi ziren manifestariak. Zain zituzten Ertzaintzaren bi furgoneta, eta hainbat ertzain furgoneta kanpoan zeuden.

Manifestariak gelditu egin ziren han, eta *Fan Hemendik* ohikatu zuten, etengabe, hiruzpalau minutuz, txalo eginez tarteka. Handik herriko plazara abiatu ziren ostera eta hantxe bukatu zuten.

'Wert legea'-ren kontra protesta egiteko debagoiendar asko elkartu ziren Bilbon

Antzuolatik, esaterako, ehun lagun inguru joan ziren manifestaziora

Milaka lagun elkartu ziren zapatuan Bilbon | SERGIO CANO

S.C.

ARRASATEN ELKARRETARATZEA Ikasle Abertzaleak eta Ernai taldeek deituta, Arrasaten ere legeari desadostasuna agertzeko elkarretaratzea egin zuten 80 bat lagunek barikuan.

G.A./M.B. | ARRASATE

Euskal Herriko hezkuntza eragile gehienek deituta eta L*omceri ez, Euskal Herrian gure eskola* lelopean, manifestazio jendetsua egin zuten zapatuan Bilbon. Milaka herritarrek hartu zuten parte protestan. Debagoienetik ere jende ugari joan zen, eta han izan ziren, besteak beste, antzuolarrak. Bi pisuko autobusa txiki geratu zitzaien eta auto partikularrak ere erabili behar izan zituzten Bilbora heltzeko; ehun bat herritar joan ziren.

Azken horiek aipatu zuten Antzuolako eskolan "atzera pausurik" ez dutela gura, eta horrenbeste urtetan zehar eraiki duten hezkuntza eredua ez dutela "salgai": "Lomcek ikasleen eta ikastetxeen arteko leia bultzatzen du, zailtasunak dituzten ikasleak babes barik utzi eta giza-balio unibertsalen ordez doktrina sustatu. Guk, berriz, uste dugu aukera-berdintasuna, elkarlana, ideia, izaera eta ahalmen ezberdinen errespetua direla kalitatezko hezkuntzaren oinarriak eta hiritar arduratsu eta kritikoak eraikitzeko bermea", nabarmendu zuen Antzuolako eskolako Pilar Etxanizek.

Gurean ere eragingo du Estrasburgok 197/2006 doktrinaren inguruan hartuko duen erabakiak

Europako Giza Eskubideen Auzitegiak datozen egunotan emango du aditzera auziaren gaineko epaia

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Azken egunotan hainbat komunikabidetan albiste ari da izaten 197/2006 doktrina. Europako Giza Eskubideen Auzitegiak datozen egunotan emango du doktrinaren gaineko epaia. Horrek esan nahi du Estrasburgok laster ebatziko duela doktrina juridiko hori indarrean mantentzen edo indargabetzen duen. Oraindik epairik heldu ez arren, askotariko erreakzioak eragin ditu prozesu judizialak.

Egun, lau kasu gure ibarrean

Debagoienean lau presok dute 197/2006 doktrina ezarrita: Jesus Mari Zabarte *Garratz* eta Jose Gabriel Urizar *Gautxori* arrasatearrek, Luis Mari Azkargorta *Kanto* aramaioarrak eta Xabin Usandizaga oñatiarrak.

Lau preso horiei Espainiako Auzitegi Gorenak 2006ko otsailaren 20an ebatzitako 197/2006 sententziak sortutako doktrina aplikatu zioten –Urizar eta Zabarteri orain dela gutxi–. Ebazpen horren arabera, 1973ko Zigor Kodearekin zigortutako presoen kasuan, espetxe-onurak edo erredentzioak espetxe-zigor bakoitzari aplikatu zaizkie, eta ez guztira bete beharko liratekeen gehienezko 30 urteko kopuruari. Hala, Zabarte, Urizar, Azkargorta zein Usandizagari irteera data luzatu zioten. 2014ra arte, 2016ra arte eta 2018ra arte, hurrenez hurren. Espainiako Entzutegi Nazionalak ez zuen zehaztu Usandizagaren irteera-data.

197/2006 doktrina aplikatuta, espetxean dauden euskal preso debagoiendarrak

JESUS MARI ZABARTE

- **Jaiotze data:** 1945/10/06.
- **Herria:** Arrasate.
- **Atxilotze data:** 1984/06/15.
- **Nork atxilotua:** Guardia Zibilak.
- **Non atxilotua:** Hernani.
- **Kondenaren egoera:** Kondenaren hiru laurdenak beteta. 2013ko martxoan amaitzen zitzaion kondena. 2014ko martxora arte luzatu diote espetxealdia.
- **Espetxealdian igarotako espetxeak:** Carabanchel, Alcala Meco, Herrera de la Mancha, Almeria, Ceuta, Salto del Negro, Puerto Santa Maria, Sevilla, Huelva eta Jaen.
- **Egungo espetxea:** Jaen.

JOSE GABRIEL URIZAR

- **Jaiotze data:** 1955/05/02.
- **Herria:** Arrazola. Arrasaten bizi.
- **Atxilotze data:** 1985/02/26.
- **Nork atxilotua:** Frantziar polizia.
- **Non atxilotua:** Sara.
- **Kondenaren egoera:** Kondenaren hiru laurdenak beteta. Irteera data 2014 urtarrilerako izan arren, 2016ko urrira arte luzatu diote espetxealdia.
- **Espetxealdian igarotako espetxeak:** Baiona, Pabe, Herrera de la Mancha, Alcala Meco, Tenerife, Jaen eta Puerto Santa Maria.
- **Egungo espetxea:** Puerto Santa Maria (Cadiz).

LUIS MARI AZKARGORTA

- **Jaiotze data:** 1952/06/21.
- **Herria:** Aramaio.
- **Atxilotze data:** 1988/04/21 eta 2003/ 11/27.
- **Nork atxilotua:** Polizia Nazionalak.
- **Non atxilotua:** Bergaran.
- **Kondenaren egoera:** Kondenaren hiru laurdenak beteta. 2003an bete eta urtarrilean askatu egin zuten. Urte bereko azaroan berriz ere espetxeratu zuten. 2018ra arte luzatu diote kondena.
- **Espetxealdian igarotako espetxeak:** Carabanchel, Alcala Meco, Herrera de la Mancha, Leon, Sevilla, Huesca, Martutene eta Zaragoza.
- **Egungo espetxea:** Zaragoza.

XABIN USANDIZAGA

- **Jaiotze data:** 1950/08/12.
- **Herria:** Asteasu. Oñatin bizi.
- **Atxilotze data:** 1997ko uztaila.
- **Nork atxilotua:** Guardia Zibila.
- **Non atxilotua:** Oñatin.
- **Kondenaren egoera:** Kondenaren hiru laurdenak beteta. 2013ko martxoaren 20an ezarri zioten doktrina, baina irteera data barik. Beste 13 euskal preso daude egoera berean, hau da, irteera data barik.
- **Espetxealdian igarotako espetxeak:** Alcala Meco, Soto del Real, Aranjuez, Badajoz eta Jaen.
- **Egungo espetxea:** Jaen.

Gaur hasiko da Segiren aurkako auziaren epaiketa

SERGIO CANO

ARRASATE Haurrendako ekintzak, ardoa eta gazta pintxoak, albokari eta txalapartariak, mahai-futbol txapelketa, musika eta afaria izan ziren Irati tabernan eta Ferrerias kalean. Jende asko batu zen Irati babesteko.

TXOMIN ELORZA

ARAMAIO *Libre. Elkartasunetik konpromisora* zioen horma-irudia egin bitartean, herritarrek egindako pintxoak, trikitilari eta musikariak, zapaturako prestatutako bertso musikatuak eta dantzariak izan ziren.

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

Gaur emango diote hasiera Madrileko Auzitegi Nazionalean Segiko kide izatea egozten zaien 40 gazteren aurkako epaiketari. 2009an atxilotu zituzten eta sei urteko kartzela zigor eskaria dago euretako bakoitzarentzat. Aramaion bizi den Irati Muxika amezketarra da auzipetuetako bat.

Eguenean beste makroepaiketa bat hasiko da auzitegi berean: 35/02 auziko epaiketa -Herriko tabernen auzia. 2002an abiarazi zuen auzia Baltasar Garzon epaileak eta Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuneko ordezkari izandako 36 pertsona epaituko dituzte ETAko arduradun, kide edo kolaboratzaile izatea egotzita. Bixente Enekotegi eskoriatzarra da auzipetuetako bat; eta bailarako zenbait elkarte eta tabernen etorkizuna ere epai horren araberakoa izango da. Arrasateko Irati taberna, Arrano elkartea eta beste hiru lokal; Bergarako Arrano taberna, Artatse elkartea eta beste lokal bat; eta Oñatiko Arrano taberna eta elkartea zein beste lokal bat auzi honetan sartuta daude. Herriko tabernen auziaren epaiketa luzea izango dela aurreikusten dute Arrasaten.

Bizi duten egoera eta gerta daitekeena salatzeko, Irati Libre egunak egin dituzte asteburuan, egubakoitzean Arrasaten eta zapatuan Aramaion. Herritarren babesa eta konpromisoa eskertu dituzte, batean zein bestean.

EH Bilduk antolatuta, osasungintza eta euskara berbagai bi medikuren eskutik bihar, Arrasateko Kulturaten

J.B. | ARRASATE

Osakidetzako osasun sarearen zerbitzuak "okerrera jo" duela -eta, arduratuta dago EH Bildu. Zerbitzuak okerrera egin duela diote, bai murrizketek eta berregituraketek ekarri duten kalitatearen galerari dagokionez, eta baita euskalduntzean eta euskaraz emandako zerbitzuetan egon den atzerakadari dagokionez. Debagoieneko osasungintzaren sarean ere egoera hori dela diote eta horren berri emateko hitzaldia antolatu dute biharko Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan, 19:00etan.

Montes eta Astigarraga

Egoera gertutik ezagutzen duten bi medikuk emango dute hitzaldia. Batetik, osasungintza eta euskalduntzea, Aitor Montes familia medikuarekin. Eta, bestetik, zerbitzua murrizketa eta berregituraketek izandako eraginaren ikuspegitik; Anafran Astigarraga medikuarekin. Biak dira LAB sindikatuko kide eta gaiari bi ardatz horietatik helduko diote. Zuzenean emango dituzte azalpen eta testigantzak, eta herritarrek aukera izango dute medikuei zuzenean galdetzeko.

EH Bilduko Joxe Etxeberria eta Rebeka Ubera, bi medikuekin. | JON BEREZIBAR

Aparteko dirutik 569.000 euro, Oñati-Arantzazu errepiderako

Defizitetik dituen 18 milioien gaineko proposamena egin du Aldundiak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Foru Aldundiak defizitaren malgutzearen ondorioz izango dituen 18 milioi euroak inbertitzeko proposamena aztertzen dabiltza Batzar Nagusiak eta, ustekaberik ez badago, onartu egingo dute. Horren barruan aurreikusitako inbertsio handienetako bat Oñatitik Arantzazura doan GI-3591 errepidea konpontzeko izango da; hain zuzen, 569.000 euro ipini nahi ditu Foru Aldundiak horretarako. Errepide horrek 8 kilometro ditu eta dezente hondatuta dago.

Batzar Nagusiek datozen egunotan erantzungo dute proposamenaren gainean. Foru Aldundiko iturriek azaltzen dutenez, "aurrekontuen aldaketa proposamen bat da, eta gainera, aurtengo aurrekontuena; beraz, lehenbailehen erabakiko dute Batzar Nagusiek". Azpimarratu dutenez, proposatu diren proiektuak "ez dira berriak", 2013ko aurrekontuetan aurreikusitakoak baizik.

Martin Garitano, joan den martitzenean Irunen. | GFA

DATUA

7,4
MILIOI EURO

Zati handiena –7.421.800 euro– bide azpiegituretan inbertitu nahi dute.

ESANAK

"Eskualdeen bidez bultzatu nahi dugu ekonomia"

MARTIN GARITANO
AHALDUN NAGUSIA

Udalendako, 6 milioi

Inbertsioaren ardatz nagusiak hiru izango dira, Foru Aldundiak egindako proposamenaren arabera: bide azpiegiturak hobetzeko ekintzak (7.421.800 euro), udal inbertsioak bultzatzeko plana (6 milioi) eta tokiko enplegu plana (3,15 milioi). Bide azpiegituretan, bigarren inbertsio handiena da Oñatiko errepidea txukuntzeari dagokiona, Irungo oinezkoen pasabidearen (990.000) atzetik.

Gizarte zerbitzu arloko ekintzetarako 1.825.175 bideratu nahi ditu Foru Aldundiak. Tartean daude 887.000 euroko inbertsioa gutxitu, mendeko eta babes bako adingabeendako hainbat zentrotan "presazko erreformak" egiteko; Getariako eguneko zentrorako 500.000 euroko partida; eta Gureak tailerretarako beste hainbeste.

Partida txikiagoak badira ere, kulturan, ingurumenean eta ekintza puntualetan ere inbertitu gura du Foru Aldundiak. Hala, Ondartxoko Itsaso-Kultura Zentrorako 300.000 euro ipini nahi ditu; 200.000, Santa Teresa komentua txukuntzeko; eta 100.000, Errenteriako Udalarendako, Dantzari Lekuona proiektuan inberti dezan.

Eskualdeen garrantzia

Inbertsio asmo horiek konfirmatuz, joan den martitzenean sinatu zen Foru Aldundia Ficobaren patronatuan sartzeko hitzarmena, eta Martin Garitanok ekitaldi horretan esan zuenez, "eskualdeen bitartez bultzatu" nahi du Foru Aldundiak Gipuzkoako ekonomia.

Ekonomiak datu hobeekin bukatu zuen urte erdia

BPGren datuak hobera egiten jarraituko du, eta 2014an, balio positibotan sartuko da

L.K. | ARRASATE

EAEko ekonomiaren datuak urte hasierakoak baino hobeak dira. Hala, % -1,5eko urte arteko tasa izan du 2013ko bigarren hiruhilekoan, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak bere ekonomia hiruhilabetekarian jasotzen duenez; lehen hiruhilekoko datua baino 4 dezima hobea da, eta BPGren beherakada leuntzen ari dela baieztatzen du.

Jaitsiera tasa hori Espainiako ekonomiak izandakoaren antzekoa da (% -1,6), baina oso urrun dago Europako Batasunak lortu duen tasatik (%0,0), azken hori atzeralditik irten delako.

Familien kontsumoa, % -0,9

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren hitzetan, "Europak izan duen hobekuntza begi-bistakoa den arren", kanpo eskariak hiru dezima bakarrik ekarri dizkio Euskadiko BPGri, aurreko hiruhilekoan baino bat gehiago. Aldiz, barne eskariak 0,3 gutxitu du bere ekarpen negatiboa, 1,8 puntu arte. Beraz, bigarren hiruhilekoan ekonomiak hobera egin du, zati handi baten, barne-ekonomiaren osagaien portaera "ez hain negatiboaren" ondorioz.

Familien kontsumoa asko jausi zen aurreko hilabeteetan, eta azken hiruhilekoan, % -0,9ko tasan geratu zen. Aldiz, administrazio publikoen kontsumoa berriz ere oso zifra negatiboetan geratu zen (% -2,1).

Ekoizpen guztia, hobera

Ekoizpen arlo guztiak urte hasieran baino hobeto portatu dira. Hala, industriak urte arteko % -2,7ko tasa izan zuen, azken urte eta erdiko jaitsierarik txikiena; eraikuntza 2 dezima hobetu zen (% -6,6); eta zerbitzuek % -0,7ko tasarekin bukatu zuten. Egileek hobekuntza "nabarmena" antzeman dute administrazio publikoan, hezkuntzan, osasunean eta zerbitzu sozialetan (% -0,4) eta baita komertzioan, ostalaritzan eta garraioan ere (% -1,6).

Urte bukaerarako aurreikuspenen arabera, euskal ekonomiak bere onera etortzen jarraituko du, eta urte bukaerarako % 1,1 jaitsiko da BPG. Lehenengo tasa positiboak 2014ko lehen hiruhilekoan lortuko dira: % 0,9ko tasa.

Fagor Industrialen erakustokia Oñatin. | GOIENA

Fagor Industrial Taldea Onnera Group deitzen da orain

L.K. | OÑATI

Fagor Industrial Taldea, aurrerantzean, Onnera Group izango da, arduradunek joan den eguaztenean jakinarazi zuten moduan. Talde berriak Fagor Industrialen egiteko moduak eta esperientzia jasotzen ditu, marka eta irudi korporatibo berriarekin. Zazpi marka –Fagor, Asber, Edesa, Danube, Domus, Primer eta Efficold– merkaturatzen ditu.

Onnera Group izenarekin, jatetxeetarako, garbiketarako eta hotz-aplikazioetarako ekipamendu-soluzioak ematen jarraituko du taldeak, eta aldaketak ez die eragingo orain arte izan dituen harremanei.

Taldeari aldatu diote izena eta irudia; Oñatiko Fagor Industrial S. Coop.-ek berdin jarraituko du.

Errazago ezagutzeko

Kepa Bedialaunetaren, Onnerako zuzendari orokorraren esanetan, "errazago errekonozitu" daitekeen izenarekin lehiatuko dira orain, eta marka guztiak hartuko ditu izen berriak. Izen aldaketa plan estrategikoaren aurretik egin duten hausnarketatik dator, eta "marka bakoitzari balioa emateko eta kanpoan ezagutarazteko bultzada" da, arduradunen esanetan.

Joseba Nogales. | IMANOL GALLEGO

Joseba Nogales
Gukere startup enpresakoa

"Erabiltzailearen arabera filtratzen dugu Interneteko informazioa"

L.K. | ARRASATE

Orain bi urte sortu zuten Gukere Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritza Informatikoko hiru ikaslek. Gaur egun, startup enpresa da.

Zein da zuen lan arloa?

Nagusiki, web teknologietan ibiltzen gara. Oso arlo orokorra da, baina HTML 5 teknologian zentratu gara, eta gure proiektu guztiak edo ia denak horrekin egiten ditugu.

Kimu Berrin parte hartu zenuten. Zein izan zen zuen ideia berritzailea?

Aplikazio bat, non mapa baten norberaren inguruan zegoen informazioa agertzen zen: tabernak, lagunak, eskaintzak, dendak… Guk ikasleendako behar bat ikusten genuen, informazio asko zegoelako baina ez genekielako nola jaso era eroso batean.

Gaur egun, Saiolanen zaudete… Ze egiten duzue bertan, ze laguntza jasotzen duzue?

Saiolan gure lantokia da. Toki pribatu bat dugu, bilera gela, materiala… hasieran behar ditugun baliabide guztiak, eta horrez gain, tutore batzuk ditugu, kontsultak egiteko.

Informazio eta komunikazio teknologietan lehia handia dago?

Interneten inguruan enpresa asko daude, baina inguruko enpresek orain dela bospasei urteko teknologia erabiltzen dute. Gure teknologia askoz berriagoa denez, ez dago hainbeste enpresa edo aditu eta abantaila pixka bat daukagu. Orokorrean, lehia handia dago baina, segun eta ze azpisektoretan, txikiagoa.

Zuen kasuan, informazioa modu pertsonalizatuan jasotzeko aukera ematen duzue.

Guk webguneetako albisteak edo informazio zehatza hartzen dugu, analizatu, gauzak erantsi albistea osatzeko, eta erabiltzailearen gustuen arabera berri bat edo beste bat iritsiko zaio. Guk filtratu egiten dugu erabiltzaileak nahi duena ikusteko.

Elena Urdaneta | Basque Culinary Centerreko I+G zuzendaria

"60 urtetik gorakoendako elikadura produktuetan asko dago oraindik hobetzeko"

- Nagusien elikaduraren gaineko Growing Young sinposioa izango da eguenean BCCn
- Nagusiendako produktu berriak garatzeko dauden aukerak aztertuko dituzte

LEIRE KORTABARRIA | DONOSTIA

Datozen 40 urteotan, munduko bost kontsumitzailetik batek 60 urte edo gehiago izango ditu. Horiek elikadura behar bereziak izango dituzte. Egoera horri aurrea hartzeko eta gaur egungo beharren gainean hitz egiteko, Growing Young sinposioa antolatu dute Basque Culinary Centerrek, Azti-Tecnaliak eta Afcak (elikadura-gehigarrien ekoizle eta saltzaileen elkartea). Urriaren 17an izango da, BCCren egoitzan.

Ze helbururekin antolatu duzue Growing Young sinposioa?

Pertsona nagusiendako ze elikadura-produktu garatzeko aukerak dauden jakitea da helburu nagusia. Produktu mota hori eta ikuspuntu hori 60 urtetik aurrerako pertsonei zuzendutakoa da, hau da, ez bakarrik oso pertsona nagusiei; izan ere, zahartzea prozesu bat da eta horretarako gertatu behar da norbera.

Zelako egitaraua prestatu duzue?

Diziplina-arteko ordezkaritza egongo da, eta bai soziologiaren ikuspuntutik, bai produktuen garapenaren inguruko ikuspuntu teknikoago batetik, bai ikuspuntu zientifikotik ere argumentatuko da zergatik den hain garrantzitsua pertsona nagusiek ondo eta egoki jatea. Dagoeneko merkatuan dauden produktuak aurkeztuko dira, eta garatzen dabiltzan prototipo berriak ere bai.

Zuk zeuk ere hitzaldia egingo duzu: SIforAGE project delakoa aurkeztuko duzu.

Bai. Europako proiektu bat da, lau urteko epearekin, eta 20 bazkide gabiltza. Proiektuaren helburua da modu osasuntsuan zahartzen laguntzeko lan-modu berriak garatzeko berrikuntza soziala bultzatzea, eta neuk koordinatzen dut. Proiektua bera eta orain arteko emaitzak azalduko ditut. Osasuntsu jateak modu osasuntsuan zahartzera nola eraman gaitzakeen azalduko dut.

Nolakoak dira 60 urtetik gorako biztanleak, kontsumitzaile diren aldetik?

Gure herrialdean, gero eta informatuagoak daude, erosketa-ahalmen handia dute eta oso arduratuta daude osasunarekin eta bere burua ondo zaintzearekin. Elikadurari garrantzi handia ematen diote. Euskadi da pertsona nagusi gehien duten autonomia erkidegoetako bat.

Eta ze garrantzi du, bada, elikadurak zahartze-prozesu osasuntsu baten?

Elena Urdaneta. | VK COMUNICACIÓN

Oso garrantzi handia du ondo zahartzeko eta prozesu fisiologiko askotan ere. Zahartzerakoan, oso garrantzitsua da gure gorputzari behar dituen elikagaiak emateko gai izatea.

Aurrera diezagukezu nolakoak izango diren sinposioan aurkeztuko diren produktuak?

Pertsona nagusien elikadurarako aproposa den elikagai edo osagai baten aberastuta dauden produktuak dira; balio proteiko, bitamina-balio edo mineral-balio handia duten produktuak dira; elikagai-balio handiko produktuak edo elikagai funtzionalak dira.

> **"Etiketek nagusiek erraz irakurtzeko modukoak izan behar dute"**

> **"Zapore aldetik hobetu egin daitezke produktuak, gozagarri izateko"**

Eta itxura aldetik, zelakoak izan behar dute nagusiendako salgai dauden produktuak?

Eurendako egokituta egon behar dute, nagusiak eurei komeni zaizkien produktuak erosteko gai izan daitezen nahi dugulako. Horregatik, etiketek eta ontziek, besteak beste, eurendako aproposak izan behar dute. Adibidez, etiketetako letrak erraz irakurtzeko gai izan behar dute; eta eurak hartzeko edo eroateko modukoak izan behar dira ontziak, pisu edo forma aldetik; hori oso garrantzitsua da.

Gaur egun nagusiendako dagoen produktu eskaintza nahikoa dela uste duzu, ala badago non hobetu?

Nire iritziz, nagusiendako egokitutako produktuak garatzeko aukera handiak daude oraindik. Eskaintza ez da behar adinakoa.

Zertan hobe daiteke?

Adibidez, nagusiek hobeto gozatzeko eta dastatzeko moduko produktuak egin daitezke. Izan ere, zahartzen goazen neurrian, zentzumen-gaitasuna galtzen goaz, eta zentzumen-profil horretan hobe daitezkeen produktu asko daudela uste dut. Horrela, nagusiendako oraindik gozagarri eta gogoko diren eta, era berean, behar dituzten elikagaiak emango liezazkieketen produktuak izango lirateke.

Ohitura egokiak dituzte nagusiek jateko orduan?

Horretan ere hobe daiteke, baina ez bakarrik nagusiek; denok hobe dezakegu. Hala ere, ohiturak aldatzea zail samarra da, ez da bat-batean egiten. Jateko ohiturak bakarrik ez, bizimodu aldetik ere hobe daiteke; adibidez, ariketa fisikoa egitea eta substantzia toxiko gutxiago hartzea. Hor lan handiagoa egin beharko litzateke, eragina oso handia da-eta.

I+G zuzendaria zara Basque Culinary Centerren. Zeintzuk dira lan-arlo nagusiak sektorean?

Batez ere, nagusiendako egokituta dagoen elikadura moduak garatzea. Ohitura aldetik, zahartzeak jate-ohituretan nagusiei nola eragiten dien ikertzeko eta egon daitekeen defizita konpentsatzeko asko aurreratzen dabiltza.

Honek guztiak negozio-aukera berriak irekitzen ditu, ezta?

Bai. Aukera handiak irekitzen dabiltza, produktu enpresendako eta zerbitzu enpresendako. Adibidez, etxez etxeko zerbitzuetan oraindik badaude estaltzeko moduko hutsuneak.

Basque Culinary Centerren, nola lantzen duzue honako gaia ikasleekin?

Graduko eta masterretako ikasleek Elikadura ikasgaia dute, eta, horren barruan, nagusiei egokitutako elikadura ikasten dute. Horrez gain, kanpoko gaien gaineko hitzaldietan, nagusien elikadura gai garrantzitsua da.

ZABALIK

RAFA MUNGIA
http://goiena.net/iritzia/

Feliko, lurtar 'galaktikoa'

Kirol kazetariok badugu gauzak puzteko joera, hotsandiko adjektiboak nolanahi erabiliz benetako errealitatea hein handi batean desitxuratuz. *Galaktiko* hitzak eman dit zer pentsatu azkenaldian GOIENAn irakurritako albiste baten harira.

MU saskibaloi taldeak Feliko Aiala omendu zuen orain gutxi, Arrasateko taldeari emandako guztiagatik, eta, berandu bada ere, nik bat egin nahiko nuke hitz hauen bitartez eskaini nahi diodan tartetxoarekin.

Haurtzarotik nerabezarora egin beharreko bidean azaldu zen Felix gure bizitzetan. Beti umoretsu eta txantxarako prest, baina apurka-apurka gure eguneroko portaeran eraginez, gerora bizitzak erakutsi digun bezala.

"Edozer behar genuela, beti azaltzen zen, gauzak errazteko"

Eskola kideek osatu genuen orduan saskibaloi taldea, porrotak, garaipenak, entrenamendu ordu luzeak, bidaiak eta hamaika momentu on partekatuz. Guztietan, eta askotan gu konturatu gabe, hortxe zen Feliko gure aldamenean itzal baten antzera. Edozer behar genuela, beti azaltzen zen gauzak errazteko; bidaiatzeko baliabideak, jokatzeko materiala, edozein arazo konpontzeko...; labur esanda, laguntzeko.

Baina horren guztiorren gainetik, gure artean zabaldu zituen portaerak altxortzat gorde ditut nik neuk hurrengo 20 urteetan: laguntasuna, elkartasuna, umiltasuna eta bestearekiko errespetua. Bizitzak adarkadak eman dizkio Felikori, eta ez nolanahikoak gainera, baina badakit umore ona eta alaitasuna ez dituela erraz galduko, urtetan margolan ederretan islatu duen bezala. Bera da *galaktiko* hitza hobekien deskribatzen duen lurtarra niretzat. Ez da gehien saltzen diren egunkarietako azalean agertuko, eta ezta milioikadak jasoko maite duena egitearren; baina Felixek ez du hori behar, urte haietan eman zigunak ez baitu preziorik.

USTEAK USTE

TXOMIN MADINA | tmadina@goiena.com

Oraingoan, graziarik ez

Nire asmoa zen tarte hau gure errekek askotan erakusten duten itxura tamalgarria salatzeko eta egunotan zikinkeriak garbitzen ibili direnen lana eskertzeko erabiltzea. Baina beste kontu batekin ahozabalik geratu naiz: Credit Suissen arabera, krisiak krisi, 2012ko erdialdetik 2013ko lehen erdialdera %13,2 igo ei da Espainian (eta pentsatzeko denez, gehiago edo gutxiago, baita Euskal Herrian ere) milioidunen kopurua. Bai, ondo irakurri duzue. Eta epe horretan, otsailean zehatzago esateko, Espainian lehen aldiz bost milioitik gora ziren lanik ez zutenak. Onartu beharra dut askotan paradoxek grazia egiten didatela. Kasu honetan, baina, bat ere ez.

KALE INKESTA

Garrantzitsua iruditzen zaizu medikuek euskaraz jakitea?

MIKEL SALABERRI
ARRASATE

"Jakin beharko lukete. EGA edo bestelako tituluren bat edukitzea derrigorrezkoa iruditzen zait".

AITOR IREGI
ARRASATE

"Bai. Azkenean, bertako hizkuntza da eta hemengo jendearekin harremana izateko garrantzitsua".

AITOR GRUZETA
ARRASATE

"Gaztelera ongi menderatzen ez dutenek eskubide berbera eduki beharko lukete, batez ere ospitaleetan".

AITOR LASKURAIN
ARRASATE

"Gazteleraz ere elkar ulertuko genuke. Baina herri hau ulertzeko beste era bat da hizkuntza, eta, nire ustez, garrantzitsua".

HANDIK ETA HEMENDIK

Angustia, erreala

Anjel Lertxundi Esnal
berria.info/blogak/lertxundi/

Teknologia berriekin lo(r) tutako orok *birtual* etiketa darama aldean –errealitate birtualaz mintzatzen gara, gizarte birtuala omen gara, hitzaldi birtualetara gonbidatzen gaituzte...–, baina modu arrunt errealean begiratzen ditut teknologia berrien bidez kontsultatzen ditudan hiztegiak, irakurtzen ditut albisteak, egiten ditut erosketak.

Teknologia berrien mundua –Internet zilbor eta altzo duena– erreala da.

Ez fikziozko egitate bat, pelikula batean *sartutakoan* bertan galtzea bezalakoa, nire eguneroko bizitzaren errealitatea baizik.

Internetik gabe geldituko banintz, galduta nengoke.

Poliziek lehendabizi eta hedabideek gero, *birtuala* deitu diote Delorean taldeak Mexikon sufritutako bahiketari.

Bahitzaileek trepeta teknologikoak baliatu dituzte, musikariek bahituta zeudela sinetsi dute –hortik bahiketari *birtuala* deitzearena–, baina bahituek berrogeita zortzi orduz bizi eta penatu duten angustia errealagorik, nekez.

Nola hasi zen Alice Munro istorioak asmatzen

Gorka Bereziartua
argia.com/blogak/boligrafo-gorria/

2013ko Literatura Nobel Saria irabazi duen idazlearen liburu bakarra daukagu euskaraz, Meettok argitaletxeak publikatutako *Zorion handiegia.* Ipuin liburu hori argitaratu ondoren egin zioten, hain zuzen, goian ikus dezakezuen elkarrizketa..

Diana Athill idazle eta editorearekin Kanadako International Festival of Authorsen (IFOA) solasean, Munrok azaltzen du noiz eta nola hasi zen istorioak asmatzen. Elkarrizketa berezia da, umore onez egina eta idazleari ezagutzen ez genizkion haurtzaroko irakurketa makabroak erakusten dituena.

Sariarengatik pozik nago. Ez du Munroren literatura hobe bihurtuko baina gauza bat ziurtatuko digu, Iñigo Roquek atzo esan zuen moduan: datorren urtean seguru haren beste liburu bat izango dugula euskaraz, Nobela irabazi duten idazleak euskarara itzultzea ahalbidetzen duen Jokin Zaitegi bekari esker.

Bizitza, etenda

Joxe Aranzabal
blogak.goiena.net/faroa/

The New York Times egunkariak blog interesgarri bat dauka, *Life Interrupted,* eta bertan 20 urteko neska batek, Suleika Jaouad, idazten du bere minbiziaz, Suleikak leuzemia izan baitu, eta hezur muinaren transplantea behar izan zuen minbizia gainditzeko.

Suleikaren bloga oso pertsonala da, eta bertan gazte newyorktarrak denetik idazten du, eta ondo: minbizia, kimioa, maitasuna, lagunartea, antzutasuna, publikotasuna, heriotza...

Ikusita blogak izan duen oihartzuna, *NYT* egunkariak bideo sail bat sortu du izen berarekin, irudietan erakusteko Suleikaren bilakaera.

Bata zein besteak oso interesgarriak dira.

Elkarren osagarri.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko ediozio arduraduna Goiatz Arana
Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Goiena Klubeko urriko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!

Otarra
DEBAGOIENEKO BASERRI SAREAri esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar zozketatuko ditugu.
Parte hartzeko sariaren izena:
Baserrisarea

Realeko ekipamendua

Etxeko txikiarentzat Realeko ekipamendua.
Parte hartzeko sariaren izena:
Reala

Otarra
HARREMAN DENDAri esker bidezko merkataritzako produktuez osaturiko 2 otar zozketatuko ditugu.
Parte hartzeko sariaren izena:
Harreman

Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.
Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikrutz

Liburuak
***Nola sentitzen zara?, Matiasen ametsa, Hartza ehizatzera* goaz umeentzako hiru liburu sorta**
Parte hartzeko sariaren izena:
Liburu sorta

DVD-Liburua
Bernardo Atxaga eta Jabier Muguruzaren *Paradisua eta katuak* errezitaldiaren hiru DVD-liburu.
Parte hartzeko sariaren izena:
Paradisua eta katuak

PARTE HARTZEKO:
SMS: KLUBA sariaren izena [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp: KLUBA sariaren izena [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

HERRIAK

ESKORIATZA

Sukaldean ekoiztutako Eskoriatzako garagardoa

- Sukaldea laborategi bilakatuta, zerbeza egiten dute hainbat eskoriatzarrek
- Egun 'Iparraixe' eta 'Galburu' zerbezak egiten ditu Gerrigardo taldeak

ZURIÑE V.D.M. | ESKORIATZA

Jendartean oso errotuta dagoen edaria da garagardoa; aurreneko aztarnak topatzeko k.a. 4.000. urteko Egiptora bidaiatu beharko litzateke. Eta XXI. mendera itzulita, nonahi aurki daitezke garagardo ekoizleak, baita Eskoriatzan ere, esaterako.

Etxean ekoitzitakoa kalera

Aritz Oianguren eskoriatzarra duela urte eta erdi hasi zen etxean garagardoa egiten. "Etxean ekoiztu zitekeela ikusi, eta burugogor, nik ere probatzea erabaki nuen eta hala hasi nintzen. Horretarako propio saltzen duten kit bat erosi nuen iazko martxoan–gero konturatu nintzen etxeko lapikoek ere balio zutela–. Frogak egiten hasi, hutsen bat edo beste egin, eta azkenean garagardoa lortu nuen".

Urte eta erdi honetan ez da bakarrik aritu, zenbait lagun ere gehitu baitzaizkio Oiangureni garagardoa egiteko esperientzian. Eta etxean utzi barik, kalera ere atera izan dute euren produktua: "Iazko Eskoriatzako Ferixie iritsi zenean etxean egindakoa bertan saltzera animatu ginen. Orduan, talde bezala Gerrigardo izenarekin aurkeztu ginen eta halaxe jarraitzen dugu".

Eingeinke taldekoen laguntza eduki zuten, gainera. Eta eskoriatzarrek sortutako garagardoarekiko interesa erakutsi zuen jendeak. "Segituan saldu genuen guztia. Jendea 12:00etan azaldu bazen, 12:10etarako guztia saldu genuen!".

Aurreko zapatuan ere, urriak 12, Eskoriatzako Garagardo festaren baitan erakustaldia egin zuten Gerrigardoko kideek, eta interesa zuten guztiei erakutsi zieten nola ekoizten den.

Erosketak, sarearen bidez

Modu ezberdinak baliatu daitezke garagardoa egiteko funtsezko guztia –materiala edo osagaiak– eskuratzeko. Eskoriatzako garagardo ekoizle horiek, baina, Internet erabiltzen dute euren erosketetarako.

Orrialde batzuk ere aipatu ditu Oiangurenek: "Guk La Tienda del Cervecero eta Cervesera Artesenca deitzen den orrietan egiten ditugu erosketak. Baina badago euskarazko webgune bat, hasiberrientzako apropos-aproposa dena. Lupulu.com deitzen da eta hasteko beharrezko guztia aurki daiteke bertan". Besteen artean, garagardoa egiteko eskuliburua dago.

Eskoriatzako Ferixien Gerrigardokoek ipinitako mahaia. | GERRIGARDO

'Iparraixe' eta 'Galburu'

Praktikarekin hobetzen joan dira euren garagardoa. "Emaitza itxurosoa dela uste dugu, gure gustukoa da eta probatu dutenek ere hala esan digute".

Ezaugarriengatik galdetuta, Oiangurenek zehaztasun gehiago eman ditu: "Hemen saltzen diren garagardo industrialak lager motakoak izaten dira, hau da, tenperatura baxuetara funtzionatzen duten legamia edukitzen dute. Eta garagardo artisauek, ostera, ale izenekoa baliatzen dute, tenperatura altuko legamia; gure kasua da".

Gaur egun Gerrigardokoek bi zerbeza mota egiten dituzte. Batetik *brown-ale* baliatuta *Iparraixe* dago: "Edaria marroi iluna da, bits mamitsua dauka, ukitu karamelatua eta mikaztasun leunekoa".

Eta bestetik *Galburu* izeneko zerbeza ekoizten dute eskoriatzarrek, gariz egindakoa: "Lasto laru biziko kolorea du, zitriko eta ezti usain ukitua dauka eta zaporez arina eta freskagarria da. Belgikako estilora sortutakoa".

Gerrigardo familia handitzen

Gerrigardoko lagunek familia handitu gura dute. "Garagardoa gustuko dutenak etor daitezke taldera". Etorkizunean ekintza ezberdinak egiteko asmoa azaldu du Oiangurenek. "Taldetxo bat sortzea izango litzateke, eta besteak beste, zerbeza-dastazeak, irteerak zein ikastaroak ere antolatuko genituzke".

Interesatuek *gerrigardo@gmail.com* helbidera idatzi.

Garagardoa egiteko urratsak

- Osagaiak: ura, maltatutako zereala –garagarra edo garia–, lupulua eta legamia.
- Prozesuaren iraupena: 4-5 ordu.
- Zereala beratzen utzi 65 gradutan (almidoiak eta proteinak hartuko ditu).
- Muztioa irakiten ipini.
- Lupulua gehitu. Mikaztasuna, zaporea eta usaina ematen dio lupuluak, eta kontserbagarri bezala erabiltzen da.
- Muztioa hoztu ahalik eta azkarren.
- Legamia bota.
- Legamiatzen utzi. Pare bat hilabetetan puntuan egongo da.

Informazio gehiago: *www.lupulu.com* helbidean.

Gerrigardoko kideak, zapatuan, Eskoriatzako garagardo festan eginiko erakustaldian . | IMANOL SORIANO

Bergararrak Labegaraietan, lan egin ostean. | OIHANA ELORTZA

Oñatin ere denetarik agertu zen. | JOSETXO ARANTZABAL

Bergaran hainbat puntutan utzi zuten zaborra; tartean, plazan. | JOSETXO ARANTZABAL

Aretxabaletako plazan, jasotakoarekin. | LORE MARTINEZ

Denetarik agertu zen erreketan. | JOSETXO ARANTZABAL

Bergararra, plastikoa jasotzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Eskoriatzarrak pozik, egindako lanarekin. | JOSETXO ARANTZABAL

DEBAGOIENA

Animalia gutxi ikusi eta zaborra asko jaso dute gure erreketan

- Auzolanean zikinkeria batzen ibili ziren atzo goizean debagoiendarrak
- Bergaran 300 lagunetik gora izan ziren Osintxu eta Epele artean

MIRIAN BITERI | BERGARA

Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako *Ura eta Errekak* astearen bueltan, bailarako errekak auzolanean garbitzen ibili ziren atzo goizean. Bergara aldean, Osintxutik Epeleko araztegirainoko zatian, elkartu zen jende gehien: 15 bat taldetan banatuta zeuden 330 lagun inguru ibili ziren askotariko zaborra kentzen. Plastiko, enbor eta metalarekin batera, bitxikeriak ere topatu zituzten parte-hartzaileek; esaterako, eskuz egindako aihotza.

"Harrituta eta arduratuta"

Bergaran izan zuen ekimenak harrera onena, baina gainerako herrietan ere lan asko egin zuten. Arrasaten, esaterako, 13 lagunez osatutako taldea ibili zen Mojategin, Eroski atzean, zikinkeria batzen. Arrasateko Ingurumen zinegotzi Josu Pereda "harrituta eta arduratuta" zegoen ikusitako zabor kopuruarekin, eta baita aurkitutakoarekin ere; tartean, aparatu elektronikoak.

Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere errekan eman zuten goiza. Eskoriatzan, esaterako, zazpi lagun ibili ziren Huhezi eta Jose Aranako inguruneak garbitzen. Besteak beste, igerilekuetan erabiltzen diren goma-aparrak atera zituzten errekatik.

Herri guztietan batutako zaborra erakusgai jarri zuten, debagoiendarrak jabetu daitezen inguruko erreken egoeraz.

Plaza berria, egubakoitzean egindako inaugurazio ekitaldian. | IMANOL SORIANO

Neska gaztea behorra gidatzen. | I.S.

Napar Sustar Kalejira Elosuko Gaztelura bidean. | ANDER LARRAÑAGA

Behiak argazkirako posatzen. | I.S.

Inazio Zubizarreta Koateiren astoa harrien erakustaldian . | ENEKO AZKARATE

Euskal pastela. | A.L.

Erroskilen postuan, sailtzailea erroskilak momentuan egiten. | A.L.

Elosuko feriaren bista urrunetik. | A.L.

BERGARA

Elosuko plaza berritua jendez, ganaduz eta janariz bete zuen feriak

Eguraldiak lagunduta, giro paregabean pasa zuten aurtengo Pilarika eguna bertan batutakoek

ANDER LARRAÑAGA | BERGARA

Egubakoitzean egin zuten Elosuko plaza berrituaren inaugurazioa, eta horri hasiera ezin hobea emateko, zapatuan, Pilarika egunean, ospatu zen Elosuko feria. Ehunka lagun hurbildu ziren egun osoan zehar, oinez, bizikletaz zein autoan, urtero egiten den ospe handiko azoka hau bisitatzera: musika, janari eta ganadu artean igaro zuten eguna Elosun.

Ganaduzaleek ere bazuten non pasa goiza, euren saltsan: zaldiak, idiak, astoak eta behiak egon ziren postu desberdinetan ikusgai. Hala ere, abere kontuak ez ziren horretan geratu, Mendiko ganadu feriako sari banaketa egin baitzuten pirenaika, limousin, txarolesa, blonda, astoa, behorra, monturako behorra, ponia, bigantxa eta gasçoine mailetan. Azokako saltokirik onena ere saritu zuten.

Proba-plaza

Plaza behar bezala estreinatzeko, proba-plazaren inaugurazioa egin eta bertako hiru harri adierazgarrirekin erakustaldia egin zuten: Bentoste Elkartearen idi pareak, 1.500 kg-ko Bentoste Harriarekin; Josu Txibiltarren behorrak, 900 kg-ko Ixaun Harriarekin; eta Inazio Zubizarreta Koateiren astoak, 550 kg-ko Lutxurdio Harriarekin. Bertakoek adierazi zutenez, plaza txukun geratu da, nahiz eta plazako parkeak feriarako leku apur bat kendu duen.

Erakustaldia amaituta, erromeria egin zuten Elosun eta gau partean afaria egin zuten nahi izan zutenek.

Argazki eta informazio gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

ARANTXA IÑARRA
HERNANI

"Feriak oso gustuko ditudanez horrelakoetara joateko ohitura dut, baina lehenengo urtea da Elosuko feriara natorrena. Azoka oso polita eta animatua iruditu zait; jende asko etorri gara. Gaurkoan gazta apur bat erosi dut etxerako".

TERESA PETRALANDA
OROZKO

"Nik euskal pastela egin eta saltzen dut. Makina bat urte daramatzat Elosuko feriara etortzen pastelak saltzera. Hasierako urteetan hiru edo lau saltzaile egoten ginen bakarrik eta orain artisau mordoa gaude".

JON ARANTZETA
ARRASATE

"Aita elgetarra da eta bertako Larrabiltxo baserrian egiten dugu eztia. Urtero lez etorri gara Elosuko feriara baserrian egindako eztia saltzeko asmoz. Eguraldiak lagundu du aurten eta momentuz salmentak ondo doaz".

MANU ORUESAGASTI
ELOSUA

"Nik hasi nuen Elosuko feria duela 34 urte, beraz, patentea nirea dela esan daiteke. Oso pozik nago gaurko azokarekin, giro zoragarria dugu eta eguraldi paregabea. Gaurkoan 12 asto ekarri ditut eta dagoeneko hiru saldu ditut".

ITZIAR ZUGARRAMURDI
AMASA

"Senarra askotan etorritakoa da Elosuko feriara, baina nire lehenengo aldia da gaurkoa. Giro polita dago eta postu ugari daude. Bakailao apur bat, txorizoa eta gazta erosi dut momentuz, baina, gehiago erosteko intentzioa dut".

Musakolako gaztetxoak zapatuko bazkarian. | IMANOL SORIANO

ARRASATE

Musakolako I. Gazte Egunean espero baino jende gehiago egon zen

Egun osoan zehar ekintza desberdinak izan zituzten gazte musakolarrek, baita bazkaria ere

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Zapatuan ospatu zuten Arrasateko Musakola auzoan Musakolako I. Gazte Eguna. Nahiz eta lehenengo urtea izan, izugarrizko harrera ona izan zuen auzokide gaztetxoenen artean eta antolakuntza oso pozik agertu zen emaitza ikusirik.

11:00ak bueltan hasi zuten eguna Musakolako Herri Eskolan. Goiz osoan zehar, jolas, tailer eta ekintza desberdinak izan zituzten haurrek: puzgarriak, aurpegia margotzeko trailerrak, pedaldun kart txikiak...

Bazkalordua ere batera igaro zuten gaztetxoek; printzipioz 80 lagun inguru espero zituzten bazkarirako, baina 92 neska-mutikok bazkaldu zuten azkenean.

Arratsaldean talde jolasak egin zituzten eta ondoren Repelencia talde musakolar gazteak kontzertua eskaini zuen.

Errepikatzeko asmoa

"Oso pozik gaude antolakuntzakook, errepikatzeko modukoa izan da", adierazi zuen Musakola auzoko alkate Iban Goñik I. Gazte Egunaren harira.

ARETXABALETA

JOSETXO ARANTZABAL

Zaraia beteta Hipo eta Tomaxekin

Atzo arratsaldean egin zuten Hipo eta Tomax pailazo ezagunek euren emanaldia Aretxabaletako Zaraia aretoan. Azkenaldian oso famatu egin dira pailazook eta haur aretxabaletarrek ere ezagutzen zituzten; ume asko sartu gabe gelditu behar izan ziren, aretoa guztiz bete zelako.

ARETXABALETA

Izarrak behatu zituzten, teleskopioz

Jende ugari erakarri zuen zapatu iluntzean Ilatargi astronomia elkarteak antolatutako behaketa astronomikoak. Aretxabaletako kiroldegi aurrean bildu ziren teleskopioa hartuta eta ilunabar elegantea izan zuten: kumulu globular bat, konstelazio desberdinak eta Nazioarteko Espazio Estazioa ikusi zituzten.

IMANOL SORIANO

ARETXABALETA Lanbide Eskola
Gas mendeko Lanbide Heziketarako Berezitasun Institutua

2013/2014 IKASTURTEA
IKASTAROAK DOHAINIK
LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRI BERRIAK

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ)
KATALOGO MODULAR *BERRIA*

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK	PRESTAKUNTZA MODULOAK	PRESTAKUNTZA UNITATEAK	ORDUAK
(FMEH0109) TXIRBI-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	MF0090_2 Txirbil-harroketa bidezko makina eta sistemen prestaketa eta mekanizazioa	UF0878 Makinen, ekipoen eta erreminten prestaketa txirbil-harroketa bidezko prozesuetan	80
		UF0879 CNC programen elaborazioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	80
	MF0091_2 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	UF0882 CNC programen egiaztapena eta optimizazioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	70
		UF0877 Lan arriskuen prebentzioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	30
(FMEC0110) SOLDADURA ELEKTRODO ESTALIEKIN ETA TIG eta (FMEC0210) SOLDADURA OXIGAS ETA SOLDADURA MIG/MAG	MF0100_2 Gas babestuan, elektrodo ez suntsitzailearekin soldadurak egitea	UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran	60
		UF1622 Ebaketa prozesuak eta ertzen prestaketa	70
		UF1626 Karbono altzairuak soldatzea TIG soldadurarekin	90
		UF1627 Altzairu herdoilgaitzak soldatzea TIG soldadurarekin	90
		UF1628 Aluminio eta aleazioak soldatzea TIG soldadurarekin	90
	MF0098_2 Oxigas bidezko soldadurak eta proiekzio termikoak egitea	UF1672 Oxigas soldadura	70
(SSCS0108) ETXEAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA eta (SSCS0208) ERAKUNDE SOZIALETAN MENPEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANTARIOA	MF0251_2 Etxeko laguntza eta elikadura familiarra	UF0125 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen kudeaketa, hornikuntza eta sukaldea famili unitatean	60
		UF0126 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen garbitasuna, mantenua eta antolaketa	40
	MF1019_2 Erakundeetan, laguntza soziala eta arreta komunikazioa	UF0129 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta soziala	30
		UF0130 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonen mantentzea eta eguneroko aktibitateen hobekuntza	50
		UF0131 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonekin komunikazio teknikak	50

LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE)

ZIURTAGIRI PROFESIONALA: FMEC0110
Soldadura elektrodo estaliekin eta TIG 680

DOAN

KATALOGO MODULARRETIK KANPO

Altueran lan egitea 20
Garabietan lan egitea 20
Eskorgan lan egitea 20

DOAN

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera: 08:00 - 18:00
ETXEBARRI AUZOA, Z/G / 22 Pk.
20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA. COM
IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943
F. 943 770 955

lanbidez heziketa formación profesional
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HOBETUZ Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua / Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa
Europako Gizarte Funtsa

Iro Landaluze | Perretxiko zalea

"Basoa perretxikoak eman ditzan egokitzea da planteatzen duguna"

Basogintza mikologikoari eta mikorrizazioari buruzko hitzaldia eskainiko du Landaluzek Jaime Olaizolarekin batera; egubakoitzean, hilak 18, Bedoñan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Perretxiko zaletzat du bere burua eta txikitatik erakarri dio mundu horrek; Iro Landaluze (Abadiño, 1960) ezaguna izango da askorendako. Egubakoitzean Bedoñako eskola-etxean arituko da hizlari Jaime Olaizola nekazaritza ingeniariarekin batera. Landaluzerekin egin dugu berba, hitzalditik zer aurrera daitekeen jakiteko.

Zer da basogintza mikologikoa?

Labur esateko, basoa perretxikoak ekoizteko gune moduan lantzea esan gura du basogintza mikologikoak. Zuhaitzak egurra lortzeko lehengai moduan erabiltzen diren bitartean, guk planteatzen duguna da basoaren jabeari baldintza jakin batzuk bete ezkero egurra eta perretxikoak ateratzeko aukera eskaini gura diegu. Basoa perretxikoak eman ditzan egokitzea da, finean.

Zertan datza egokitze lan horrek?

Jaime Olaizolak laborategia du Plentzian. Lurra analizatu egiten da lehenengo eta lurraren zein zuhaitz motaren arabera, inokulo bat edo bestea sartzen da perretxikoak irten daitezen. Gai berria da, baina Olaizolak berak ekainean Sorian bere teoriak aurkeztu zituen, eta bertako komunitate zientifikoak horiek guztiak onartu zituen. Lan horretan gabiltza; nik adibidez, inokuloak sartuta dauzkat nire basoan iazko maiatzetik. Hemen [Bizkaian] ez dago laguntza handirik instituzioen aldetik baina badakit Gipuzkoan hiru lekutan egin direla halako operazioak. Aipatzekoa da Aldundiak %100 eman duela diru-laguntzetan. Espero dut Gipuzkoako Diputazioak jarraipena emango diola; baserritarrendako oso interesgarria izango litzateke.

Iro Landaluze. | ORIO PRODUKZIOAK

"Perretxikotara joan behar da basora buelta bat ematera joango bazina bezala, pazientziaz"

Perretxikotara joateko gomendioak emango dituzuela suposatzen dut. Noski, galdetu dezatela. Adibidez, joan aurretik leku horretan perretxikorik dagoen jakiteko Interneten non begira daitekeen esango diet, %100ean asmatzea zaila bada ere Bestalde, nire gomendioa da pazientziaz hartu behar dela; perretxikotara joan behar da basora buelta bat ematera joango bazina bezala. Jaime Olaizola oso gizon interesgarria da eta ziur saio dinamikoa izango dela.

Izen-ematea, hilaren 16ra arte

Bedoña auzoko eskola-etxean izango da basogintza mikologikoari eta mikorrizazioari buruzko hitzaldia. Landaluzerekin batera, Plentziako Unibertsitateko irakaslea eta nekazaritza ingeniaria den Jaime Olaizola egongo da bertan. Hitzaldia egubakoitzean, hilak 18, izango da, 19:30ean. Interesatuek hilaren 16ra arte eman ahalko dute izena, 688 88 79 09 telefonoan. Auzokoek bost euro ordaindu beharko dute eta auzokoak ez direnek, berriz, hamar euro.

NIRE USTEZ

ANDER ETXEBARRIA

Okindegitik gasolindegira

Arrasateko biribilgune bat bertan dagoen okindegiagatik da ezaguna. Han dabilen norbaiti galdetu eta, nahiz eta kalearen plakaren azpian egon, seguruenik ez du ezagutuko bere izen ofiziala: Gipuzkoako Foruen Plaza. Gutxi dela, komunikabide batek ere inguru hartan aurreikusten diren aldaketak azaltzeko gaitzizena erabili du, benetako deitura ezagutuko ez delakoan-edo. Pena da gure historian legeak egiteko eskumena sinbolizatzen zuten foruek ez izatea ikusgarritasun handiagoa.

Historiari lotuta, opor aurretik banatutako Udal Gida 2013n gauza berezi bat dago: Arrasateko iragana kontatzerakoan ez da Nafarroaren aipamenik egiten. Harrigarria da, besteak beste orain hiru urteko hitzaldi zikloan –*Arrasate, Harri eta Burdin, hiri gutunaren 750. urteurrenean*– Gipuzkoako lurraldea Nafarroako Erresumaren baitakoa zela azpimarratu baitzen edo iaz Nafarroako bandera udaletxeko balkoian egon zelako. Bestalde, terminologia aldetik kuriosoa da ondokoa irakurtzea Gidan: "…Besaideko monumentua, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba probintziak (sic) bat egiten duten puntu geografikoa”".

Hasierara itzuliz, gizartean izen berriak asmatzerakoan gaitzizen komertzialek arrakasta handia badute, zer esanik ez mesprezuzkoek: Biteri plazako aterpeari gasolindegia deitzea…!

"Biteriko aterpeari gasolindegia deitzea…!"

Baserritarren azoka egingo dute zapatuan Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara

Hileko hirugarren zapatua izango da oraingoa eta ohikoa denez, baserritarren azoka egingo dute Seber Altube plazan. Goiz osoan zehar, 09:00etatik 14:00etara, bertako produktuak erosteko aukera egongo da. Udaleko Garapen Ekonomiko eta Enplegu Sailak aurreratu duenez, Jakion-en jakiak egongo dira salgai.

Aurten egindako azoketako bat. | ARTXIBOA

Mendi Hamabostaldi interesgarria antolatu dute

Urriaren 16tik 27ra adin guztiendako egitaraua prestatu du Besaide Mendizale Elkarteak

J.B. | ARRASATE

Mendia gustuko duenarendako egitarau ezin interesgarriagoa dakar Besaide Mendizale Elkartearen Mendi Hamabostaldiak: Kilian Jornet mendi lasterkari famatuaren *Summit of my life* ikus-entzunezkoa, MTB bizikleta martxa, Egoitz Zubizarreta arrasatearrak Patagonian egindako *Ferrari* bidearen ikus-entzunezkoa, haurrendako orientazioa raid-a eta Udalatxera mendi martxa herrikoia.

Jornet eta Zubizarreta

Lehen ekintza hilaren 16an izango da: Kilian Jornet mendiko korrikalari ezagunaren *Summits of my life* dokumentala ikusi ahalko da Kulturateko areto nagusian (19:00): "Orain modan dago mendian korrika egitea eta modalite horretan onena denaren lana ekarri dugu jendearen interesekoa izango delakoan", esan digu Mikel Nuño Besaideko kideak. Hilaren 19an, berriz, MTB bizikleta martxa egingo dute; Musakolako kiroldegitik irtengo dira, 09:00etan. Bi ibilbide izango ditu probak: luzea 35 kilometrokoa eta motza 27 kilometrokoa. Izena egunean bertan eman ahalko da. Urriaren 21ean Egoitz Zubizarreta mendizale arrasatearraren Patagoniako abenturen ikus-entzunezkoa proiektatuko dute Kulturateko areto nagusian (19:00). Dokumental honetan, Zubizarretak Cerro Torren –*Ferrari bidea*– eta Poincenot orratzean –*Williams arranpa*– egindako igoerak azalduko ditu: "Interesgarria izango da, batez ere protagonista arrasatearra delako. Bertan egongo da azalpenak ematen", dio Nuñok.

Kilian Jornet mendi korrikalaria, 'Summit of my life' iragartzen. | JORDI SARAGOSSA

Hurrengo ekintza haurrei begira antolatu dute Besaidekoek. Hilaren 26an, 10:00etan, umeendako orientazio raid-a egingo dute Monterron parkean. Izena emateko edota argibide gehiagorako, hilaren 22an eta 23an Besaideren egoitzara gerturatu beharko da, 19:30etik 20:30era.

Martxa herrikoia Udalatxera

Amaitzeko, Udalatxera mendi martxa herrikoia antolatu dute hilaren 27rako. 09:00etan irtengo da martxa Monterron parketik. Honako ibilbidea egingo dute: Arrasate, Kanpanzar, Besaide, Udala eta buelta herrira.

Antzerkia eta umorea erabilita, euskal literatura zipriztintzen

Antzezleek hainbat tabernatan euskal egileen obren zatiak irakurri zituzten

IMANOL GALELGO | ARRASATE

Lainoek ez zuten ipuin konturako gogorik eta eguen arratsaldea ilundu zuten. Hala ere, AED elkartekoek tinko eutsi zioten, eta aurtengo Literaturjauziei behar bezalako amaiera ematera irten ziren. Musika, konfetia, algara... ez zen ezer falta izan. Herriko Maider Altzelai, Josu Zugasti, Eneko Barberena eta Itziar Rosado antzezleak ezkondu aurreko agur-festa berezia ospatzera irten ziren.

Erdiguneko kaleetan jende gutxi zegoenez, tabernetara jo zuten. Antolatzaileak urduri zeuden. "Urte askoan tabernetan zerbait egiteko proiektua izan dugu", zioen Maite Agirrek. Eguraldi petralak proiektua aurreratu egin zuen.

Urduritasunik ez

Lau antzezle arrasatearren hitz jario eta etorriak goibel zegoen arratsaldea alaitzea lortu zuen.

Ekaitz taberna izan zen ezkondu aurreko festa probatu zuen lehen taberna. Jendeak aldarte onarekin hartu zituen, eta haien txantxekin gogotik egin zuen barre. Literaturjauzien ekintza bat zenez, antzezleek euskal idazleen pasarteak ere tartekatu zituzten.

Garcia Marquez idazleak *Crónica de una muerte anunciada* eleberria idatzi bazuen ere, atzoko ekimen literarioa *Arrakastaren kronika* izan zen.

Bukatzeko, lehiaketa

Izaskun Normalagak ez zuen bere kuadrillarengan itxaropen handirik, eta azken aukera bat ematea bururatu zitzaion. Taupa tabernako arkupeetan zegoen jendearen aurrean imintzio eta potokume jolasa.

Barre eta algara artean, jendeak ez zuen zorte handirik izan, baina Normalaga andereñoa bigundu, eta bere lagunen akats ugariak eta bertute urriak onartu behar izan zituen.

Euskal Herrian egin ohi den moduan, kuadrilla xelebre horren adiskidetzea eta Literaturjauzien arrakasta topa eginez ospatu zituzten.

Eguneneko pintxo-poteoa literatura-poteoa izatea lortu zuen AED elkarteak. Zorionez, Literaturjauziek jendearengan literatura gehiago kontsumitzeko aje positiboa besterik ez zuten utzi.

Kalean hasi zuten antzerki literarioa. | IMANOL GALLEGO

Tarteka, euskal idazleen pasarteak irakurri zituzten. | I.G.

Ezkondu aurreko edozein agur-festatan bezala, alkohola ere egon zen. | I.G.

GOXONE XIPRISTIN
MAIDER ALTZELAI

Amodio itsu, irreal, platoniko eta utopikoan sinesten duen emakume maitagarria. *Love is in the air* abestia bere bizitzako soinu-banda bihurtu du.

MORDOR ILUNCEAGA
JOSU ZUGASTI

Amodio kontuetan zorte handirik izan ez duen mutilzahar ozpindua da. Maitasuna mespretxatu eta gorrotoaren aldeko kanpaina egiten du.

ELHUYAR WIKIPEDO
ENEKO BARBERENA

Bere burua zientzialaritzat duen arren, filosofoa dugu. Bere bizitza horrenbeste neurtu ostean, zentzua galdu duen beste pentsalari horietako bat da.

IZASKUN NORMALAGA
ITZIAR ROSADO

Dohakabe kuadrilla hori tarteka sufritu eta tarteka maitatzen dituen koitadua da. Bere lagunekin, ezkondu aurreko agur-festa ospatzea besterik ez du nahi.

Bide ertzean taldearen euskal doinuek beteko dute hurrengo Kooltur eguena

Taldea formatu txikian ezagutzeko aukera ezinhobea izango da Gaztetxekoa

I.G. | ARRASATE

Urriaren 17an Bide Ertzean izanen da Kooltur Ostegunak ekimeneko talde protagonista. Gaueko 22:00etatik aurrera, Arrasateko Gaztetxean.

Bide Ertzean taldea ia aitzindaria da pop-rocka euskaraz egiten. Urte asko dira jada Deabruak Teilatuetan taldeko kideetako batzuek erronka horri -pop-rocka egiteari- heldu ziotenetik eta emaitzak begi bistan daude.

Disko ugari ditu taldeak eta 2006an 'Non dira' lana 36ko Gerran oinarritu zuten bezalaxe, oraingoa -'77'- trantsizioa delakoan inspiratu dute. Bestalde, taldeak bere ibilbidean formazioan musikari gehiago batu baditu ere, etapa berri honetan oinarrizko hirukotea arituko da agertoki gainean: Imanol Ubeda, Joni Ubeda eta Karlos Aranzegi.

Espaloian emandako kontzertua. | JOSETXO ARANTZABAL

Izaera propioa

Bide Ertzean taldea ez da inoiz izan modaren aterpean ibiltzearen zale izan. Alternatiba akustiko moduan sortu baziren ere, laster etiketa hori gainetik kendu eta euskal panorama musikalean bere tokitxoa egitea lortu dute. Eguenekoa, euskal talde arrakastatsuenetako bat gertutik ezagutu eta entzuteko aukera paregabea izango da.

Urriaren 16an aurkeztuko dute 'Euskarak 365 egun' ekimena Kulturaten, Arrasaten

Euskararen Egunaren bueltan, *Euskarak 365 egun* izeneko ekimena antolatu du Arrasateko Euskalgintzak, eta hilaren 16an –eguaztena– aurkeztuko du, 18:30ean, Kulturateko Loramendi aretoan. Aurkezpen horretan parte hartzeko dei berezia egin diete euskalgintzatik herriko eragile sozial guztiei; alegia, kultur elkarte, kirol talde, garapenerako erakunde, herri mugimendu, alderdi politiko eta sindikatuei, besteak beste, herriko taldeen babesa premiazkoa da-eta.

OHARRAK

1967AN JAIOTAKOEN AFARIA

Guztiak azaroaren 16an, zapatuan, 20:30ean, Kajoi tabernan elkartuko dira, eta ondoren, urteroko afaria egingo dute. Kintadan parte hartzeko, La Caixako 0200134059 kontu korronte zenbakian 50 euro sartu eta izen-abizenak jartzea nahikoa izango da.

1980AN JAIOTAKOEN KINTADA

Azaroaren 23an ospatuko dute, Rox tabernatik hasita. Kintadan parte hartzeko 40 euro sartu beharko dira Euskadiko Kutxako 0011155838 kontuan. 80ko hamarkadako zerbait eroatea gomendatzen dute.

1942AN JAIOTAKO EMAKUMEAK

Urteroko topaketa azaroaren 9an egingo dute; izena emateko, beti bezala, Mari Carmenengana jo behar da.

Aste honetako epaiketak kalean salatuko dituzte

Epaiketak hasten diren egunetan ekitaldi ezberdinak egingo dituzte, Bergara Libre plataformak antolatuta

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Aste honetan Segi eta Herriko Tabernak moduan ezagutzen diren epaiketak hasiko dituzte, eta horiek salatzeko, mobilizazioak antolatu ditu Bergara Libre plataformak. "Epaiketa politikoak behin betiko amaitzeko kalean gure haserrea erakusteko egunak dira hauek. Hori bai, umorez, kolorez eta musikaz erakutsiko dugu gure haserrea eta bakea lortzeko dugun gogoa", diote plataformako kideek.

Arrano taberna kanpotik. | O.E.

Ekitaldi laranja

Ekitaldiak, epaiketak hasten diren egunetarako antolatu dituzte. Honela, gaur, astelehena, kontzentrazioak egingo dituzte, besteak beste. Eguenean, urriak 17, berriz, Ekitaldi Laranja izeneko ekimena egingo dute. 19:00etan izango da, eta musika, txalaparta, hitzak eta herri harresiaren irudikapena egingo dituzte, besteak beste, San Martin plazan. Horren aurretik, trikitixa eta batukada soinuak entzungo dira eta ekitaldi nagusiaren ondoren, kalejira, bertsoak, otamena eta pintxo-potea. Bergara Libre plataformako kideek adierazi dute ekimen horrekin, "elkartasunik beroena" eskaini nahi dietela Madrilen epaituak izango diren herritarrei, Arrano tabernari, Artatse elkarteari eta "Bergaran epaiketa edo sententzia politikoen zain dauden herritarrei".

Gaur eta eguenean

Segiko kide izatea leporatzen dieten gazteen epaiketa gaur, astelehena, hasiko da eta Herriko tabernen aurkako auzia moduan ezagutzen dena, berriz, eguenean. 76 euskal herritar eta 110 taberna, elkarte zein lokalen egoera epaituko dituzte. Tartean, Bergarako Arrano taberna, Artatse elkartea eta lokal bat.

Uraren eta erreken inguruan jardungo dute aste honetan ere

O.E. | BERGARA

Mankomunitateak antolatu duen Uraren eta Errekaren astearen barruan, hitzaldia, erakusketa eta irteera egingo dituzte aste honetan Bergaran.

Bihar, martitzena, esaterako, uraren eta erreka zein ibaien garrantzia jasotzen duen erakusketa zabalduko dute udaletxean, osoko bilkuren aretoan. Bederatzi panelek osatzen dute erakusketa hori eta gai hauei buruzko informazioa jasotzen dute: urak gure bizitzan duen garrantzia; Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeetako ibaiak, EAEko klima, tenperatura eta euriteen mapak; errekan bizi diren izakiak; ibaiari eman zaizkion erabilera desberdinen errepasoa; etxeetan ura zertan gastatzen dugun; gizakiak ibaietan eragindako kalteak eta arroen egoera naturala berreskuratzeko egin dezakeguna.

Erakusketa bihartik, martitzena, urriaren 22ra arte egongo da zabalik.

Deba ibaiaz

Bestalde, eguaztenean, hitzaldia egongo da Deba ibaiaren ingurukoa. Deba ibaiaren egoera eta etorkizuna. Arrain populazioak da hitzaldiaren izenburu osoa eta Iñigo Mendiola biologoa izango da hizlaria. Mendiola aditua da Gipuzkoako ibaien kudeaketan. Arrainen kasuan, esaterako, ibaien arrain populazioen jarraipena zuzentzen du. Izokina eta aingira Gipuzkoako ibaietan errekuperatzeko lanen arduraduna ere bada.

Hitzaldia udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da etzi, hilak 16, 19:00etan.

Araztegira bisita

Bestalde, Mekolaldeko araztegia ezagutzeko irteera egingo dituzte zapatuan, hilak 19. Araztegia ikusteko bisita gidatuak izango dituzte. Euskarazko bisita 10:30ean izango da eta gaztelerazkoa, 12:00etan.

Erakusketako panelak. | O.E.

Organo erromantiko kontzertua izan da aste bukaeran

ANE ETXEBERRIA. | BERGARA

Aurrera doaz organo erromantikoaren nazioarteko XIV. zikloaren barruan antolatutako kontzertuak. Izan ere, urriaren 5ean hasi zen zikloa, Bergaran eta Azkoitian eginiko kontzertuekin. Zapatu honetan ere beste kontzertu batez disfrutatzeko aukera izan dute Santa Marina parrokiara joandako guztiek. Bertan izan da Gerado Rifon organoa jotzen Landarbaso eta Loinatz abesbatzako kideekin batera. Bergaran ez ezik, Azkoitian ere kontzertua izan zuten, eta hantxe izan ziren Javier Simo tronpeta jotzailea eta Loreto Aramendi organo jotzailea.

Kontzertu horiek entzuteko gogoa izan baina aukerarik izan ez dutenek badute oraindik ere beste aukera bat. Datorren asteko zapatuan eta domekan, urriaren 19an eta 20an, kontzertu gehiago izango dira. Zapatuan bi, bata Azkoitian eta bestea Bergaran. Azkoitian Frantisek Vanice izango da eta Bergaran, aldiz, Aitor Olea. Bergarako Airean Ahots Taldeak lagunduta eta Maria Jesus Ugaldek zuzenduta, azken kontzertua izango da aurtengoz Bergarako Santa Marina parrokian. Azpeitian ere kontzertuak izango dira zapatuan eta domekan, Loiolako basilikan, zapatukoa 11:30ean eta azkena 20:00etan.

Santa Marinako kontzertua. | GOIENA

Espoloiko zuhaitzetako eltxoen kontra neurriak hartzeko eskatu diote Udalari

Udalak hauxe dio: "Sasoi honetan ezin daiteke tratamendu hori egin"

M.B. | BERGARA

Espoloiko hainbat bizilagunek bertako platanondoetan dagoen eltxo motaren aurkako neurriak hartzeko eskatu diote Udalari. Izan ere, *Platanoen tigrea –Corythucha ciliata–* deritzon eltxoa asko ugaldu da.

Hori horrela izanik, Udaleko lorezaintza zerbitzuak oharra kaleratu du zenbait azalpen emateko eta adierazi dute urteko sasoi honetan ezin daitekeela tratamendu hori egin. Gehitzen dutenez, urtero, udaberrian, egoeraren diagnostikoa egiten du lorezaintza zerbitzuak, "eltxo horren aurkako tratamendua burutu edo ez erabakitzeko, baina aurtengo udaberriko diagnostikoak ondorioztatu zuen arazoa ez zela larria, eta tratamendurik ez egiteko erabakia hartu zen".

Hala ere, "udako eta udazkeneko tenperatura altuek eltxo mota hori espero baino gehiago ugaritzea" ekarri dutela azaldu dute, nahiz eta "udazkenean, hotza heltzen den heinean, desagertuz" joango den eta "neguan zuhaitzen azalaren azpian, babesean, ezkutatuko den datorren udaberrira arte".

Espoloiko platanondoak. | GOIENA

Horiek horrela, "oraingoz ezin daiteke inolako tratamendurik aplikatu", Udaleko lorezainen arabera. Datorren udaberrian "egoera aztertu, eta horren arabera erabakiko da nola jokatu".

Horrekin guztiarekin batera, lorezaintza zerbitzutik gogora ekarri nahi izan dute negu partean platanondoak, bi urtean behin egiten duten moduan, inausi egingo dituztela.

Superberbalagunak Bergarara iritsiko dira aurten ere

Euskara praktikatzeko aukera ematen diete hizkuntza ikasten dabiltzanei

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

2013-2014 ikasturteko mintzapraktika programak urte berezia du aurten, Donostian mintzapraktikak hasi zirenetik 20 urte pasatu direlako, eta gure ibarrean hasi zirenetik 13 urte.

Superberbalagunak hitzarekin, urtero euskara ikasten dabiltzan euskaldun berriei omenaldia egin nahi izan diete bailarako euskara elkarte eta eragileek. Super-heroiak bezala sarri ikusiezinak direlako, baina eurei esker euskara biziberritzen ari delako. Izan ere, joan den urtean Euskal Herrian 5.500 mintzalagun elkartu ziren. Debagoienean 249 lagun, gutxi gorabehera; 77 Arrasaten, 70 Bergaran, 40 Aretxabaletan, 40 Eskoriatzan eta 12 Oñatin.

Aurtengo programaren kartela. | AEK

Ordubeteko saioa

Mintzapraktiken garrantzia azpimarratu nahi izan dute euskara elkarteek, euskara praktikatzeko aukera ematen dietelako euskaraz moldatzeko maila izanda ere inguruan euskaraz berba egiteko aukerarik ez dutenei. Astean ordubetez elkartzen dira euskaldun zahar edo naturaltasunez hitz egiteko gaitasuna duten euskaldunekin, gustuko ekintza bat egin bitartean berba egiteko. Hala ere, mintzalagunak elkartzeko ordubete horrez gain, urtean beste hainbat ekintza antolatzen dituzte; besteak beste, kultur irteerak, ikastaroak eta afariak. Azken batean, euskara praktikatzea da helburua, baina, betiere, testuinguru erosoan.

Aurtengo ikasturterako beste helburu bat ere martxan jarri dute antolatzaileek: Guraso-lagun egitasmoa. Belaunaldien arteko transmisioaren garrantzia dela eta, euskararen bizi iraupenerako erabakigarria den transmisioa bermatu nahi dute.

Izena emateko epea zabalik

Mintzapraktika taldeetan parte hartzeko baldintza bakarra da euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila izatea. Horrez gain, doan da eta interesa duten guztiei zabalik dago. Beraz, euskara praktikatu, hobetu, lagunak egin edota zure ezagutzarekin beste herritar batzuei lagundu nahi badiezu, eta noski, beti euskaraz, eman izena Jardun Euskara Elkartean, bulegora jota edota posta elektroniko bat bidalita ondorengo helbidera: *jardunkulturatopagunea@topagunea.com*. Superberbalagunek herria konkistatuko dute; adi egon zaitez!

Irabazi asmorik gabeko elkarteentzako dirulaguntzak

A.E | BERGARA

Bergarako irabazi asmorik gabeko kultura talde eta elkarteek 2013an garatuko dituzten jarduera eta ekintzetarako dirulaguuntzak jasotzeko eskaerak egin ahal izango dituzte azaroaren 1etik aurrera. Hilabetez aurkeztu ahal izango dira eskaerak, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara, Erregistro Orokorrean.

Diruz laguntzea nahi diren jarduerek Udaleko Jarduera, Kultur Talde eta Jaiak batzordeak dituen helburuekin bat etorri beharko dute; hau da, herrian kultura jarduerak eskaintzea, Bergaran zein kanpoan egindako jardueretan herriaren izena ezagutzera emateko. Gainera, antolatzen diren jarduerek herritarren eta gainerako kultura elkarteen arteko lankidetza eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatu beharko dituzte.

Dirulaguntza banaketa horretatik kanpo geratuko dira elkarte edo talde eskatzaileek zuzenean antolatzen ez dituzten jarduerak edo egitasmoak, eta baita emakumeen aurkako nolabaiteko diskriminazioa darabilten talde edo elkarteak.

Izen-emate orriak

Bada, izena emateko epea azaroaren 1etik 29ra bitartean izango da eta bete beharreko orria Udalaren webgunean (*www.bergara.net*) dago eskegita, nahi duen orok deskargatu ahal izateko. Halaber, dirulaguntza horien oinarriak ere eskuragai daude webgune berean. Edozein zalantza izanda ere, udaletxera joan daiteke.

Erregetxo plazan eraikiko dituzten etxebizitzen zozketa martitzenean

A.E | BERGARA

Erregetxo plazan kokatuko diren babes ofizialeko eta erregimen tasatuko etxebizitzen zozketarako onartuen eta ez onartuen behin-behineko zerrendak argitaratu zituen Udalak aurreko astean. Horrela, interesatuek zein zerrendatan dauden ikusteko aukera dute udaletxean eta webgunean. Zozketa bihar izango da, martitzena, 19:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Erregetxo plaza Ramon Maria Lilira eta Zabalotegira abiatzeko aldaparen artean geratzen den plazatxoa da; hau da, Bidekurutzeta kaletik Musika Eskolara eta Espoloira bidean ezkerretara geratzen den plazatxoa.

Erregetxoko etxebizitzak egongo diren plazatxoa. | A.E

Erakusketa ugari izango dira ikusgai areto eta tarbenetan hil honetan

A.E | BERGARA

Aste honetan eta baita hilabete osoan ere erakusketa ugari izango dira ikusgai herrian. Hain zuzen ere, Aroztegi aretoan eta hainbat tabernatan, Bergarako eta inguruko artisten lanez gozatzeko aukera egongo da. Eta, besteak beste, hauexek dira artistak eta kokalekuak: Aroztegi aretoan, kirol argazki lehiaketako parte-hartzaileen irudiak izango dira. Bada, urriaren 18tik azaroaren 3ra, martitzenetik domekara bitartean izango dira ikusgai herritar guztientzako.

Nahikari tabernan, aldiz, Maite Azkargortaren, Alfonso Romeraren, Martin Guridiren, Mertxe Ruiz de Eginoren, Nieves Mendibilen, Mari San Vicenteren eta Jesus Zabaletaren lanak izango dira hilabete osoan. Eta Hamaika tabernan, Xabier Larrañagaren erakusketa izango da eta Dixulan, Mertxe Astiazaranen eta Jone Lazkanoren lanak.

Horrekin guztiarekin batera, Martin Guridik, Nahikari tabernan lanak erakusketaz gainera, Raizabal gozotegian ere zenbait obra ezagutzera emango ditu hil honetan.

NIRE USTEZ

MAIALEN MADARIAGA

Esan -nahiak

Filosofo batek esan omen zuen, behin, ura gauza guztien elementua eta hasiera zela. Esaldi hori esan zuena, seguruenez, ohartuko zen erreken garrantziaz. Ohartuko zen garai hartan nola errekek jatorri eta helmuga bat zuten, nola ziren lau hankako zein bikoen habitat, eta nola hanka bikoek komunikazio bide gisan baliatzen zuten. Zoritxarrez, gaur egungo bergarar batek errekaren esanahi poetiko zein filosofikoa besterik ez du irakurriko lerrootan.

Egungo edozein herritarrek kontatuko dizu nola Deba ibaiko habitat bakarra arratoiak eta plastiko puskak diren, nola hankabikoek bertako urei alergia dieten, eta agian, Deba ibaia non sortzen den ere ez du jakingo. Hara, errekaren esanahi erreal bezain tristea.

Bada, ordea, gure errekak garbitzeko sortutako ekimen bat, non 300 herritar baino gehiagok azaldutako ikuspegi poetikoa erreal bihurtu nahi izan duten. Berri pozgarria benetan. Honek gogorarazten dit tantaz tanta osatutako erreka bakoitzak nola hartzen duen garrantzia, estugune eta harrizko hormak gaindituz adar bat osatu, eta gainerako adarrekin bat egitean. Elkarrekin lotutako adar horiek guztiek unitate bakar bat osatzen dute, itsasoa. Milaka tantaz osatutako olatu indartsua. Hara, errealitatearen esanahi poetiko zein politikoa.

"300 herritarrek baino gehiagok ikuspegi poetikoa erreal bihurtu nahi izan dute"

OHARRAK

1970EAN JAIOTAKOEK BAZKARIA EGINGO DUTE

Azaroaren 9an egingo dute, Tartufon, eta 13:00etan batuko dira, Ariznoan. Izena Sugoi dendan eman behar da, edo 943 76 59 54 zenbakira deituta.

1967AN JAIOTAKOEK AFARIA EGINGO DUTE 19AN

Etxagin izango da eta interesatuek izena eman behar dute hilaren 16a aurretik, Elkar fotokopia dendan, 20 euro aurreratuta. Kintada egunean 20:00etan elkartuko dira, Infernokuan.

AUTOBUSAK NAFARROA OINEZ-ERA JOATEKO

Nafarroa Oinez-era joateko autobusak izango dira. Prezioa 12 euro da; 10 euro, elkarteko bazkide izanez gero. Txartelak, Jardunen bulegoan.

Larrañako pilotalekua herritar guztiek erabiltzeko moduan

Eskola orduetatik kanpo erabili ahal izango da eta Zubikoa kiroldegian egin beharko da eskaera

IRATI GOITIA | OÑATI

Lankidetza hitzarmena sinatu dute Udalak eta Larraña institutuak bertako pilotalekua erabiltzeko aukera herritar guztiei zabaltzeko.

Ordutegia

Eskola egun eta orduetan Larraña institutuak bakarrik erabili ahal izango du (irailaren 1etik ekainaren 30era, astelehenetik egubakoitzera, 8:00etatik 17:00etara). Ordu eta egun horietatik kanpora, baina, edozein herritarrek (14 urtetik gorakoek), kirol elkarte edo taldek erabili ahal izango du instalazioa. Eskolako opor egunetan (Gabonak, Aste Santua eta uztaila eta abuztua) egun osoz egongo da zabalik herritarrentzako (09:00etatik 21:00etara).

Erreserba egin behar da

Pilotalekua erabiltzeko eskaera egin behar da aurretik. Zubikoa kiroldegian egin behar da, gutxienez 24 orduko aurrerapenarekin. Instalazioaren erreserba hori egiteko ezinbestekoa izango da dagokion tasa ordaintzea kiroldegian bertan. Behin tasak ordainduta, ezin izango da erreserba baliogabetu.

Araudia

Pilotalekua erabiltzeko eskaera egin duen pertsonak eskatu beharko du giltza kiroldegiko sarreran, erabiliko den egunean bertan. Behin erabilita, atea itxi eta kiroldegira eraman beharko du giltza berriro ere.

Larrañako institutuan dagoen pilotalekua. | I.G.

Bestalde, Udala ez da bertan gerta daitezkeen ezbeharren erantzule egingo, instalazioaren egoera okerrak ez badu zerikusirik izan. Hala, eskaera egiten duen pertsona izango da baita instalazioari ematen zaion erabileraren erantzulea (adin-txikikoen kasuan, hauen guraso edo ordezkari legalak). Kirol elkarte eta taldeen kasuan, haiena izango da ardura, eta erantzukizun zibileko poliza izan beharko dute. Ikusleek instalazioetan egin ditzaketen ekintzen gaineko erantzukizuna ere erakunde antolatzaileena izango da.

Ordaindu beharreko tasak

BAZKIDEEK
5,5, euro ordaindu beharko dituzte ordubeteko erabileragatik bazkideek. Horri argiteriaren lau euroak gehitu behar zaizkio.

BAZKIDE EZ DIRENEK
8,5 euro ordaindu beharko dituzte kiroldegiko bazkide ez direnek ordubeteko erabileragatik. Horri argiaren lau euroak gehitu behar zaizkio.

Oñatiko iturriak eta errekak, Santa Anan

Uraren eta Errekaren astearen barruan, bi erakusketa daude ikusgai: bata Santa Anako harreran dago. Oñatiko erreken eta iturrien argazkiak batzen ditu, besteak beste. Hilaren 20ra arte izango da zabalik. Bestea errekaren gaineko informazioa jasotzen duten panelek osatzen dute eta erreka ertzean daude.

I.G.

NIRE USTEZ

AINHOA NEGERUELA

Bareak gara behe-lainoan

Barraskiloak izan nahiko genuke. Ez bizitza geldo bizi dutelako, ez euria gustatzen zaielako. Ez. Barraskiloak izan nahiko genuke, etxe propioa dutelako. Baina bare jaio ginen. Gehienok, behintzat.

Azken urteotan eginahalak egin ditugu barraskilotzeko. Erruz egin dugu lan, gurasoak kakaztu ditugu diru kontuetan eta banketxeetako mahaietan erregutu ere egin dugu. Baina merezi izan du, bai horixe! Orain barraskiloak gara: "Gure oskol propioa dugu. Gurea eta gurea bakarrik den gure oskola".

Joan dira zenbait negu eta hilero dirua pilatzen jarraitu dugu, ordukoek bezala guk ere egungo jauntxoei emateko. "...pertsona orok du etxebizitza duina izateko eskubidea...", esan du norbaitek bat-batean, eta denok barrez hasi gara, txiste bikaina baita.

Eta beste negu batzuk ere joan dira, ertz gehienak zorroztu ondoren. Zelai, landare eta letxugak barraskiloz bete dira. Bi, hiru edo eta lau oskoldunak ez dira erraz ikusten, letxugaren mami gozoenean bizi baitira. Asko nekez dabiltza arrastaka, asko oskoletik burua atera ezinda, eta gero eta gehiago zapataren zolak zapaltzen ditu, kraska!

Aurten iaz baino oskol huts gehiago gelditu omen dira San Prudentziotan Gasteizko plater ertzetan, eta zoritxarrez aurten iaz baino bare gehiago ikusten da etxegabeturik.

"Zelai, landare eta letxugak bete dira barraskiloz"

Lope de Agirreri buruzko hitzaldia bihar kultur etxean eta ikus-entzunezkoa eguaztenean

Lope de Agirreri buruzko hamabostaldiaren barruan, bi ekitaldi izango dira aste honetan: alde batetik, Jose Antonio Azpiazuk eta Jerardo Elortzak hitzaldia egingo dute bihar kultur etxean, 19:00etan. Beste alde batetik, Agustin Goenagaren *Agirreko Lopez zatitua* ikus-entzunezkoa eskainiko dute zinema aretoan eguaztenean, 19:00etan. Lope de Agirreri buruz idatzitako eta esandako guztiak argitzen saiatuko dira ARTASOk antolatu duen hamabostaldian.

Gaur ekingo diete ikasturte berriko ur jarduerei eta igeriketa ikastaroei Zubikoa kiroldegian

Gaur hasiko dira Zubikoako igerilekuetan ikasturte honetan egingo dituzten ur jarduerak eta igeriketa ikastaroak. Bestalde, zerbitzu berriak ere eskainiko dituzte ikasturte honetan Zubikoan: korrika hastapen zerbitzua, gazte-kirola eta patinajea. Korrika egiten hasi gura baina nola hasi ez dakitenendako ikastaroa izango da lehena. Gazte-kirola deituriko zerbitzua, berriz, DBHko ikasleei zuzenduta dago eta helburua da lagun artean kirola eginez, ondo pasatzea. Patinajea bi mailatan eskainiko dute.

Eros daitezke egubakoitzeko 'Sexpearemente' antzezlanerako sarrerak 'Barrabarra' webgunean

Hilaren 18an, egubakoitza, *Sexpearemente* izeneko antzezlana eskainiko du Sexpeare antzerki taldeak Santa Ana aretoan, 22:30ean. Dagoeneko eros daitezke sarrerak *www.barrabarra.eu* webgunean, 10 euroren truke. Egubakoitzeko 15:00ak arte izango da horretarako aukera. Gainontzean, leihatilan erosi beharko dira emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago. Santi eta Rulo pertsonaiek, antzezle bezala, euren bizitza profesionalean izandako gorabeherak kontatzen dituzte antzezlanean.

Ulmako bazkideen eta langileen seme-alabei zuzendutako musika tailerra egingo dute asteon

Haurrendako musika tailerra egingo dute Ulman aste honetan. Bazkideen eta langileen seme-alabei (10 urtera arteko haurrei) zuzendutakoa izango da. Bi orduko bi saio egingo dituzte, Harituz kultur elkarteak gidatuta. Hilaren 15ean, 17:00etan, musika tailerra egingo dute. Haurrek ipuin baten bidez landuko dituzte, besteak beste, erritmoa eta doinua, gurasoek lagunduta. Hilaren 17an, bestalde, eginiko lana jendaurrean erakutsiko dute. 17:30ean elkartuko dira haurrak entsegurako. Emanaldiaren ondoren, marrazki lehiaketako sari banaketa egingo dute.

ESKORIATZA

Azaro hasieran jarriko da abian zabor bilketa sistema berria

Horren bueltan egindako ekarpenen eta alegazioen berri emango dute bihar

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Hiri hondakinen bueltan, Eskoriatzako iparraldean martxan jarriko den proba pilotuak aurrera dihardu. Eskoriatzako Udalak jakinarazi du azaro hasieran jarriko dela abian eta hiru hilabete iraungo duela.

Herrirako hiri hondakinen bilketa sistema egokiena lortze aldera, hondakinak gaika biltzeko sistema berria probatuko dute, edukiontzi eta zintzilikarioak konbinatuta. Udalak zehaztu du hondakinak bost ataletan bereizi beharko direla: materia organikoa, ontzi arinak, papera eta kartoia, beira eta errefusa.

Egutegia

Organikoa eta beira edukiontzien bidez jasoko dute. Beira kalean, gaur egun dauden edukiontzietan utzi beharko da; eta organikoa jasotzeko, ostera, edukiontzi marroiak jarriko dituzte, zintzilikarioak jartzen diren toki berean. Horietako bakoitzak erabiltzaile kopuru zehatza izango du, eta giltzaz bakarrik ireki ahal izango da. Organikoa edozein egunetan eta ordutan atera ahal izango da, bilketa egunetik ahalik eta gertuen ateratzea gomendatzen bada ere. Zintzilikarioetara atera beharreko zaborraren kasuan, egutegi eta ordutegi zehatza bete beharko da.

Proba pilotu hori zehazteko, auzoko komertzio, instituzio eta herritarren parte-hartzea eskatu dute; horren harira, irailaren amaierara arte ekarpenak egiteko eta alegazioak jartzeko aukera izan da, eta horien berri emateko eta proba pilotua aurkezteko batzarra egingo du bihar Udalak, 19:00etan, Ibarraundin.

Bilerarekin batera, egun eta toki berean, zintzilikarioen behin betiko kokapenari buruzko erakusketa zabaltzeko asmoa ere badute.

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

ASTELEHENA	MARTITZENA	EGUAZTENA	EGUENA	EGUBAKOITZA	ZAPATUA	DOMEKA
Ontzi arinak	Papera eta kartoia		Ontzi arinak		Errefusa	
Organikoa						
Pixoihalak, konpresak...						

*Ordutegia: 19:00etatik 06:00etara

Astelehenetik egubakoitzera 172 ehiza postu zozketatzen ditu egunero Aldaype elkarteak

M.B. | ESKORIATZA

Joan den astean hasi eta azaroaren 30era bitartean, usoen postuen zozketa dabiltza egiten astelehenetik egubakoitzera, Eskoriatzako Aldaype arrantza eta ehiza elkarteak Intxaurtxuetan duen egoitzan. Gerardo Canterok azaldu digu 18:00etatik 20:00etara izen-ematea zabaltzen dela eta jarraian zozketa egiten dela; egubakoitzean, asteburu eta astelehenerako postuak zozketatzen dituzte.

Bi gunetan daude ehiza postuak: Lete, Apotzaga, Marin eta Kapi inguruan 99 postu daude; eta Aratz-Aizkorri parkean dauden Alabitan eta Arangurenen, 73. Informazioa gura dutenek 943 71 30 48 zenbakira dei dezakete.

Paco Etxebarriak 36ko gerrako hilobien gainean egingo du berba eguenean

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako EAJ alderdiak mendeurrenaren bueltan antolatutako ospakizunekin dihardu. Eguenean, hilak 17, Paco Etxeberria auzi mediku ezagunak Gipuzkoan dauden Espainiako gerrako hilobiak aztertuko ditu kultura etxean eskainiko duen berbaldian. 19:00etan hasiko da eta gazteleraz izango da hitzaldia.

Bestalde, egubakoitzean, urriak 18, umeendako ikuskizuna izango da Tor magoaren eskutik plazan, 19:00etan. Ospakizunak domekan amaituko dira, eguerdian, alderdikideei egingo dieten omenaldiarekin eta ondorengo luncharekin.

ARETXABALETA

Fernando Aguilar, 60. hamarkadako korrikalaria. | FERNANDO UNANUE

Atletismoaren historia argazkitan jasoko dute

Atletismoko argazkiak eskatu dizkiete herritarrei Arkupeko abenduko erakusketa osatu ahal izateko

IURE EIZAGIRRE | ARETXABALETA

Herrian atletismoak izandako lekuaren adierazle izango den erakusketa egingo dute abenduan Arkupen. Horretarako, ordea, argazkiak behar dituzte eta antolatzaileek aretxabaletarren laguntza eskatu dute.

Azken urteetan herrian egin diren probetako edo bertako korrikalarien argazkiak jaso nahi dituzte. Hauek dituztenei, irudiak Arkupeko harreran uzteko deia egin diete eta nahiago dutenek hirigintza@aretxabaleta.net helbidera bidal ditzakete.

Oraindik ez dute zehaztu argazkiak jasotzeko amaierako eperik baina lehenbailehen esku artean izatea komeni da, digitalizatu egin behar dituzte-eta.

Abendu osoan egongo da atletismoari buruzko erakusketa zabalik Arkupen. Kirol honen historia jasotzeaz gain, herrian zeresana eman duten bizpahiru korrikalariren irudia nabarmentzea izango da bere helburua.

Horietako bi aurten hil dira: Fernando Aguilar eta Joseba Larrinaga. Lehena Espainiako txapeldun izan zen bai krosean baita pistan ere, eta 1964ko Tokioko Joko Olinpikoetan ere hartu zuen parte. Duela hilabete gutxi auto batek harrapatuta hildako Larrinagak ere bazuen esperientzia olinpikoa, izan ere, 1996ko Atlantako eta 2000ko Sidneyko Joko Paralinpikoetan izan zen.

Antolatzaileak bi korrikalari hauen familiarekin jarri dira harremanetan argazkiekin batera zenbait material bildu eta erakutsi ahal izateko.

Gainera, Aguilar eta Larrinagarekin batera, Ramon Jausoro korrikalaria aintzat hartuko dute erakusketan.

Loramendin daude salgai Nafarroa Oinezerako txartelak

Domekan egingo dute Nafarroa Oinez Tuteran eta aurten ere autobusak jarriko dituzte ibarreko euskara elkarteek. Aretxabaletan, Loramendi elkartean eros daitezke txartelak, bazkideek 10 eurotan eta gainerakoek 12 eurotan. Urriaren 17a da txartelak erosteko azken eguna. Autobusa 09:00etan irtengo da Aretxabaletatik eta 19:00etan itzuliko da.

Bihar eta eguenean dira Jar Gaitezeneko hurrengo bilerak

Aurreko astean ingurumenaz, ongizateaz eta sozioekonomiaz hitz egin ondoren, aste honetan jarraituko dute Jar Gaitezen ekimeneko bilerek. Bihar kultura, kirola eta herri bizitza aztertuko dute eta eguenean euskara, hezkuntza eta gazteria. Bi bilerak 18:00etatik aurrera izango dira Arkupeko 2. solairuan.

NIRE USTEZ

AITOR AGIRIANO

Ezkutuko interesak

Tamalez, egunotan, tristea da hizpide dugun gaia. Ahoz aho darabilgu denok, egunkarietan ikusten dugu, telebistako tertulia eta debate saioetan ere honetaz hitz egiten dihardugu. Bai, Herrira mugimenduaren aurka egindako polizia operazioaren inguruan ari natzaizue.

Gobernuaren esanetan, beraien helburua terrorismoa amaitu eta bakea lortzea da, baina ez dakit konturatzen diren horrelako jarrerekin lortzen dutena guztiz kontrakoa dela; hain justu, bake prozesu hori oztopatzea.

Hori guztia erakutsi arren, benetan lortu nahi dutena kontrakoa dela uste dut eta ongi datorkiela beraiek dituzten helburuak lortu ahal izateko bakean dagoena izorratzea.

Kasualitatea izango ote operazio polizial hau orain burutu izana? Tartean interesak egongo ote? Ustez, operazio polizial honen atzean, beste gauza asko bezala, guri ezkutuan gordetzen digutena estaltzea dute helburu. Ez zait kasualitatea iruditzen Estrasburgok *Parot doktrina*-ri buruzko azken erabakia kaleratu behar duenean egin izana, edo gaur egungo krisia, langabezia,... ezkutatzeko izana. Azken finean, beraiek esku artean darabiltzaten trikimailu zikinak estaltzeko egin izana.

Noizbait bakean dagoena bakean utziko ote dute? Edo ezkutuko interesak medio gurekin jolasten jarraituko ote?

"Ezkutuko interesak medio gurekin jolasten jarraituko ote?"

Ostegun Akustikoetan izena emateko epea zabalik dago gaurtik

Gaur irekiko dute Ostegun Akustikoetan izena emateko epea. 40 urte arteko bakarlari zein taldeek har dezakete parte ekimenean eta gutxienez bi kantuz osatutako grabazioa aurkeztu beharko dute, euren argazkiarekin batera, urriaren 28a baino lehen. Antolatzaileek aukeraketa egin ostean, azaroan izango da lehiaketa.

Perretxiko erakusketa. | L.Z.

ELGETA

Jardunaldi mikologikoak izango dituzte Elgetan eguenetik domekara bitartean

Sukaldaritza ikastaroa gidatuko du Jesus Mari Kalboetxeagak eguenean; plaza mugatuak daude eta zabalik dago izena emateko epea udaletxean

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udazkenarekin batera badator perretxiko sasoi oparoena, eta Elgetan II. Jardunaldi Mikologikoak antolatu dituzte. Hala, hurrengo aste bukaerarako hainbat ekintza iragarri dituzte.

Eguenerako, hilak 17, *Perretxikoa sukaldean* izeneko ikastaroa antolatu dute. Sukaldaritza ikastaroa izango da, eta Maialde landetxeko sukaldari Jesus Mari Kalboetxeagak gidatuko du. Intxorta elkartean egingo dute saioa 19:00etan hasita, eta prezioa sei euro da. Antolatzaileek jakitera eman dutenez plaza kopurua mugatua da. Hala, interesatuek aurrez eman behar dute izena udaletxean.

Irteera perretxikotara

Zapaturako, hilak 19, umeendako eta gurasoendako irteera antolatu du Udalak. Taldea 16:00etan abiatuko da herriko plazatik. Helburua da umeekin batera Elgeta inguruko basoetara osteratxoa egitea. Itzuleran, 18:00ak aldera, ekarritako perretxikoak sailkatuko dituzte.

Perretxiko horiekin eta bestelako herritarrek ekarritakoekin erakusketa egingo dute domeka eguerdian; 11:30etik aurrera egongo da ikusgai herriko plazan.

Pintxoak tabernetan

Eskaintza gastronomikoa ere egongo da aurten Elgetako II. Jardunaldi Mikologikoetan. Bariku eta zapatu iluntzean —19:00etatik aurrera— eta domeka eguerdian perretxikoekin egindako pintxoak eskainiko dituzte herriko tabernariek. Pintxo horiek euro bateko salneurria izango dute taberna guztietan.

JARDUNALDIAK

URRIAK 17, EGUENA

19:00 'Perretxikoak sukaldean' ikastaroa.

URRIAK 18, BARIKUA

19:00 Perretxiko pintxoak tabernetan euro baten truke.

URRIAK 19, ZAPATUA

16:00 Irteera perretxikotara.

18:00 Perretxikoak sailkatzeko hitzordua.

19:00 Pintxoak tabernetan.

URRIAK 20, DOMEKA

11:30 Perretxiko erakusketa.

12:00 Pintxoak tabernetan.

LEINTZ-GATZAGA

Gaur hasiko dira ehiza postuen gaineko jakinarazpenak bidaltzen

Joan den barikuan egin zuten ehiza barrutiko eskaintza adjudikatzeko azkeneko saiakera

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Hirugarrena, eta ezustekorik ezean, azken saiakera egin zuen egubakoitzean Leintz Gatzagako Udalak udalerriko ehiza barrutiko uso postuak adjudikatzeko. "Hau egin dugu eskaerak izan ditugulako libre geratu diren postuen gainean", adierazi dute udal iturriek.

Oraingo honetan, prozedura negoziatua erabili du Udalak. Bestela esanda, egubakoitzeko ekitaldia ez zen publikoa eta Udala bera joan da zuzenean ehiztari batzuengana prozedura horretan parte hartzeko proposamenarekin.

Edozelan ere, esandako moduan, egubakoitzekoaren ostean, behin-behinerako adjudikatuta geratu dira ehiza barrutiko postuak, lehen bi enkanteetan baino postu gehiago alegia. Oraingo astean jakin ahalko ditugu xehetasun gehiago.

Hain zuzen ere, gaur, astelehena hasiko dira-eta, egubakoitzean erabakitakoaren gaineko jakinarazpenak bidaltzen. Eta prozedura legalaren arabera, eman beharreko hurrengo pausoa izango da osoko bilkurara eramatea kontua. Izan ere, legez, lehen bi enkanteetako gehi azkeneko prozedura negoziatuko erabakia behin betikoa izan dadin derrigorrezkoa da osoko bilkurak erabakia berrestea.

ARAMAIO

Asiako liztorraren Arabako lehen habia agertu da Aramaion

Uribarri auzoko Agarre baserrian aurkitu zuten; Aguraingo suhiltzaileek desegin zuten berehala

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

2012ko irailean Asiako liztor inbaditzailearen presentziaz ohartarazi zuen Arabako Diputazioak. Hala ere, joan den astean lehenengoz agertu zen *Vespa Velutina* delako espeziearen Arabako lehen habia.

Uribarri auzoko Agarre baserriaren lurretan agertu zen: "Martitzen iluntzean bizilagunak deitu zidan, sasi-garbitzeko makinarekin pinudi bat garbitzen ari zenean habia ikusi zuela. Hara joan eta berehala konturatu nintzen asiarra zela, zoritxarrez oso ondo ezagutzen ditut-eta. 112 telefonora deitu eta hurrengo egunean etorri ziren suhiltzaileak", esan digu Juan Mari Arriolabengoa erlezainak. Agarre baserri ondoko Aldeko baserrian bizi da Arriolabengoa.

Parkera, suntsitzeko

Aguraingo suhiltzaileek bi habia kendu zituzten eta gero liztorrak esprai batekin akabatu. Horrelakoetan egin ohi dutenez, suhiltzaileen parkera eraman zituzten habiak, erresistentzia handiko zakar poltsetan eta kartoizko kaxetan sartuta. Parkean erabat suntsitzen dituzte, kontrolpeko erreketa baten bidez. *Vespa Velutina*-ren habiak oso handiak izaten dira, metro bat izatera hel daitezke. Liztorrak akabatzeko pozoia habia barrura bota eta irteera oro itxi egiten dute, poliuretanoz.

Suhiltzailea Uribarrin. | VITORIA-GASTEIZ.ORG

ANTZUOLA

Elkarbizitza prozesuko bigarren fasea hasi dute

Martitzenean batu ziren Olaranen eta aurreko bileretatik sortutako talde eragilea aurkeztu zuten

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Martitzenean heldu zioten berriro elkarbizitza prozesu parte-hartzaileari. Joan den udaberrian egin zituzten lehen hiru bilerak, eta haien jarraipena izateko asmoz jarri dute martxan bigarren fasea.

Horren funtzionamendua, baina, ezberdina izango da. Izan ere, lehenengo fasean parte hartutakoek talde eragile bat sortu dute eta, hain zuzen ere, hark egingo du 2014. urtera begirako plangintza eta elkarbizitzaren hausnarketa.

Bada, antzuolarren adostasuna ere lortu nahi du taldeak, eta abenduaren 17an, esate baterako, gainerako taldekideekin batuko da elkarbizitzaren oinarrien inguruko ikuspuntu kolektiboaz eta plangintzaz gogoeta egiteko.

Gainera, taldeak antolatutako ekintzak irekiak izango dira eta herritarrei jakinaraziko zaizkie parte har dezaten.

Garraio beharren azterketa

Gipuzkoako Foru Aldundia garraio publikoaren azpiegitura aztertu eta herritarren beharrak ezagutzeko bilerak egiten ari da azken egunotan. Antzuolarren iritzia ere jaso nahi du, eta eguaztenean egingo dute bilera, 18:00etan, udaletxean. Bertaratu ezin duenak *www.garraioahobetzen.net* webgunean eman dezake iritzia.

Senidetza eguneko bazkaria

Urriaren 27an egingo dute Aiherra-Antzuola senidetza eguna eta bazkarirako txartelak bihar jarriko dituzte salgai udaletxean eta liburutegian.

UDAKO ARGAZKIEN IX. GOIENA LEHIAKETA

Argazki guztiak fotoblog honetan: *blogak.goiena.net/argazkiak*

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak

Hauek dira irabazleak!

1

BILBO 2045 NON DAUDE DANAK? / Xabier Atxa Zugasti / Arrasate
Oporretako erretratu gordina. Hondartza eta beste inguru batzuk betetzen diren bitartean hiri askok estanpa hau hartzen dute. Argazki grafikoa.

2

FANAZ ARROPA SIKATZEN. / Arkaitz Laskurain / Oñati
Azalpen gutxi behar dituen argazkia. Sikatuko ote ziren arropak?

3

GLASGOW. Mikel Zamora / Aretxabaleta
Originaltasuna, grafittian txertatzeko ahalmena eta protagonistaren abilezia dira saritu direnak.

HERRITARREN SARIA



STAUSEE GIBIDUM. / Iñaki Uribe-Etxebarria / Eskoriatza
"Stausee Gibidum" Iñaki Uribe-Etxebarria eskoriatzarraren argazkiak jaso ditu boto gehien.

BOTO EMAILEEN ZOZKETAN IRABAZLEA

Ana Belastegi Aranzabal
Bergara

150 LEHIAKIDETIK GORA

Aurtengo edizioan 150 lagun baino gehiagok hartu dute parte. Guztira, baina, 500 argazki baino gehiago jaso ditugu. Gustura egindako lana izan da, baina ez duzue batere erraztasunik eman; asko dira-eta saria merezi dutenak. Batzuk freskoak direlako, besteak barrea eragiten dutelako; teknika aldetik zainduta daudenak jaso ditugu, eta baita erretratua ateratzean ederto zebiltzala erakusten dutenak ere. Argazki horiek guztiek dute gurean lekua, horrenbestez, datorren urtean ere animatu!

GOIENA POZIK

Iazko erantzun zabalari eutsiz, bederatzigarren edizio honek erakutsi du debagoiendarren artean lehiaketa finkatu dela. Alde horretatik, oso pozik dago Goiena, parte-hartzea handia izan delako.

Urriaren 18ko egubakoitzeko Goiena paperean izango duzue irabazleak ezagutzeko aukera.

Sariak

1. saria
Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.

- 14,2 megapixel.
- Full HD bideo-grabazioa.
- 3 hazbeteko pantaila.
- Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa.
- ISO 100-3200 sentsibilitatea.
- Integratutako edizio funtzio ugari.



2. saria: Bi pertsonendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Orioko AISIA hotelean Arrasate Bidaiak-en eskutik.
3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
Herritarren saria: Google Android sistemadun 7 hazbeteko tableta, Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.
Boto emaileentzat saria: Munduko kafe ezberdinen otarrea, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA: goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK: KB photoestudio www.kbphotoestudio.com · ARRASATE BIDAIAK · GURE AMETSA JATETXEA · Arrasateko hipermerkatua EROSKI zurekin · karibu munduko zaporeak karibumundukosaporeak.com

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Jokoa kontuan izanda, sari handiegia izan zuen Bergarak

- Bergarak urduri hasi zuen partidua, golak egin arte
- UDA askotan saiatu zen gola sartzen, alferrik, ordea

Ibai Hernandez, Bergarako jokalaria, baloia mugitu nahian UDAren area barruan. | IMANOL SORI

EMAITZA

BERGARA

4-1

UDA

FITXA TEKNIKOA

Bergara: Soto, Arruti, Iñurrieta, Beitia, Urrutia, Beitia, Aranburu, Ilzarbe (Diaz), Macho (Oregi), Hernandez (Baltzategi), Ibarluzea.

UDA: Castellano, Amutxastegi, Etxabe, Arriaran, Arrotajauregi, Igartua, Eraña, Rodriguez (Meabe), Zaitegi (Apraitz), Sanchez (Perez, 73.min), Badillo (Mar).

Beste: Gol aukera garbirik gabeko partidua. Bigarren golean jokoz kanpokoa eskatu zuen UDAk.

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Duela bi aste Real Unionen kontrako partiduak barruan utzitako arantza ateratzea lortu zuten bergarrek zapatuan, UDAren kontra. Markagailuan aurretik jarri ziren orduan, baina ez ziren aldeko emaitzari eusteko gai izan. Zapatuko partidua ezberdina izan zen eta, hasierako abantailari eusteaz gain, azken ukitu ezin hobea eman zioten norgehiagokari, lau gol sartuta.

Aretxabaletako jokalariak hasieratik amaieraraino saiatu ziren baloia ukitu eta jokaldiak eraikitzen, baina ez zituzten saiakerak gauzatu eta gol bakarra sartuta itzuli ziren etxera.

Kasu honetan, gol bakarra sartzea baino mingarriagoa da berriro, bigarren jardunaldiz jarraian, lau gol jaso izana.

Bergara urduri hasieran

Azken jardunaldian gertatutakoa gogoan-edo, urduri atera zen Bergara taldea futbol zelaira. UDA izan zen lehen minutuetan partidua zuzendu zuena. Jokalariek behin eta berriro ukitu zuten baloia zelai erdian eta area ingurura heldu ziren, baina kosta egin zitzaien sartzea. Etxeko taldeak, berriz, nahikoa lan izan zuen erasoei aurre egin eta baloia area ingurutik aldentzen.

Airez jokatu zuten bergararrek, ezker hegaletik lehen jokaldia egitea lortu zuten arte. Ez zuten askoz gehiagorik behar izan gola egiteko, bigarren barneraldian heldu zen-eta 1-0ekoa. Ezkerretik heldutako baloia jaso zuen Iñigok eta atetik apur bat urrun egon arren, atezaina aurreratuta zegoela aprobetxatu zuen bere gainetik sareratzeko.

Lehen golaren ostean, Bergarak bere lekua hartu zuen Agorrosingo berdegunean. Bi taldeek zelaiaren erdigunea izan zuten jokaleku eta bataren zein bestearen aukerak ikusi ahal izan ziren. Areaz kanpo jaurtitzeko ausart ibili ziren; batez ere, Bergara taldeko Iñigo.

Minutu gutxira heldu zen etxeko taldearen bigarren gola. Zelai erdian jaso zuen Bergarak baloia eta berriro ere ezker aldetik eraman zuen arearaino. Area aurrean galdu ostean, bertan berreskuratu eta Enekori heldu zitzaion baloia arearen eskuinaldean. Jaurti eta gola egin zuen. Aretxabaletarrek jokoz kanpokoa eskatu zuten, baina epaileak balizkotzat eman zuen jokaldia.

Behera egin zuen UDAk ondorengo minutuetan baina berehala ekin zion berriro erasoari eta korner batean ateratako baloia buruz jota atezainaren gainetik sartu zuen gola Zaitegik. Atsedenaldiaren aurretik beste bi korner atera zituen UDAk baina 2-1eko emaitzarekin joan ziren taldeak aldageletara.

Bigarren zatian gauzak ez ziren gehiegi aldatu: UDAk erasoan jarraitu zuen eta Bergarak golekin aprobetxatu zituen bere aukerak. Talde bisitariak beste larrialdi une bat pasa zuen 15. minutuan: talde guztia Bergararen zelaian sartuta zegoen, erasoan, eta baloia galdu ostean defentsa bat bakarrik geratu zen Bergarako aurrelariaren jokaldia geratzeko. Biek taldekide banaren laguntza jaso zuten baina UDAko jokalariak baloia moztu eta ezerezean utzi zuen erasoa.

Hirugarrenarekin, amaituta

Harmailetan jendeak protestatutako falta baten ondoren heldu zen Aitor Arrietaren mutilen hirugarren gola. UDAko Aritzek zuen baloia zelai erdian eta hiru jokalari bergarar zituen inguruan. Aritz lurrera erori eta epaileak baloia eskuarekin ukitu zuela adierazi zuen. Entseatutako faltaz egin zuen gola Bergarak: zelai erditik erdiratu eta arean buruz jo zuen Enekok.

Julen Eraña UDAren erasoa antolatzen. | I.S.

Partidua erabakita, UDAko jokalariek borrokan jarraitu zuten baina ereindakoaren uzta bildu beharrean, beste gol bat jaso zuten. UDAren jokaldi batetik sortutako kontraerasoan sartu zuen partidako azken tantoa Bergarak: Albistegiren bi mutil bakarrik geratu ziren defentsan eta haietako batekin bat batekoa egin eta atezainaren azpitik sareratu zuen baloia Iñigok.

Grina eta gogoa erakutsi zuten aretxabaletarrek epaileak partiduaren amaiera adierazi zuen arte. Bi taldeek egindako jokoa kontuan izanda, UDAk ez zuen hainbeste gol jasotzerik merezi izan baina euren entrenatzaileak esan moduan, "batzuetan horrelakoa da futbola".

Aurrera begira

Azken jardunaldietakoa kontuan izanda, arnasa hartu eta konfiantza irabazteko balioko die azken jardunaldiak bergararrei; aretxabaletarrek, berriz, gaizki egindakoa zuzendu eta lan egiteko baliatu beharko dituzte hurrengo entrenamenduak.

Oraindik luzea da denboraldia baina partidu bat bukatu orduko hurrengoan pentsatzen hastea izaten da taldeen joera. UDAk denboraldi honetako lehen garaipena eskuratzeko ahalegina egin beharko du Tolosaren aurka Ibarra futbol zelaian. Tolosarrek nahiko ongi hasi dute denboraldia eta 10. daude sailkapenean, 7 punturekin.

Bergararrek Zarautzen jokatuko dute eta, denboraldi honetako bilakaera ikusita, garaipenarekin itzuli beharko lirateke, Zarautz azken bigarrena da-eta sailkapenean, bi punturekin.

24 | ATLETISMOA | Inoizko parte-hartzaile kopuru altuena Arrasate-Oñatin

IANO

AITOR ARRATE
BERGARA K.E.

"Kosta egin zaigu partiduan sartzea, golekin lasaitu gara"

IURE EIZAGIRRE

Partidu amaieran pozik zegoen Aitor Arrate, Bergarako entrenatzailea. Aurreko partidu batzuetan izan ez zuten zoria ere alde izan zuten zapatuan.

Taldea urduri hasieran.

Markagailua ikusita ematen du partidu erraza izan dela baina ez da izan. Hasieran, kosta egin zaigu partiduan sartzea eta ez gara egon gustura. Gero sartu dugu gol bat, bigarrena ere bai eta hobeto sentitzen hasi gara.

Biak aritu zarete erasoan.

Partidua nor baino nor izan da eta emaitza bakarrik ikusita esan daiteke erraza izan dela baina ez. UDAk ere izan ditu momentu onak, nahiz eta aukera garbiegirik ez egin. Agian 4-1ekoa gehiegi da.

Emaitza lasaigarria?

Azkeneko partiduetan irabazten joan gara eta berdindu egin digute. Ea honek moral eta joko aldetik konfiantza ematen digun eta Bergara indartsu bat ikusten den.

ALBERTO ALBISTEGI
UDA

"Hirugarren gola jaso ostean amaitu da partidua"

I.E.

Gol zaparrada jasotzen duen bigarren astebirua du hau Alberto Albistegi UDAko entrenatzaileak. Taldearen gabeziez gogoeta egiteko unea dela uste du.

Merezi baino gol gehiago jaso dituzue?

Ez dakit, joan den domekan ere hala gertatu zen. Nik uste dut Bergarak merezi izan duela gaur irabaztea. Gu lehen gola sartu diguten arte ondo egon gara, baina lehenengo aukeran gola sartu digute. Bigarren gola uste dut jokoz kanpoko garbia izan dela. Bigarren zatian borrokatu dugu baina falta bati esker hirugarrena sartu digute eta hor amaitu da partidua.

Jokalariak amaiera arte aritu dira erasoan.

Taldearen animoa eta portaera ona da, baina zerbait falta zaigu. Pentsatu egin behar dugu zer gertatzen zaigun. Azkeneko bi partiduetan zortzi gol sartu dizkigute eta hori pentsatzekoa da.

OHOREZKO ERREGIONALA

Partiduko zati bana menperatuta, berdinketa justua Antzuolarentzat

Aurrera nagusi izan zen lehen zatian eta bigarrena etxekoena izan zen

I.E. | ANTZUOLA

Antzuolak Aurrera talde ondarrutarra hartu zuen zapatuan Estalan. Partidu serioa eta parekatua jokatu zuten bi taldeek eta emaitza ere halakoa izan zen, bana egin zuten-eta.

Lehen zatian kanpoko taldea hobeto ibili zen eta eurek kontrolatu zuten partidua. Gainera, aldageletara bideratzeko gutxi falta zenean -43. minutuan- gol psikologikoa egin zuen kanpoko taldeak.

Etxekoek ez zuten horregatik behera egin, guztiz kontrakoa: jokoa hobetu zuten atsedenalditik bueltan. Neurketaren bigarren zatian Aurrera baino gehiago izan zen Antzuola eta orduan sartu zuen gola Aranak. Bi taldeek izan zuten gol gehiago egiteko aukera baina azkenean 1-1eko emaitzarekin amaitu zen norgehiagoka.

Tomas Agirre Antzuolako presidenteak azaldutakoaren arabera, "berdinketa emaitza justua izan zen bientzat".

Aloñak berdindu

Ostadarren kontra jokatu zuen Aloña Mendik zapatuan Lasarte-Orian. Lehen zati txarra egin zuten oñatiarrek, distirarik gabekoa, baina bigarren zatian hobeto aritu ziren eta 1-2 aurretik jartzea lortu zuten, Josu Juaristiren gol bati esker.

Oñatiarrek aukera garbiak izan zituzten baina Ostadarreko atezainak gelditu zituen. Partidua amaitzeko sei minutu falta zirela berdinketaren gola eta etsipena heldu ziren.

Andoni Azkargortak puntua ontzat eman du baina gehiago lortu ez izanaren pena du.

Aurrerako jokalariak erasoan, partiduko lehen zatian. | I.S.

JOSETXO ARANTZABAL

EMAKUMEZKOEN 2.MAILA

0-6 galdu zuen berriro Mondrak

Lagunak talde nafarra eusten saiatu ziren Mondrako neskak atzo Mojategin jokatutako partiduan baina 22. minutuan jaso zuten lehen gola. Lehen zatian beste hiru ere sartu zituen Lagunakek eta 0-4koarekin joan ziren jokalariak aldageletara. Bigarren zatian zelai erditik pasatzeko ahalegina egin zuen Mondrak eta gehiago jokatzea lortu zuen. Hala ere, beste bi gol jaso zituen, azkena amaieran.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Irabazten hasi arren, emaitza txarrarekin etxeratu da Mondra

Mondrak 1-4 galdu zuen zapatuan Ordiziaren aurka. Hasiera ona eman zioten Gotzon Urzelairen mutilek partiduari eta lehen hamabost minutuetan pare bat aukera izan zituzten. Lehen gola ere eurena izan zen, Jon Ander Ormaetxearena. Bi aukera horien ostean, baina, erosotasuna topatu eta 2-1eko emaitzarekin joan ziren aldageletara. Urzelaik adierazi duenez, "taldearen alde indartsuak aztertu genituen aldagelan". Baina taldea are eta okerrago ibili zen bigarren zatian eta lau gol jasota etxeratu ziren. Kolpea izan arren, Urzelaik aitortu du euren helburua hilabete batzuk barru goian egotea dela eta hobe dela halakoak orain jasotzea, gaizki egindakoa aztertu eta hobetzeko.

ARRASATE-OÑATI LASTERKETA

Parte-hartze errekor guztiak hautsi ditu 30. edizioak

- Yeray Varela eta Elena Loyo izan dira azkarrenak
- Lehengo eta oraingo antolatzaileak omendu dituzte

Irribarretsu helmugaratu zen Elena Loyo. Zuiakoa izan zen emakume azkarrena, eta 20 ba

GOIATZ ARANA | OÑATI

Marka guztiak hautsi ditu oraingoan Arrasate-Oñati lasterketak, Oñatin inoiz egin den kirol probarik jendetsuena izan baita. 458 parte-hartzaile batu ditu: 378 korrikalari eta 80 patinatzaile.

Yeray Varela oñatiarra izan da lasterkari guztien artetik azkarrena, 11.600 metroak 0:38:19 denboran eginda; Oñatiko historian gordeko da bere izena, 30. edizioko irabazle moduan. Hirugarrenez irabazi du lasterketa –2006an eta 2011n ere berak irabazi zuen– eta, honenbestez, Diego Garcia zenak eta Asier Cuevasek egindako lorpenetara hurbildu da; azpeitiarra eta eibartarra Oñati-Arrasate lasterketa lau eta bost aldiz irabazirakoak dira, hurrenez hurren. Varelaren atzetik, bigarren eta hirugarren gizonezko azkarrenak Ander Agirre bergararra eta Ricardo Veleda urretxuarra izan ziren, zapatuan.

Emakumezkoetan, Elena Loyok egin zuen denborarik onena: 0:43:46; eta Aitziber Urkiola eibartarra eta Nere Arregi arrasatearra helmugaratu ziren haren atzetik. Arrasatear azkarrenen sariak Gaizka Romerok eta Raquel Alonsok eraman zituzten; eta lehen oñatiarrenak, Igor Esparzak eta Estela Biainek.

Patinatzaileei dagokienez, bestalde, Nicolas Alonso donostiarra izan zen helmugaratzen lehena (0:21:37), eta haren atzetik sartu ziren Ekaitz Perez de San Roman bilbotarra eta Pablo Salaberria donostiarra. Emakumezkoetan, Irungo Begoña Huertak egin zuen denborarik onena (0:23:49), Aramaioko Ainhoa Oianguren sailkatu zen bigarren, eta Donostiako Nagore Montes hirugarren. Oñatiko lehen gizon-emakumeen sariak Iñigo Tercero eta Nerea Mendiolarentzat izan ziren; eta Arrasateko gizonezko azkarrenarena, Luis Miguel Egizabalentzat (emakumezko arrasatearrik ez zen izan).

Bidegorria, nobedade

Ibilbidea soilik errepidetik egin beharrean zati batzuk bidegorritik egitea izan da aurtengo berrikuntza nagusia eta, antolakuntza taldeko Asier Osinagaren ustez, horrek eragin zuzena izan du parte-hartzearen gorakadan. Korrikalariek eskertu egin dute aldaketa orokorrean, hanketatik gutxiago sufritu dutelako eta lasaiago egin dutelako korrika; aldiz, patinatzaileek aitortu digute eurentzako zailtasun handiagoa suposatu duela horrek, leku zabalagoetan seguruago joaten direlako. Edozein kasutan, balorazioa ezin positiboagoa da: "Primeran joan da dena, inork ez du minik hartu eta jendea oso pozik geratu da. Parte-hartzean errekorra egin izana izugarria izan da eta Oñatin sekulako giroa sortu da", kontatu digu Osinagak.

Omenaldia

Orain 30 urte egin zuten lehenengoz Arrasate-Oñati lasterketa, Behobiatik bueltan etorritako gazte talde batek "hau Oñatin zeatik ez xuau ba itten" bota eta gero. 15 bat urtez antolatu zuten eurek, Laixanek gero eta Antxintxiketan kirol elkartekoek azken lau urteotan. Omenaldia egin zieten guztiei zapatuan, egindako lana eskertzeko.

30 urteotan egindako lanagatik, omenaldia jaso zuten antolatzaileek. | I.S.

Parte-hartzaileak animatzen eta erretratuak egiten, Oñatiko Foruen Plazan. | I.S.

ITZIAR ALDEKOA
BERGARA

"Giroa, eguraldia... oso ondo joan da dena, eta ibilbidea ere ederra; zortea dute arrasatear eta oñatiarrek halako bidegorriarekin, bergararrok kaskarragoa daukagu. Behobia dut orain helburu".

PATXI IRIZAR
OÑATI

"Ikusle moduan etorri naiz, hankak ez dit-eta erantzuten. Lasterketa honetan askotan parte hartu dut, ordea, baita lehen aldiz egin zenean ere. Are gehiago: nire hankaren irudia agertu zen orduko kartelean".



JON ARANGUREN
ANTZUOLA

"Lasai antzean hasi naiz, bukaera alderako indarrak gordetzeko, hasieran aldapa behera eta gero gora baitago. Behobiarako izena emanda nago eta saiatzen naiz inguruko probetan parte hartzen".

RAMON ETA SALOME
GASTEIZ

"Biok batera irten gara Arrasatetik eta elkarrekin egin dugu ibilbide osoa, baina azken kilometroetan igoera apur bat zegoen eta gogorra egin zaigu. Lasterketaren aitzakian, bi herri ezagutu ditugu".

AINHOA OYANGUREN
ARAMAIO

"Gogorra izan da; hormaren kontra jota, urratu batzuk ere egin ditut. Baina bigarren egin dut nesketan eta oso pozik nago! Txikitatik patinatzen dut eta duela urtebete hasi nintzen abiadurako patinekin".

at gizonezkok baino ez zuten lortu hark baino denbora hobea egitea. | IMANOL SORIANO

Oñatiko zinegotzi bat Yeray Varelari Loramendiren maillot horia janzten. | I.S.

Irudi bitxia utzi zuten argazkiko patinatzaile bergararrek, helmugatik gertu. | I.S.

Bigarren, hirugarren eta laugarren sailkatuak, Zubillagako sarreran. | GOIATZ ARANA

YERAY VARELA | GIZONEZKO KORRIKALARI AZKARRENA

"Lasai hasi naiz, baina gertu samar nituela ikusitakoan, erritmoa igo dut"

G.A.

Arrazoi bat baino gehiago ditu Oñatikoak gustura egoteko: 30. edizioa irabazi du, etxean eta hirugarren aldiz.

Onenek egindako marketara hurbiltzen ari zara...

Bai, egia esan, ez nekien hau nire hirugarren garaipena zenik, baina oso pozik nago, ez dago batere gaizki Diego Garcia zenak edo Asier Cuevasek egindako marketara hurbiltzea.

Hasieratik egin duzu ihes.

Nire erritmora joan nahi izan dut eta halaxe hasi naiz. Baina, halako batean atzera begiratu eta taldetxo bat hurbiltzen ari zitzaidala ikusirik, igo egin dut erritmoa. Behin seigarren kilometrotik aurrera distantzia handitzen joan da eta bukaerara arte mantendu da.

Bidegorrian ondo?

Arrisku eta segurtasun aldetik badi-tu bere alde onak, baina tradizio puntu bat galdu du akaso eta ni neu bakar samarrik ere sentitu naiz tarte batzutan, errepidean ohikoa da-eta autoren batetik -edo animoak ematea. Herriko sarrera, hori bai, hunkigarria izan da!

ELENA LOYO | EMAKUMEZKO KORRIKALARI AZKARRENA

"Neskei aldea ateratakoan, mutilak zirikatzen ere saiatu naiz apur bat"

GOIATZ ARANA

Lasterketa egunaren bezperan izena eman eta lehen postuan sailkatu zen zuiarra. Egindakoarekin pozik, aho zapore onarekin geratu zen.

Lehen postua zuretzako eta bigarrenari lau minutuko aldea aterata...

Bai, sorpresa izan da. Ez nekien ze aurkari nituen eta kontserbadore samar hasi naiz badaezpada. Baina eroso nindoan eta, neskei aldea atera diedala ikusirik, mutilak zirikatzera ere ausartu naiz, nire buruari apur bat gehiago eskatzeko ahalegin horretan.

Ze iruditu zaizu ibilbidea?

Oso pilota. Bidegorrian oso eroso eta gustura sentitu naiz, gainera.

2014an, berriz?

Azken momentuan ibiltzen naiz beti eta ez dakit; baina ahal badut, suposatzen dut baietz.

Beste probaren baten lortu duzu lehen postuetan geratzea?

Bai, beste sari batzuk ere jaso ditut. Ia bizitza osoan nire kontura korrika egin eta gero, duela urte t'erdi hasi nintzen lasterketetara joaten, eta gero eta gehiago eskatzen diot nire buruari.

KORRIKALARIEN SAILKAPENA

GIZONEZKOAK

1.	**Yeray Varela**	0:38:19
2.	**Ander Agirre**	0:39:28
3.	**Ricardo Veleda**	0:39:38
4.	**Gaizka Romero**	0:40:07
5.	**Martin Berrizbeitia**	0:40:51
6.	**Gorka Bizkarra**	0:41:12
7.	**Mikel Zubiria**	0:41:16
8.	**Andoni Agirre**	0:41:21
9.	**David Arias**	0:41:51
10.	**Igor Esparza**	0:42:04
11.	**Ritxar de Goñi**	0:42:06
12.	**Xabier Luis**	0:42:10
13.	**Ruben Arrizabalaga**	0:42:15
14.	**Jon Telleria**	0:42:23
15.	**Kepa Varela**	0:42:25

EMAKUMEZKOAK

1.	**Elena Loyo**	0:43:46
2.	**Aitziber Urkiola**	0:47:47
3.	**Nere Arregi**	0:49:09
4.	**Estela Biain**	0:49:48
5.	**Raquel Alonso**	0:50:25
6.	**Itziar Aldekoa**	0:51:22
7.	**Eva Calle**	0:52:05
8.	**Ainhoa Imaz**	0:52:06
9.	**Saioa Ugidos**	0:53:00
10.	**M.A. de la Fuente**	0:53:02
11.	**Aloña Ancin**	0:53:06
12.	**Encarni Garcia**	0:53:13
13.	**Idoia Aranguren**	0:53:33
14.	**Ane Ziaran**	0:53:34
15.	**Mari Fran Alonso**	0:53:36

PATINATZAILEEN SAILKAPENA

GIZONEZKOAK

1.	**Nicolas Alonso**	0:21:37
2.	**Ekaitz Perez de S. R.**	0:21:38
3.	**Pablo Salaberria**	0:21:39
4.	**Igor Aranburu**	0:21:45
5.	**Sergio Uriarte**	0:21:57

EMAKUMEZKOAK

1.	**Begoña Huerta**	0:23:49
2.	**Ainhoa Oianguren**	0:24:25
3.	**Nagore Montes**	0:24:56
4.	**Amale Mugica**	0:25:36
5.	**Sara Urkola**	0:27:38

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan egin zuten aurkezpena; (Beñat Ormaetxea falta da argazkian). | IMANOL SORIANO

ZIKLO-KROSA

Datorren zapatuan hasiko du denboraldi berria Arrikrutz-Aloña Mendik

Gipuzkoako Ziklo-Kros Txapelketa Oñatin jokatuko da abenduaren 22an

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Medina de Pomarren (Burgos) hasiko du hirugarren denboraldia Oñatiko Arrikrutz-Aloña Mendi ziklo-kros taldeak. Datorren zapatuan, urriak 19, izango da lasterketa eta hantxe izango da talde oñatiarra.

Euskal Herriko bakarra

Lehen proba euskal mugetatik kanpo egin arren, Euskal Herriko zirkuituetan lehiatuko da Arrikrutz-Aloña Mendi.

Zazpi kidek osatzen dute denboraldi berriko taldea: Beñat Ormaetxea, Ander Gartzia, Xabi Murgiondo eta Ekaitz Txintxurretak (kadete mailakoak); eta Iker Alberdi, Julen Umerez eta Xabi Aiastuik (jubenil mailakoak). "Kadete mailako kideak dituen Euskal Herriko talde bakarra da; beste herrietan euren kasa lehiatzen dira maila horretako gaztetxoak", adierazi zuen Imanol Arkauzek zapatu eguerdian egin zuten taldearen aurkezpenean.

Txirrindulari horiekin batera, Ruper Arkauz, Josu Alberdi, Iker Arkauz eta Julen Arkauz ibiliko dira zuzendari lanetan, eta teknikari, berriz, Mikel Untzurruntzaga.

San Martinen

Zapatutik urtarrilaren 26ra bitartean izango dituzten lasterketen artean, Oñatin egingo dena da aipagarriena, Gipuzkoako txapelketa jokatuko baita Oñatin abenduaren 22an. "Lehen aldiz egingo da txapelketa hori Oñatin, eta San Martinen egingo da. Iaz Jokin Umerezek bigarren egin zuen; ederra litzateke aurten etxeko batek irabaztea", adierazi zuen Ruper Arkauzek.

Oier Irizar zinegotziak ere denboraldi ona opa zien txirrindulari eta taldekide guztiei, Udalaren izenean.

PILOTA

Aitor Mendizabalek Lau t'erdiko txapelketarako txartela lortu du

Joseba Ezkurdiari 22-10 irabazi zion Bergaran, eta bigarrenez parte hartuko du txapelketan

G.A./M.B. | BERGARA

Joseba Ezkurdia 22-10 mendean hartu ostean, Lau t'erdiko txapelketarako txartela lortu zuen egubakoitzean Aitor Mendizabalek Bergaran. Bigarren urtez jarraian jokatuko du antzuolarrak txapelketa horretan.

Joko erakustaldi bikaina egin zuen Mendizabalek Bergaran jokatutako aurre-kanporaketan, jendez, eta bereziki bere aldeko zaleez, betetako pilotalekuan. Neurketa ez zuen ondo hasi antzuolarrak; Ezkurdiak, aldiz, txukun ekin zion, luze jokatuz. Mendizabal apurka-apurka gorantz joan zen, ordea, eta airez eta jokoari abiadura ipiniz, Ezkurdia atzean uztea lortu zuen; zentzu horretan, antzuolarrari primeran etorri zitzaion Arbizukoak bederatzigarren tantoan egindako pilota aldaketa, erritmoa azkartzeko lagungarri izan zitzaion -eta.

Mendizabal ez zen faboritoa, ez behintzat askorendako; inor gutxik pentsatzen zuen Lau t'erdiko txapelketarako bidean Ezkurdia mendean hartuko zuenik, baina halaxe egin zuen. "Oso pilotari ausarta da, ez da beldurtzen, opari gutxi egiten ditu eta bere tresnak oso ondo erabiltzen eta aurkariari gauzak zail ipintzen daki", azaldu zuen Bergarako pilota entrenatzaile Reyes Azkoitiak, Mendizabali buruz.

Rezustak ezin

Txapelketako partidua amaitu ostean, Beñat Rezusta bergararrak, Titin III.arekin bikotea osatuta, Jaka eta Zabaletaren kontra neurtu zituen indarrak. Ez zen posible izan, ordea; 13 tantotan geratu zen bikotea. Titin III.ak pilota onak lagatzen zizkiola aurrean, hasi, ondo hasi ziren, baina bidelaguna txikitzen-txikitzen joan zen, eta gisa horretan zail izan zuten Jaka eta Zabaleta moduko bi pilotariri aurre egitea.

700 lagun inguruk jarraitu zituzten egubakoitz iluntzean jokatutako norgehiagokak.

Ezkurdia Mendizabalen jokaldiari begira. | IMANOL SORIANO

MENDI BIZIKLETA

Iban Altuberen omenez, 214 txirrindulari elkartu ziren Oñatin

Txirrindulariak Foruen Plazatik irteteko prest. | JULEN IRIONDO

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Goiza hotz xamar hasi arren, aldapak igotzeari ekin bezain laster berotuz joan ziren atzo Oñatiko mendi bizikleta martxan parte hartu zuten 214 txirrindulariak. Iban Altuberen omenezko mendi martxa hasi aurretik, baina, omenaldia egin zioten Foruen Plazan.

Martxa 09:10 inguruan hasi zuten; Urtiagainera igo ziren Lamiategitik, eta handik Arrikrutz baserrira eta Araotz ingurura. Ibilbide oso polita egin dute aurtengoan, eta batzuentzat gogorra izan arren, denek gozatu zuten mendi bizikleta martxaz.

Minbizia eta bizikleta

Bizikletaren erabilera sustatzeko eta Aspanogi elkartea ezagutzera emateko ere hainbat ekintza egin zituzten egunean zehar Oñatin.

ESKUBALOIA

Sentsazio onak berreskuratu eta hirugarren garaipena lortu zuen Ford Mugarrik Santoñan

Mailaz igo ziren kantxara buelta egin zuten Pablo Gartziaren mutilek, eta BM Santoña taldeari irabazi egin zioten, partidu on bat egin ondoren. Neurketa zail eta gogorra aurreikusten zen, Santoñakoak esperientzia handia dute-eta. Hala ere, Arrasatekoek 16-27 irabazi zuten, partidu txukuna eginda. Norgehiagoka osoan zehar aurretik joan zen talde zuri-morea eta azken hamar minutuetan aldea nabarmen handitu zuten.

SASKIBALOIA

Esku hutsik itzuli ziren etxera MUko mutilak, Azpeitiaren aurka 68-49 galdu ondoren

Merezitako porrotarekin itzuli ziren Arrasatera Josu Larreategiren mutilak Azpeititik. Etxekoek min handia egin zioten MUri kontraeraso eta erreboteekin; izan ere, azpeitiarrek partidua irabazteko behar handiagoa zuten, eta hasieratik indartsuago irten ziren kantxara. MUkoak ez ziren gaizki ibili, baina erasoan ez zen euren norgehiagoka onena izan eta hirugarren laurdenean partiduak ihes egin zien. Azpeitiarrek defentsa lan gogorra egin zuten eta fisikoki arrasatearrak baino gehiago izan ziren.

FUTBOLA

Aitor Laskurain | Mondra klubeko fisioterapeuta

"Zerbitzua Mondrako lehenengo eta bigarren taldeetara bakarrik bideratzeko asmoa dugu"

- Klubeko talde guztiekin aritu da lanean azken denboraldian; aldaketak iragarri ditu, ordea
- Oinarri-futbolekoen lana bideratzeko informazioa eta hitzaldia eskainiko dituzte

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

Esperientzia handia du Aitor Laskurainek (Arrasate, 1980) fisioterapeuta moduan. Otalora Lizentziaduna kalean du kontsulta baina handik kanpo lan handia egiten du: hamar urte daramatza Realean eta 2011-2012 denboraldi amaieran Mondrari laguntzen hasi zen.

Bigarren denboraldi osoa duzu Mondran. Aldaketarik nabaritu duzu aurreko denboralditik?

Badago zuzendaritza bat, mugatuta egonda ere, gauzak oso ondo egiten ari dena. Gauzak eraldatzen eta gaizki daudenak hobetzen hasi dira eta izugarrizko lana ari dira egiten.

Kirol arloari begiratuta aldaketa egon da: goiko taldeak maila galdu du eta zazpi edo zortzi gaztek ez dute taldean jarraitu. Ondorioz, 17-18 urteko sei edo zazpi gazterekin hasi gara lanean. Esperientzia falta dago baina gose handia ere bai. Eta horrek taldea bizi egotea eragiten du. Bestalde, entrenatzaileak ere berriak dira.

Hain zuzen ere, Gorengo Mailan jokatzen duten Julen Losadak eta Andoni Aizpuruak min hartu dute denboraldi hasieran.

Kasualitatez, partidu berean bi jokalarik lesio berdina izan zuten. Duela egun batzuk eman ziguten diagnosia: aurreko lotailu gurutzatua puskatua dute eta operatu zain daude. Nahiko lesio luzea da, profesionalek sei hilabete behar izaten dituzte osatzeko eta amateurrek zortzi-edo.

Julen langilea da eta operatu aurretik lan kontratua bukatu nahi du. Andoni, berriz, ikaslea da eta agian lehenago operatuko da. Baina, zazpi edo zortzi hilabeteko lesioa da, gauzak ondo joanda. Eta bi jokalari garrantzitsu dira taldearendako.

Jokalarien osasunaz arduratzen zara. Honelako egoeretan zer egin dezakezu zuk?

Lotailua apurtuta dago jada, baina lagundu dezaket edema xurgatzeko prozesuan. Belauna egonkortu daiteke eta koadrizepsean muskulatura ez galtzeko lan egin. Lagundu dezaket operazio ondorengo errehabilitazioa errazagoa izan dadin.

Operatu ondoren ez dakit mutualitate batek hartuko duen mutil hauek guztiz osatzeko erantzukizuna edo nik egin beharko dudan baina orain badago lan bat osatzeko epea murrizten lagunduko duena.

Gorengo Mailan dagoen taldeaz ari gara, baina Mondrako beheko mailetan ere aritzen zara, ezta?

Joan den urtean ni nintzen arduraduna, nik jasotzen nuen klub guztiaren informazioa eta beste taldetan gaur egun inork ez du egiten hori.

Nire helburua hasieratik izan da Mondrari laguntzea, kluba egoera xelebrean ikusi nuen eta laguntzearren talde guztiekin hasi nintzen lanean baina gehiegizkoa da: infantilak, alebinak, neskak, kadeteak, jubenilak...

Orduan?

Zuzendaritzarekin bildu naiz eta adierazi diet nire laguntzeko asmoa berdina dela baina bolumen handia dela. Ondorioz, nire zerbitzua Mondrako lehenengo eta bigarren taldetara bideratzeko asmoa dugu eta beste mailatan taldeko entrenatzaileen edo beste arduradunen esku gera daiteke arlo hori. Horretarako hitzaldi informatiboak egin behar dira eta gurasoekin elkartu behar gara informazioa emateko. Oinarri-futbol guztiko jokalarien gurasoei emango zaie elikadura, prebentzioa eta metodologia bezalako gaiei buruz informazioa.

Entrenatzaileek dagoeneko badute informazio hori. Gainera, entrenatzaileak horretan heziak dira eta prestatzaile fisikoen laguntza dute.

Beheko mailetako jokalariei, behar izanez gero, zuzeneko zerbitzua eskainiko diet baina modu pribatuan. Nahi badute etorriko dira nigana edo nahi badute beste toki batera joango dira. Nigana etortzeak duena da klubeko beste arduradunekin lotura izatea: diagnosia egiteko, lantzea komeni zaiona adierazteko...

Maila ezberdinetan aritua, adinaren arabera aldatu egiten da lan egiteko modua?

Bai, adinaren arabera bai. Demagun alebin batekin gabiltzala, zaintiratu bat egin du eta zailagoa da lotailu hori mintzea, adibidez.

> **"Losadak eta Aizpuruak aurreko lotailu gurutzatua dute puskatuta"**

> **"Laguntzearren, talde guztiekin hasi nintzen lanean, baina gehiegi da"**

Aitor Laskurain, Arrasaten duen fisioterapia kontsultan. | IURE EIZAGIRRE

Askotan adin horretan hanka geldirik izatearekin nahikoa da, gero indartzeko eta ondoren berriro futbolean jokatzeko. Tratatu gabe ere osatu daiteke.

Nagusi batekin agian, edema bat sortzen da, handituta dago eta egon zaitezke bizpahiru egun lasaiago, zauria hobetzeko helburuarekin baina gero prozesu luzeagoa izango da.

Txikia hazten ari delako eta helduak dagoeneko gorputza egina duelako, askotan ez da komeni gehiegi manipulatzea.

Bestalde, muskuluei dagokionez, txikiak ez dira kontziente mina zer den eta muturreraino karga dezakete, mina hartu arte. Helduak, berriz, adierazi egiten du eta puskatu baino lehen azalduko dizu bere karga.

Zentzu horretan, zenbateko garrantzia du prebentzioak?

Beti da egokia. Ez bakarrik aerobikoki nola zauden baizik eta tonu muskularra, oreka lana... Baina denbora inbertsioa dago hor eta askotan alebin edo infantilekin ez duzu denborarik hori guztia lantzeko.

Mondrako jokalarien gurasoei lesioen prebentzioari eta elikadurari buruzko hitzaldiren bat eman diezue.

Gurasoak parte-hartzaileak izatea nahi dugu eta hainbat aholku eman dizkiegu. Elikadura hobetzea, deskantsua eta hidratazioa, adibidez, garrantzitsuak direla adierazi diegu.

Guztiok gazteei mezu bera ematea da aholku horien helburua, hau da, denok ideia bera transmititzea jokalari gazteei.

> **"Prebentzioa egokia da, baina askotan ez dago denborarik guztia lantzeko"**

> **"Gurasoei parte-hartzaileak izan daitezen eman dizkiegu aholkuak"**

Realean ibilitakoa zara. Han jarraitzen duzu?

Bai, 2003an hasi nintzen Realean eta oraindik ere han jarraitzen dut lanean.

Nola heldu zinen hara?

Futbola uzteko asmoa nuen eta UPV/EHUz arduratzeko aukera sortu zitzaidan. Urte hartan Realak hartu zuen taldea, Lehen Mailan, Bigarren B mailan eta jubeniletan zituelako taldeak. Azken horien artean jauzi handia dago eta tarteko mailan zegoen UPV/EHU hartu zuen.

Realeko medikuekin harremanetan hasi nintzen orduan eta Vila-realen zegoen txapelketa batera bidali ninduten. Dinamika horretan hasi nintzen eta bospasei txapelketa egin ondoren, medikuak astebetez Zubietara lehen taldekoekin lan egitera joateko gonbita egin zidan. Gero asteburuetarako konpromisoa hartzen nuen galdetu zidaten eta baietz, oso gustura.

Han ere maila ezberdinetako taldetan ibili zara?

Hamar urte pasa dira heldu nintzenetik eta denean ibili naiz: udalekuak, alebin, infantil, kadete, jubenil, Sanserekin partiduren batean, nesken taldean urte eta erdiz, igandetan lehen taldeko lesionatuekin Zubietan...

Eta gaur egun non zabiltza?

Jubenil Eason nago, Realaren jubeniletako bigarren taldean. Liga Nazionalean gabiltza eta gu baino bi urte gehiago dituztenen aurka ere jokatzen dugu.

Lan egiterakoan asko nabarituko da Reala edo Mondra bezalako talde baten arteko aldea, ezta?

Normala da, Mondrak sarrera eta irteera gutxi ditu. Hamar pertsona daude gauzak hobeto ikustearen truke lanean, azkenean herritar batzuk dabiltza horretan. Eta Reala beste mundu bat da: Gipuzkoa guztia dago hor, zaleak daude, azpiegiturak...

Mondran pertsona batek egin behar du dena. Zerbait larria dela ikusten badut, Alberto Garai kirol medikuarengan jo dezaket laguntza eske eta gero Futbol Federazioko medikua dago. Reala, berriz, goi mailako taldea da eta asko exijitzeaz gain, asko eskaintzen du: medikua, fisioterapeuta, prestatzaile fisikoa... Hemen katea motxagoa da.

Mutikoa ogitartekoa jaten. | GMALRAS

Janarietarako gustua edo errefusa familiatik dator

Haurrak txiki-txikitatik hasten dira ingurukoen jateko ohiturak barneratzen

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Haurtzaroan barneratzen dira komunitateak dituen jateko ohiturak. Argi dago haurrak hobeto elikatuko direla atmosfera emozional positiboetan, baina helduen jokaera gehienetan, presioan, xantaian, manipulazioan, konparaketan, sarietan edo zigorretan oinarritzen da. *Ttiklik* ataritik umeen auto-erregulazio seinaleei jaramon egiteko eskatzen dute, badaudelako hainbat datu gurasoek edo hezitzaileek haurrak beraien beharretatik harantzago jatera behartzen dituztela adierazten dutenak. Hezitzaileok jakin behar dugu haurren hazkundea ez dela beti berdina. Lehenengo urtetik gora hazkunde hori moteldu egiten da, eta mantendu egingo da pubertaroan berriz hazi arte. Horregatik, auto-erregulazioari erreparatzeko ere eskatzen dute adituek. "Jarri haurrak osasuntsuak diren elikagaien aurrean —frutak eta barazkiak, esaterako—, baina ez behartu jatera (...) Neofobia —elikagai berriak errefusatzea— erabat normala da. Egin atsegina jateko garaia, ez behartu beti umea platerekoa amaitzera; eta jaten ez badu, ez dadila gaizki sentitu". Gurasoei amore ez emateko aholkua ere ematen diete. "Haurrek ere ez dute beti kantitate bera jaten. Ez da egokia elikagai batzuetarako bidea mugatzea".

%200-300 areagotu dira dermatitis kasuak hiru hamarkadatan

L.Z. | ARRASATE

Berriki egin dute dermatologia pediatrikoaren mundu mailako XII. kongresua. Bertan ondorioztatu dute azken hiru hamarkadetan asko ugaritu direla haurtzaroko dermatologia arazoak. Garatutako herrialdeetako haurretan izan da, gehienbat, hazkunde hori. Espainia mailan umeen %10-20k garatzen dute dermatitis atopikoa, eta horien artean %90ek bost urte bete aurretik izaten dute.

Erreakzioa

Azalean izaten den erreakzio batek eragiten du dermatitis atopikoa —alergien antzera—. Azala handitu eta gorritu egiten da. Azkura, hantura, azala ezkatatzea, ekzemak, zauriak... ere izaten dira. Arazo ohikoena da pertsona horien azalean zenbait proteina falta direla; filagrina, esate baterako. Gaixotasuna areagotu egiten da tenperatura edo urtaro aldaketetan.

Eragileak dira disolbatzaile kimikoak, tabakoaren kea, margo zuritzaileak, janari lehorgarriak, alkohola duten produktu kosmetikoak eta tratamendu farmakologikoak... Gehienak gizarte modernoetan erabiltzen diren produktuak dira. Horregatik uste da gizarte garatuetako gaitza dela dermatitis atopikoa.

Diagnostikoa

Garrantzitsua da dermatitis atopikoa lehenbailehen detektatzea; izan ere, gaixo horiek bestelako eritasunak ere garatzen dituzte: alergiak, errinitisak eta asma, esaterako.

Ekzema hanketan. | CARE SMC

Nerea Mendizabal: "Asko aipatzen dira mugak, baina, batzuetan, ez dira egoki erabiltzen"

L.Z. | ARRASATE

Elorrioko Txintxarri ikastolako gurasoekin Guraso Eskola egiten dihardu Nerea Mendizabal psikopedagogo ezagunak. Mugei buruzkoa izan da lehenengo saioa, eta gaiak badu mamia. *Anboto* aldizkariari egindako adierazpenetan, Mendizabalek esan du mugak ulertzeko modua oso azalekoa izaten dela, eta edozer lotzen dugula mugak jartzearen zailtasunarekin. Helduen mugen ikuspuntua aztertzea proposatzen du: "Nik ez badut nahi umea barandara igotzea, minik hartu gabe ibiliko dela seguru egon nahi dudalako da. Muga nirea da, eta haurrak nire muga zein den ezagutu behar du", dio psikopedagogoak. Hala, proposatzen du haurrari honakoa esatea: "Nik seguru egon nahi dut minik hartu gabe ibiliko zarela, eta ez nago lasai, beldur naiz. Horregatik eskatzen dizut hortik jaisteko. —edo arrisku handia bada, hartu eta jaitsi egingo dut—".

Mendizabalek dio mugak ezetz hutsaren bidez ipintzen ditugula, gehienetan, eta hori ez zaiola inori gustatzen. "Ez dut esan nahi ezezkorik ez dela esan behar (...). Kontua da ezezko hori nola zaintzen dudan".

Debeku larregi

Ezezkoek haserrea, inpotentzia, mina... sortzen dute, bai helduengan, bai umeengan. Horregatik dio Mendizabalek garrantzitsua dela ezezko horiek arrazoitzea. Gehiago dio adituak: "Ezezko asko badago, debekuak tentatzaileak dira". Hala, ohartarazten du umeek ezin dutela debeku askorekin bizi, "saltatu egingo dituztelako".

Haurren asma diagnostikatzeko beste aurrerapauso bat

L.Z. | ARRASATE

EHUko ikertzaile Paula Corcuerak asmaren eta botatako oxido nitriko mailaren arteko harremana aztertu du doktore-tesian. Donostia Unibertsitate Ospitaleko Pneumologia Pediatrikoaren zerbitzuan egin du ikerketa, eta zortzi urteko lanaren ondorioa izan da.

Corcuerak ikertu du zenbateraino den baliagarria botatako oxido nitrikoaren maila neurtzea haurren asmaren diagnostikoan. Tratamenduaren jarraipena egiteko monitorizazioaren proba osagarria dela dio. Proba erabilgarria dela frogatzeaz gain, lortu du bularreko umeetan aplikatzeko teknika berria garatzea.

Oxido nitrikoaren maila

Asma da haurren artean gehien agertzen den gaixotasun kronikoa. Corcuera doktorearen hitzetan, "penintsularen iparraldean, haurren % 10ek dute asma. Azken urteetan aurrera egin den arren, gaixotasunak ondorio garrantzitsuak ditu oraindik ere gaixoentzat, haien familientzat eta osasun-sistemarentzat". Asma gaixotasun konplexua da, "desberdina baita haur bakoitzean, eta tratamenduekiko erantzuna ere desberdina baita kasu bakoitzean". Gaixotasuna diagnostikatzeko eta gaixotasunaren kontrol-maila neurtzeko tresna nagusia espirometria da gaur egun; horren bidez, biriken funtzioa azter daiteke. Hala ere, gerta liteke espirometria nahikoa ez izatea, eta azken urteetan markagailu garrantzitsu bat sortu da, espirometriak emandako informazioa osatzen duena: botatako oxido nitrikoaren maila neurtzea.

"Ugaztun guztiok botatzen dugu molekula hori", azaldu du doktoreak, "eta badakigu asma dutenek —bai eta beste gaixotasun batzuk dituztenek ere— ohikoa baino balio handiagoa ematen dutela". Doktoreak onartu du teknikak badituela muga batzuk, eta azterketa klinikoarekin eta espirometriako probarekin osatu behar dela beti. Hala ere, frogatu du proba baliogarria dela, bai gaixotasuna diagnostikatzeko, eta bai pazienteak monitorizatzeko. "Nabarmentzeko moduko emaitzetako bat da bularreko haurrek kanporatutako oxido nitrikoaren maila ere neur daitekeela", azaldu du. "Ikusi dugu, edozein adinetako haurra dela ere, ohiko bolumeneko hainbat arnasalditako maila azter daitekeela, ahoa eta sudurra estaltzen dituen maskara erabiliz gero".

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

guraso.com

KULTURA

Aitor Navarro, Bergarako Gaztetxeak antolatutako Kar-kartzelan ekimeneko lehen saioan, egubakoitzean. | IMANOL SORIANO

Kar-kartzelan, beteta

- Egubakoitzean egin zuten lehen umorezko bakarrizketa saioa
- Gaztetxeak duen kultur eskaintzaren erakusle da egitasmo berria

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Jendeak gogotsu hartu zuen egubakoitz gauean Bergarako Gaztetxeak antolatutako Kar-kartzelan egitasmoaren lehen saioa. Irriaren bitartez mezuak era bikoitzean heltzen direla eta kritika berdin egin daitekeela argudiatuta, umorezko bakarrizketak antolatu dituzte urriko egubakoitzetarako. Gaztetxea beteta egon zen lehen saioan.

Aste honetatik aurrera ere izango dute kritika umoretsuaz gozatzeko aukera, Txiki antiguotarra eta lan hauetan ezaguna den Jon Plazaola gerturatuko dira-eta gaztetxera. Urriaren 25ean, berriz, *Xustin Sermoia* eta *Alopecia en la lengua* emanaldiak izango dira. Bi egunetako saioak 22:30ean hasiko dira eta sarrera hiru euro kostako da.

Kultur ekitaldi ugari

Egubakoitzean egitasmo berria jarri zuten martxan, baina urte guztian zehar izaten du kultur egitarau oparoa Bergarako Gaztetxeak. Izaro Aperribai asanbladako kideak azaldutakoaren arabera, urtean 40 eta 45 ekitaldi artean antolatzen dituzte: "Ia astero dugu zerbait eta jaiak direnean, Gabonetan edo gure urteurrenean, egun askotan jarraian egiten ditugu gauzak edo hitzaldiak".

Kultur arloko ekitaldiak antolatzea gauza naturala da eurendako eta batzuetan ez dute esperotako erantzuna jasotzen ikus -entzuleen partetik, baina ez diote horregatik -edo diru-galeran irteteagatik- ekitaldiak antolatzeari uko egiten. "Gu jendea etorrita, gutxi edo asko, poztu egiten gara, azkenean norbait interesatu delako", gaineratu du Aperribaik.

Ez dira, hala ere, itsu-itsuan aritzen eta egindako ekitaldietarako adostasuna bilatzen dute egubakoitzero egiten duten asanbladan. Edonork egin dezake ekitaldi baterako proposamena eta gero aztertzen dute bideragarria den: kontzertuetarako, adibidez, proposatutako egunean gaztetxea libre dagoen, beharrezko giza baliabideak -soinu teknikariak edo sukaldariak- egongo diren eta proposatutako taldea joan daitekeen hartzen dira kontuan. Horregatik, Aperribaik dio komenigarria izaten dela asanbladara joan aurretik kontaktu batzuk eginda izatea.

Bisitak kartzelara

Aperribaik esan moduan, Bergarako gaztetxea esanahi handiko eraikina da, "ez da bertan behera utzitako fabrika zahar bat". Kartzela izan zen, Michele Angliolillo anarkista italiarra garrotez akabatu zuten lekua. Hori oso presente dute Gaztetxeko kideek: liburutegiak bere izena du eta hura egon zen ziegan dago.

Jendeari bertaratzeko gonbita egin diote: "Bisitak landuta ditugu eta aurrez abisatuta, honen historia kontatu diezaiekegu".

HURRENGO EKITALDIAK

Urriaren 19an Txapa jaia. Kontzertuak: Fiachras eta Sumision City Blues.

Urriaren 19an Dantza afrikarren ikastaro hasiera.

Urriaren 26an Tapoi Fest. Kontzertuak: HardFlip eta Inquietud.

Azaroaren 8an Txapako programazioaren aurkezpena. Formatu txikiko kontzertuak afal aurretik.

Urrian eta azaroan Gitarra ikastaroa Txinbok emanda, berarekin adostutako ordutegian.

Azaroan Bertso eskolako lehen klaseak.

Txapa irrati librearen etxea

Bere egituratik kanpo badago ere, Gaztetxean dago Txapa irratia ere. Irrati librea da, ez komertziala, eta orain, Interneti esker, bere uhinak sarean zabaldu ditu. Sistemak ezarritakotik kanpo geratzen den informazioa eta ikuspuntua lantzeko sortua duela 29 urte, kontrakultura du ardatz.

Herriko norbanakoak arduratzen dira programazioaz eta Gaztetxeko asanbladak ere badu bere berriak ezagutzera emateko irratsaio bat. Gainera, herriko kontuez aritzeko *Sasi guztien azpitik* irratsaioa ematen dute, kaletik gaurkotasunak hala eskatutakoan.

IZARO APERRIBAI | GAZTETXEKO KIDEA

"Kar-kartzelan; izen propioa eman diogu jada eta urtero antolatzeko izpiritua du"

GOIENA

Egubakoitzero 19:00etatik aurrera batzen den Gaztetxeko asanbladako kide da Aperribai eta ekimen berriaz aritu gara berarekin.

Nondik sortu da Kar-kartzelan?

Aurretik egin ziren bakarrizketak Gaztetxean eta, erantzun ona izan zutenez, pentsatu genuen hilabete oso baten ostiralero egitea, bakarrizketez osatutako beste egitarau bat osatzea, maiatzean Egubakoitzak Kartzelan egiten dugun moduan. Lehengo astean ezin izan genuen egin gaztetxea hartuta zegoelako, baina beste guztietan izango da bakarrizketa.

Saioak eskainiko dituztenak kanpokoak dira. Bergararrik ez?

Ez dut uste. Ez dakit zergatik: Bergaran halakorik ez dagoelako edo herrian egin zezaketenek aurrekoan egin zutenez, beste batzuei aukera eman nahi izan zaielako. Hurrengo batean egiten badugu, agian bateren bat itzuliko da edo ezagutzen ez dugun berriren bat agertuko da.

Irauteko sortutako egitasmoa da Kar-kartzelan?

Bai, izen propioa eman diogu jada eta uste dut izpiritua duela urtero antolatzeko. Ekimen polita da eta ikusten badugu jendeak erantzun ona duela, ziur aski animatuko gara.

Kantariko urduritasuna uxatzeko entseguak Aretxabaletan

Entseguak "oso eraginkorrak" izan direla azpimarratu du Amaia Txintxurreta Kantariko aurkezleak

JAGOBA DOMINGO | ARETXABALETA

Kantariren laugarren edizioa ate joka dago, eta zapatuan Aretxabaleta eta Eskoriatzako neskamutilek entseguak egiteko aukera izan zuten.

Guztira 148 neska-mutil pasa ziren Arkupe kultura etxeko eszenatoki gainetik eta, Amaia Txintxurreta gidariaren arabera, "entseguak oso eraginkorrak izan dira, izan ere, talde gehienek letra eta koreografia ondo ikasita zuten eta, beraz, datorren asteko zitarako oso baliogarriak izan dira entsegu hauek". Goiza eta arratsaldea eman zituzten Arkupen gaztetxoek eta baita gurasoek ere; euretako asko gerturatu ziren seme-alaben koreografiak ikusi eta etxeko lanak eginda zituztela ikustera.

Konfiantza hartzea

Datorren zapatuko saioaren grabazioaren ordua iristean, oholtza ezagutzea eta taula gainean eroso sentitzea izan da entseguen helburua, horrela konfiantza osoz abestu eta dantzatu dezaten; eta lortu dute, Txintxurretaren esanetan: "Bete dugu helburua. Gehienak urduri etorri arren, koreografia eta eszenografiaren kontu batzuk hobetu ditugu". Txintxurretak neska-mutilen ilusioa eta gogoa ere azpimarratu ditu; aurtengo ediziorako gogotsu daudela azaldu digu.

Talde gehienek kantuen letrak eta koreografiak ondo ikasita zituzten zapaturako, beraz. Etxeko lanak behar bezala egin ez zituzten taldeek, berriz, aste osoa dute aurretik, hobetzen jarraitzeko.

Zapatuan estreinekoa

Beraz, dagoeneko Kantari martxan da eta, entseguak ikusi ondoren, datorren zapaturako dena prest dagoela esan genezake. Urriaren 19an, Aretxabaletako Arkupe kultur etxean izango da edizio honetako lehenengo saioa.

Neska taldea, koreografia amaitu berri. | JAGOBA DOMINGO

Entseguko momentu bat. | J.D.

Amaia Txintxurreta, gaztetxoei aholkuak ematen. | J.D.

JOSETXO ARANTZABAL

J.A.

Dantzariek plaza bete zuten

Jendez gainezka zegoen Antzuolako Herriko Plaza atzo, Haur Dantzarien Eguneko goizeko dantza saioaz gozatzeko. Oinarineko taldeak bi urtean behin antolatzen duen zitara, Arrasateko, Oñatiko eta Soraluzeko dantza taldeak joan ziren. Egun osoan zehar, 210 dantzarik Antzuolako txokoak alaitu zituzten.

Oñatiarrek jarri zuten musika Eskoriatzako garagardo festan

Oñatiko Malenkonia, Eko D Bull eta Bagauda taldeek jo zuten karpan egubakoitzean

J.D. | ESKORIATZA

Garagardoa eta musika betidanik bidelagunak izan dira; bada, egubakoitzean, Eskoriatzako garagardo festan, Malenkonia, Eko D Bul eta Bagauda taldeek jana eta edana musikarekin lagundu zituzten.

Iluntzean hasi zen musika karpa girotzen eta Malenkonia oñatiarrak kontzertu indartsu eta dotorea eskaini zuen. Taldeak disko berria barneratuta duela bistakoa da; *Homo homini lupus* lana aurkezten dihardu eta laukoteak sasoi betean dagoela erakutsi zuen. Oholtza gainean eroso egon zen Malenkonia eta entzuleek gozatu ederra hartu zuten garagardo trago artean.

Bigarren txanda

Ukondoa eta saltxitxak jan ostean, Eko D Bul eta Bagauda taldeen ordua heldu zen. Eko D Bul taldearen heavy-rock kantuekin giroa berotuz joan zen, hala ere, Bagauda izan zen gaueko ezusteko edo aurkikuntza. Laukote gazteak zur eta lur utzi zuen bat baino gehiago, hard-rock, stoner edo Eskandinaviako rock and roll indartsua gogora ekarriz.

Malenkoniako Rober eta Iñigo. | IMANOL SORIANO

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA
TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

NAGUSIENTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

SAROAN
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 19 – 8. bulegoa
Tel.: 943 10 90 80 - www.saroan.com

NUTRIZIOA

LOREA ARANBURU
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 72 16
Bergara / Ramon M. Lili 2, behea / 943 76 59 39

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA
Bergara / 646 06 28 18
arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE
Arrasate / Uarkape kalea 14, behea / 657720049

GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Amaia antzokia

Urria-Abendua 2013

Egitaraua

Urria

12	*Sutondoan*	*Haur antzerkia*
19	*El sueño de una noche de verano*	*Dantza*
26	*J.C. Brooks & The Uptown Sound*	*Musika*
30	*La Traviata*	*Opera*

Azaroa

02	*Hansel eta Gretel*	*Haur antzerkia*
10	*Hitzak*	*Antzerkia*
16	*Eñaut Elorrieta*	*Musika*
23, 24, 29, 30	*La Taberna del puerto*	*Zartzuela*

Abendua

5etik-8ra	*Nazioarteko akordeoi lehiaketa*	*Musika*
14	*Komunikazio - Inkomunikazioa*	*Dantza*
23	*Georgia Mass Choir*	*Gospel*
31	*Arrasate Musikaleko Banda*	*Musika*

Aldez aurretiko Sarrera salmenta:

www.arrasate-mondragon.org

Azaroaren 15era arte helduen ikuskizunek %10eko deskontua dute eta haurrak euro batekoa, webgunetik erosiz gero.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



MAIALEN CALDERON

GURE MUSIKA TALDEAK

Maialen Calderon Donostiako hondartzan. | MAIALEN CALDERON

"Sentimenduak transmititzeko tresna ezin hobea da musika"

- Maialen Calderon arrasatearrak 'Runaway' diskoa kaleratu du
- Entzulea giro intimistan murgiltzen du, istorioak errezitatuta

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Maialen Calderon arrasatearraren *Runaway* diskoa heldu zaigu sorpresaz oraingo honetan. Sei kantuz osaturiko diskoa kaleratu edo egin zuen uda aurretik; *egin* diogu, lagunentzako eta, batez ere, bere buruarentzako egindako lana delako. Donostian bizi da Calderon, eta txikitatik kirolean eta musikan murgilduta egon dela onartu digu. Esku artean dugun diskoa ez du inori ezer frogatzeko asmoarekin egin, bizitzan gogoz eta lan egiten gauzak lortzeko gai dela bere buruari frogatzeko baizik. Hala ere, bakardadean entzuteko atsegina den kantu sorta konposatzea lortu du, entzulea giro intimistan murgildu eta istorioak belarrira errezitatuta.

Noiz eta zelan murgildu zinen musikan?

Betidanik gustatu izan zait musika eta 12 urte nituela hasi nintzen gitarra ikasten, batez ere, barruan nituen sentimenduei irteera emateko. Hasieran zaletasun bat izan arren, gaur egun denbora tarte bat izanez gero, gitarra esku artean hartzen dut. Hainbat musika mota gustatzen zaizkit, baina bat aukeratzekotan country-rock musika izango litzateke. Sabina bezalako bakarlariak ere gustuko ditut, kantuetan zerbait transmititzen dutenak. Hala ere, esan bezala, musika asko entzuten dut eta Guns and Roses, Extremoduro, Tracey Chapman, Bob Marley eta Russian Red taldeak oso gogoko ditut.

> **"Askotan, ideia datorkit burura eta orri batean apuntatzen dut"**

Nolatan sortu zenuen bakarlari proiektu hau?

Batez ere, nire kantuak direlako eta nik jotzen ditudalako. Duela lau bat urte, musika talde baten ibili nintzen, kontzertu pare bat eman genituen eta esperientzia zoragarria izan zen; batez ere, entsegu lokalean bizi izandako momentuak. Hala ere, talde baten parte izateak konpromiso handia dakar. Bakarlari izanda, barruan egindako lana erakusteko era apropos moduan ikusten dut.

Nola sortzen dituzu kantuak?

Abestiak bizipen eta esperientzietan oinarritzen ditut, gehienbat, garrantzi handia ematen dizkiet hitzen mezuei. Askotan, ideia bat etortzen zait burura eta orri solte batean edo mugikorrean apuntatzen dut. Ondoren, abestiari forma ematen saiatzen naiz melodia batekin. Esan bezala, kantuak ez nituen diskoan pentsatuz idatzi, niretzako baizik.

Salarekin, ostera, 5 hilabetean kantuetan lan egin eta hark grabatu zituen perkusioa, pianoa eta beste instrumentu batzuk. Igor Herrartek, berriz, biola sartu zuen kantu batean. Egia esan, laguntza handia izan dut iritzi, letra eta doinuekin, eta benetan eskertzekoa da.

Pianoak presentzia handia du diskoan.

Hasieran ez nuen pianoa sartzerik pentsatu; hala ere, instrumentu suabea da. Kantuen erritmo lasaientzako, baina, aproposa iruditu zitzaidan geroago, eta emaitza polita izan da.

Diskoa entzuterakoan giro intimistara eramaten duzu entzulea; apropos egindakoa da?

Bai, abestiak gertuko pertsonendako egindakoak dira; era horretan entzulearengana iristea errazagoa dela uste dut. Musika sentimenduak komunikatzeko tresna bat da, eta gogoetara bultzatzeko giro intimista sortu nahi izan dut. Hala ere, alde *kañero* bat dut eta laster alde hori askatzea espero dut.

Kantuen inguruko bi hitz?

Irribarre horrekin: erlazio batzuen zailtasunak direla eta, gogoa eta esperantza galtzen ez dudanean, dena posible dela erakusten duen kantua da. *Never Mind*: batzuetan pertsonei aske uztearren garrantziaz hitz egiten du. *Menpean*: bakoitzaren jokabideak pertsona definitzen duela. *Who you are*: galdurik sentitzen zaren momentuetan ondoan dauden lagunen garrantziaz hitz egiten du. *Último trago:* une bakoitza azkena balitz bezala bizi beharrekoa da. Kantu hori diskoko kantu *rockeroena* da. *Izan nahi dut*: pianoa eta ahotsa besterik ez dago kantuan, nire bizitzako etapa bat amaitu eta berri bat hasteko ordua.

Diskoa non dago salgai?

Oraingoz, nik neuk saltzen ditut lagunen artean; hala ere, tabernetan saltzea gustatuko litzaidake.

Hala ere, estudioan amaitu zenuen; zelako esperientzia izan zen?

Hasieran, Gasteizko estudio batean grabatu nituen kantu batzuk. Hala ere, geroago, Igor Salarekin bere estudio partikularrean sartu eta kantuak gehiago landu genituen. Gasteizen, gitarra eta ahotsa besterik ez nuen grabatu;

ZERTZELADA

MAIALEN CALDERON 'RUNAWAY'

Estiloa: Pop-rock.

Egilea: Maialen Calderon (Arrasate, 2013).

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 22:08 minutu.

Malenkonia abiapuntu, jomuga zabaltzen

Ez nuen bakarlari arrasatear hau ezagutzen. Pop-a du estilo kuttun, xuxurlatua eta melankolia ukitu handiarekin; eta instrumentazio zainduak lagunduta –teklatua, gitarra akustikoa, biolina...- giroak ondo irudikatzen ditu. Malenkonia horrek Lain gogora ekarri dit. Lan honetako kantu erdiak euskaraz badira ere, gaztelaniaz –Sabina ukitu rockeroagoarekin- eta ingelesez ere abesten du, hiruetan balizko emaitza lortuz. Zenbait kasutan agerian uzten du kantu biziagoetan ere defendatzen dakiela. Hitzak nahiko existentzialistak dira eta hitz zein musikarengatik 70eko hamarkada bukaerako traza duen 'Menpean' borrokalaria nabarmenduko nuke.

IKER BARANDIARAN

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrosa. Etxebizitza salgai Arrosan (Baxe-Nafarroa). Bi logela, bainera, komuna, sukaldea, berogailu elektrikoa, leiho dobleak, egongela beheko suarekin. Mila metro karratu lur etxe inguruan. Prezioa: 100.000 euro. Harremanetarako: xabilan@yahoo.es Telefonoa: 618-76 95 41.

Atxondo. Atxondon familia bakarreko txaleta salgai. 4.000 m2-ko lursaila, 4 logela, 3 bainu, horma-armairuak, zoru bero-emaile bidezko berokuntza eta xurgapen zentrala. Guztiz hornitua. Bizitzera sartzeko gertu. Tel.: 615-70 12 25.

Bergara. Martokon etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela, bainugela, despentsa eta trastelekua. Igogailu eta berokuntzarekin. Dena kanpoaldera begira, bi balkoirekin eta oso eguzkitsua. Zoru eta ateak berriak eta margotu berria. Bizitzera sartzeko moduan. Garajea aukeran. 179.000 euro. 653 73 80 65 edo 943 76 07 55

Durango. 58 m2. Eguzkitsua. Kokapen ezin hobea. Harrera gela, sukaldea, komuna, logela, egongela ederra, balkoia eta ganbara. Jantzia. Interesaturik bazaude, deitu. Tel.: 658-70 17 48 (Olatz).

Elorrio. Atiko polita salgai Elorrion. 50 m2. Igogailua, komuna, logela, egongela eta sukaldea. Jantzita eta bizitzera sartzeko prest. Berria eta oso polita. Tel.: 656-74 67 13 (20:00etatik 22:00etara). loitzate@hotmail.com.

Elorrio. Elorrio erdi-erdian estrenatu gabeko etxea salgai. Hiru logela, bi bainu, sukalde ekipatua, trasteroa. Prezioa: 190.000euro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 634-45 72 01.

Errenteria/ Orereta. Errenterian apartamentua salgai, 37 metro karratu, logela, bainua, sukalde-egongela, eraberritua. Udaletik oso gertu. 90.000 euro. 608-87 85 12.

Otxandio. Apartamentua salgai. Altzariz jantzia. Trastelekuarekin eta igogailuarekin. 675-71 72 83.

Otxandio. 90 m2 erabilgarri dituen etxebizitza salgai Otxandion. Bizitzera sartzeko prest, altzariz jantzia. Beharrezko guztia daukan sukaldea. Jangela-egongela, bainugela bi (batek leihoa dauka), 3 gela, 4 horma-armairu eta trastelekua. Garajea lortzeko aukerarekin. Igogailua garajetik trastelekuraino. Tel.: 655-72 67 60 (arratsaldeko zapietatik aurrera).

103. ERRENTAN EMAN

Abadiño. Pisua alokagai Abadiñon, Muntsaratz auzoan. 85m2, 3 logela eta 2 komun ditu. Interesatuek deitu honako telefono honetara: 662-55 40 77.

Aretxabaleta. Logela bateko apartamentua ematen da errentan, Iralabarrin, beroako etxeetan. Garajea barne. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 606-72 04 63.

Arrasate. Erguin kalean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logelakoa. Jantzia, bizitzera sartzeko moduan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 606 86 71 97

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Uriburu kalean. Hiru logela. Prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696-79 43 88.

Aulesti. Aulestin, pisu ederra alokatzen da. Behe solairua, sukalde handia, egongela, hiru logela, hiru bainugela, begiratokia, balkoia, trastelekua, egurtokia eta ortu txikitxo bat. 350 euro. Interesatuek deitu 620-56 85 89 telefonora.

Bastida. Labastidan oporretako pisua alokatzen dut piszinarekin. Torre - Otxandi urbanizazio pribatuan. Urbanizazioak igerilekua eta saskibaloi pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldea eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Ezkaraitik hurbil. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabeteka alokatzen da. Interesatuak deitu hona: 620-62 92 45. iarteaga_@hotmail.com.

Benidorn (Alikante). Pisua alokatzen da. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 602-21 20 36.

Bergara. Etxebizitza atsegina, berritu berria. Lau logela, bainugela, egongela handia eta sukaldea. Dena kanpoaldera begira, ikusmira zabalekin, oso argitsua eta lasaia. Fatxada berritu berria. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 635 75 91 19

Bergara. Bolun, Aranerreka kalean, etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi komun eta sukalde-egongela. 649-84 67 09.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Toki Ederren. Hiru logelakoa; nahiko handia. Oso argitsua. 637 55 14 16

Berriz. Berrizen pisua alokagai. Hiru gela, bi komun, egongela eta sukaldea. Erdi-erdian. Autobus eta tren geltokitik 2 minutura. Oso eguzkitsua. Tel.: 656-78 02 15.

Elorrio. Elorrion erdi-erdian etxea alokagai. Hiru logela, bi bainu, sukalde ekipatua. Estrenatu gabea. Prezioa: 600 euro. 634-45 72 01

Etxarri-Aranatz. Erdialdean dago, berritua eta altzairuekin, sukaldea, biltegitxoarekin, egongela, bi logela, komuna eta kamarotea. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 629-91 47 24.

Otxandio. Otxandion pisu berria alokagai. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainua. Tel.: 605-77 37 21.

Tolosa. Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det tolosan, persona bat edo bintzako egokitua, bi planta dauzka. Eguskitzua da eta lasaia. Prezio 450 euro. 644-47 51 69.

Zumaia. Zumaiako Erribera kalean pisu bat alokatzen dut. Bi logela, bainua, sukaldea eta egongela ditu. Harremanetarako deitu telefono zenbaki hontara: 943-86 00 65 628-20 30 37. marilueo@gmail.com.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Bergara. Etxebizitza handia behar dugu errentan. Hiru logelakoa. Beheko solairua izan behar du. Lau pertsonako familia gara. Gloria. 697 96 45 10

Arrasate. Arrasaten alokatzeko pixu baten bila dabilen bikote langile bat gara. 653 72 43 19

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan, bi edo hiru logelakoa. 632 20 48 63

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 400 euro ordain ditzaket gehienez ere. Bi edo hiru logelakoa. 671 84 71 71

Debagoiena. Bi pertsonendako etxebizitza behar dut errentan. 699-26 86 62

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- Zubieta 70 m², 3 logela. Oso ondo. 132.223 €.
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 138.000 €. AUKERA
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000 €. Aukera ona
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €. Berrituta.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €. Berrituta.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 114.192 €.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegi 54 m². 2 logela. 96.000 €.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Justo Garate 50 m², 2 logela. 10m2 terraza. Oso ondo. 210.350€. PREZIO JAITSIERA.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000 €.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 169.500 €.
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.

ANTZUOLA:
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- Buztin zuri. 3 logela. Igogailua. Oso ondo..**ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA.**
  Leku onean eta prezio interesgarriak.

SORALUZE:
Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:
Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.
San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.
Osintxu:
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 150.000 €. AUKERA BIKAINA.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Bikote batentzat egokia. Etxeko gainontzeko lekuak erabiltzeko aukerarekin. 722 45 33 59

Durango. Logela alokagai pisu eder batean. Eguzkitsua eta altura onekoa. Prezioa erabakitzeko. 600-45 83 16.

Lasarte-Oria. Logela ematen da errentan Lasarte-Orian. Eskatzen den bakarra lan-kontratudun pertsona izatea. 644 23 91 52

Logela partekatzeko. Arrasate erdialdean logela bat partekatzeko neska edo mutil bat behar dugu. 693 80 64 18

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. 13 metro koadroko garajea salgai Espoloian. 653 73 80 65 edo 943 76 07 55

Elorrio. Elorrioko kiroldegian garaje irekia salgai. Tel.: 699-48 17 68.

Otxandio. Otxandion bi garaje salgai, bietako bat itxia. Tel.: 675-71 72 83.

203. ERRENTAN EMAN

Durango. Garaje itxia alokagai Durangoko Mendizabal auzoan (Alluitz kaletik dauka sarrera). Kotxe bi nahiko justu sartzen dira. Ezin hobea autoaz gainera, motorra, quada zein trasteak gordetzeko. 105 euro hilean. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 645-73 22 66.

Durango. Garajea alokagai Plateruen plazan, Durangon. Tel.: Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 656-78 02 15.

204. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Garajea hartu nahi dut errentan Zarugalde edo Bizkaia etorbide inguruan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 652 74 03 08

3. LOKALAK

302. ERRENTAN EMAN

Elorrio. Lokal zoragarria, 170m ko lokala herriaren erdian alokatzeko prest, 5 eskaparate haundiak, autobus geltokiaren ondoan 400 euro, edozein negozio ipintzeko prest, primerako baldintzekin. Interesatuak deitu ezazue telefono hauetara: 94-658 21 01/ 606-39 00 99. Inmobiliaria Argiñeta 94-682 00 41.

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Gazte talde bat lokal bila. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 679 27 55 14

Lokal bila. Arrasateko erdigunetaik urrun ez dagoen lokal baten bila gabiltza. Lokala 27 pertsonentzako izan beharko litzateke. Gutxi gora behera 40-60 metro koadrokoa. 15 urteko neska arduratsuak gara eta ez dugu arazorik sortuko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 688 80 24 40

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Beasain. Emakume euskalduna behar da adineko bat zaintzeko, interna. Adinekoak burua argi du, baina osasunez pattal dago. Harremanetarako deitu telefono honetara: 667-71 29 39.

Durangaldea. Adineko emakume bati 24 orduz laguntasuna emateko emakume bat behar dut, eta posible bada euskalduna. Tel.: 696-92 12 75.

Iurreta. Iurretan pertsona bat behar da, goizetan umea haurtzaindegira eramateko, eta gaixo dagoenean zaintzeko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 659-15 08 50.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakumea gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 602-53 37 07.

Arrasate. Emakume euskalduna goizetan plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. 699-54 17 27.

Arrasate. Garbitasunean, nagusien zaintzan edota informatika eta webguneen programazioan lan egingo nuke. 618-04 15 45.

Arrasate. Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzeko, garbiketak orduka egoteko eta nagusiak zaindu zein pasioan laguntzeko. 695-73 87 95.

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Haur hezkuntzan graduatua den neska euskalduna gertu haurrak zaintzeko. Esperientzia handia haurrekin. 618-87 12 97.

Arrasaten, Eskoriatzan edo Aretxabaletan zapatu eta domeka goizetan lan egiteko gertu. Pertsona nagusiak zaindu eta bestelako lanak. 696-84 19 51, 943-53 29 18.

Arrasate. Neska lanerako gertu: etxeko lanetan, ostalaritzan zein nagusiak zaindu eta pasioan laguntzeko. 630-20 12 03.

Atxondo, Elorrio, Durango (Bizkaia). Hezkuntza berezian eta haur hezkuntzan diplomatua dagoen 24 urteko neska bat naiz, momentuan psikomotrizitatea ikasten ari dena. Ega tituluduna eta ingeleseko b1.2. Arekin. Lan experientziarekin. Egunean zehar, umeak zaintzeko prest eta baita hezkuntza arloan laguntza emateko posibilitatearekin. Mugikorra: 645-71 02 48. Garazi.

Bergara. Haur hezkuntzako irakasle ikasketak dituen neska euskalduna umeak zaintzeko gertu. 615-76 29 25.

Bergara. Emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko. Esperientziaduna. 626-86 35 92.

Bergara. Emakume esperientziaduna umeak eta nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 610-34 97 88.

Bergara. Lana egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbiketa lanak egiten. Esperientziaduna. Maite. 650-17 74 87 / 943-76 48 46.

Bergara. Lan bila nabil. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 943-76 52 39.

Bergara. 49 urteko emakumea edozein lan egiteko prest. Esperientziaduna. 606-24 79 09.

Bergara. Neska arduratsua ordukako lan bila, nagusiak zaintzen edo garbitasunak eta abar egiten. 631-43 38 95.

Debagoiena. Mutil batek nagusiak zainduko lituzke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Baita baserrian ere. Gidabaimena daukat. 688-30 26 53.

Debagoiena. Neska gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Paperekin. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 672-90 51 72.

Debagoiena. Mutila gertu lanerako. Garbitasunak egiten, nagusiak zaintzen eta abar. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 610-12 49 64.

Debagoiena. Neska euskalduna goizetan umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 659-92 89 23 / 943-79 39 19.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanetan jarduteko. Esperientziaduna eta lege agiriekin. Eraikuntzan ere lan egingo nuke. Dario. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 631-00 42 63.

Debagoiena. Mutila ostalaritzan lan egiteko gertu. 699-26 86 62.

Debagoiena. 19 urteko mutila eskaintzen da tabernan lan egiteko. 647-18 73 74 / 943-75 20 98.

Debagoiena. Esperientzia duena, lan egiteko prest. Lorea. Interesatuak deitu ezazue telefono hauetara: 677-64 84 82 / 943-53 34 24.

Debagoiena. Donostiako gazte bat naiz, magisteritzako ikasketak bukatzen dabilena. Haurrekin oso ondo moldatzen naiz eta etxeko lanetan ere nahiko fin nabil. Beraz, laguntza apur bat behar baduzu, ez egin duda eta baldintzak negoziatu genitzazke. Ibai. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 646-09 83 90.

Debagoiena. 28 urteko neska gertu edadetu zein umeak zaintzeko edota garbitasun lanetan jarduteko. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda. 602-48 36 75.

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko lanak egin, atari eta eskailerak garbitu zein nagusi edota umeak zaintzeko. 625-86 99 51.

Debagoiena. Goizetan umeak prestatu eta ikastolara eramateko prest. Etxeko lanak ere egingo nituzke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 659-92 89 23.

Debagoiena. Mutil arduratsua, legezko agiriak eta pertsonen zaintzan eskarmentua duena, nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile jarduteko gertu. 631-00 42 63.

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen eskarmentua dut. Garbiketan ere lan egin dezaket. 618-04 15 45.

Debagoiena. Emakumea gertu edozein motako lanak egiteko: nagusiak zaindu, umeak, egun osorako, interna moduan; Sandra. Telefono honetara: 672-90 51 72.

Debagoiena. Garbiketa lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko emakumea gertu.

Orduka eta egun osoz. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 617-98 88 76.

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Nagusi zein umeak zaintzen, garabitasun lanetan, tabernatan eta abar. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 691-16 96 43.

Debagoiena. Mutila gertu industrian edo garbiketan lan egiteko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 666 -01 13 42.

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Nagusi zein umeak zaintzen, garabitasun lanetan, tabernatan eta abar. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 688-68 12 79.

Debagoiena. Tituludun erizain laguntzaileak gertu baserrietan, etxeetan eta ospitaletan lan egiteko orduka eta egun osoz. Erreferentzia onak ditugu eta esperientzia egoitzatan eta etxe partikularretan. 943-79 04 69, 662-02 33 29.

Debagoiena. Neska euskalduna eta esperientziaduna haurrak zaindu eta bazkariak egiteko prest jardun osoan. Haur hezkuntza eta gizarte eta kultur animazioa ikasia. Norbere autoa eta mugitzeko prest. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 680-34 29 60.

Debagoiena. Mutila, esperientzia eta informeekin, nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Baita ospitalean gauak egiteko ere. Autoduna. Disponibilitate guztia. Euskara ulertzen dut. Alfredo. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 693 -72 41 66.

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: etxeko ardurak zein umeak zaintzen. Orduka edo egun osoz. Baita gauak ere. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 648-46 90 51.

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: etxeko ardurak zein umeak zaintzen. Orduka edo egun osoz. Baita gauak ere. 675-38 66 37.

Debagoiena. Neska espainiarra gertu nagusiak zaindu zein etxeko garbitasunak egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientziaduna. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 722-32 43 67.

Debagoiena. Neska euskalduna, esperientzia eta informeekin, nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Baita ospitalean gauak egiteko ere. Autoduna. Disponibilitate guztia. Ainhoa. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 671-35 22 60.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko eta baita baserriko lanak egiteko ere. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda ere. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 699-09 46 26.

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo gerbitasunean lan egingo nuke. Orduka edo egun osoz. Baita asteburuetan ere. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 632-18 70 27.

Debagoiena. Gizonezkoa edozein lan motatan eta edozein ordutegitan lan egiteko prest. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 610-12 49 64.

Debagoiena. Emakumea lan bila. Garbitasunak egiten, zaintzaile, kamioi gidari, banaketa lanetan, nagusiak zaintzen eta abar. Autoa eta gidabaimena dauzkat. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 696 -32 13 69.

Debagoiena. 23 urteko mutila gertu eraikuntzan, garbiketan edota tabernan lan egiteko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 602-48 36 75.

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: garbiketan, tabernan zerbitzari zein sukalde laguntzaile, igeltsari, gidari... Mohamed. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 636-60 48 51.

Debagoiena. Nagusi edo umeak zaintzen zein garbitasunak egiten lan egingo nuke. Geriatria ikasketak ditut. 691 -03 25 02.

Etxebila higiezinak
943-44 61 66
ALOKAGAI
ZENTROA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 240.000 €
MARTUTENE: 60 m2. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 126.000 €
AMARA: Terrazarekin, azkena. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. 15 m2-ko terraza. 85 m2. Egoera oso onean. 199.000 €
AMARA: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Ikusmira ederra. 190.000 €
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Bistak. 189.000 €
AMARA: Hasieran. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 170.000 €
ANTIGUO: Unzaene. 70 m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Balkoia. 205.000 €
ANTIGUO: Errotaburu. Igogailua. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Garaje itxia. 230.000 €
LOIOLA: Aralarko Mendiak. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Balkoiak. 156.000 €
GROS: Azkena. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Oso polita. 199.000 €
EGIA: Mandasko Dukea. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. 231.000 €
EGIA: Igogailua. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. Berogailua. 185.000 €
ERRENTERIA: Gaztaño. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 155.000 €
PASAI DONIBANE: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Berritua. 170.000 €
ASTIGARRAGA: 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora. 93.000 €
ALOKAGAI
LOIOLA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 690 €
USURBIL: 2 logela, egongelak, sukaldea, bainugela. Balkoia. 495 €
USURBIL: 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Kalefakzioa. Berritua. 700 €
AMARA: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Fiantzak. 700 €
AMARA OSINAGA: 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Dena kalera. 1.200 €
PASAI DONIBANE: Erreka. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Itsasora begira. 550 €
NAFARROA: Lekaroz. Etxe ederra terrenoarekin. Garajea. Oso polita. 600 €
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

Debagoiena. Nikaraguako mutila gertu etxean bertan bizi izaten, egun osoz, orduka edota baserrietan lan egiteko. Esperientziaduna. Legezko paperak ditut. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 733-28 81 24.

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, zaintza lanak egiten edota garbitasunean jardungo nuke, egunez zein gauez. Autoa daukat. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 636 -11 23 40.

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, zaintza lanak egiten edota garbitasunean jardungo nuke, egunez zein gauez. Autoa daukat. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 636 -11 23 40.

Debagoiena. Nagusiak zaintzen zein garbitasunak egiten lan egingo nuke, astelehenetik egubakoitzera bitartean. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 603-22 53 66.

Durangaldea. Ingeles eskola partikularrak ematen dira Durangon. Ordua 10 euro. Esperientzia handia. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 688-64 36 28.

Durangaldea. 39 urteko gizon nigeriarra naiz. Edozertan egingo nuke lan: berotegian, basoan, adi?ekoak zaintzen.... Gida baimena daukat. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 632-24 97 85.

Durangaldea. Lokalak zein garajeak garbitzeko lan bila. Baita bilketak egiteko ere. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara:603-49 00 02.

Durangaldea. Emakumea lan bila dabil garbiketa lanak egiteko: tabernak, bulegoak, dendak, atariak. Zaintza lanak egiteko ere prest, bai nagusiak, bai umeak. Lanaldi erdira edo orduka. Paperekin. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 670-67 46 41.

Durangaldea. Emakumea lan bila, garbiketan zein pertsonen zaintzan aritzeko; ume zein nagusi. 24 orduz edo egunez. Asteburuetan ere bai. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 697-12 64 38.

Durangaldea. Etxeko lanak egiteko edo pertsonak zaintzeko, lan bila nabil. 24 orduz. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 632-43 56 59.

Durangaldea. Emakume esperientziaduna garbiketan (tabernak, etxeak...) zein nagusien zaintzan aritzeko lan bila. 9:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 620-35 43 66.

Durangaldea. Lan bila nabil, goizez 9:00etatik 14:00etara, edo orduka. Garbiketa lanetan edo nagusiak zein umeak zaintzen egin dezaket lan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 665-54 96 28.

Durangaldea. Neska arduratsua eta esperientziaduna, 24 orduz zein egunez, pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 631 -13 22 91.

Durangaldea. Neska arduratsua eta esperientziaduna, 24 orduz edo egunez, pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila dabil. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 632 -59 32 80.

Durangaldea. Garbiketan lan egiteko zein pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Aste bitartean 10:00 - 15:00 edota 21:00 - 08:00. Baita asteburuetan ere. Erreferentzia onekin. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 632-99 23 83.

Durangaldea. Esperientziadun eta tituludun neska euskalduna umeak zaintzeko prest dago. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 662-36 41 67 edo 94-681 39 40.

Durangaldea. Neska euskalduna (Haur Hezkuntzan diplomatua eta Hezkuntza Berezian graduatua) goizez zein arrsatsaldez umeak zaintzeko prest. Lehen Hezkuntzako ikasleei etxeko lanak egiten laguntzeko ere prest. Urteetako esperientzia. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 645-71 80 30.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil, zaintza zein garbiketa lanetan aritzeko. Paperak eguneratuta. Astelehenetik igandera. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 651-34 12 38.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila nabil. 24 orduz edo egunez bakarrik; baita asteburuetan ere. Erreferentziekin. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 632-56 07 46.

Durangaldea. 43 urteko emakume durangarra, umeak zaintzeko prest astelehenetik ostiralera, goizetan. Ordutegi librea: 9:30-15:30. Esperientzia handia. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 688-64 36 28.

Durangaldea. Pertsona arduratsua gauez pertsona nagusiak zaintzeko prest. Arratsaldeko 19:00etatik goizeko 7:00ak arte. Erreferentziekin. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 664-73 38 75.

Durangaldea. Emakume arduratsua lan bila umeak edo nagusiak zaintzeko, orduka, egunez edo 24 orduka. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 631-13 22 91.

Durangaldea. Emakume arduratsua lan bila umeak edo nagusiak zaintzeko, orduka, egunez edo 24 orduz. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 632-59 32 80.

Durangaldea. Nagusiak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egiteko prest. Astebutu, jaiegun eta gauetan ere bai. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 690-68 73 95.

Durangaldea. Irailetik aurrera, goizetan, haurrak esnatu, gosaria eman eta eskolara eramango nituzke durangon edo iurretan. Bien bitartean, etxea txukuntzeko prest nengoke. Esperientzia dut. Haur hezkuntzan eta hezkuntza berezian titulatua naiz. Interesa duen norbait ezagutuko bazenu, jarri harremanetan. 688-64 06 04. Mila esker. Lohitzune

Durango. Neska gaztea goizetan, Durangon umeak eskolara eramateko prest. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 652-72 02 29.

Elorrio. Emakumea gertu nagusiak zaindu edo etxeko lanetarako. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 636-25 12 15

Gipuzkoa. Mutila lanerako gertu: nagusiak zaindu edo denetariko garbitasun lanak. Orduka ere bai. 671-84 71 71.

Gipuzkoa. Mutila gertu zerbitzari edo sukaldari lanetan jarduteko. Ostalaritzako bestelako lanetan ere bai. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 610-99 28 55.

Harakina. Zazpi urteko eskarmentua dut eta harategian lan egingo nuke. Gidabaimena eta lege agiriak dauzkat. Interesatuak deitu ezazue telefono hauetara: 631 31 17 61 edo 610 91 33 40

Lan bila nabil. 19 urteko mutila eskaintzen da tabernan lan egiteko. Interesatuak deitu ezazue telefono hauetara: 647 18 73 74, 943 75 20 98

Lan bila. Nagusi eta umeak zaintzen eskarmentua dut. Garbiketan ere lan egin dezaket. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 618 04 15 45,

Lan bila. Neska euskalduna goizetan umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 659 92 89 23, 943 79 39 19

Mutil arduratsua umeak zaintzeko zein etxeko lanetarako. Kaixo, Donostiako gazte bat naiz, magisteritzako ikasketak bukatzen dabilena. Haurrekin oso ondo moldatzen naiz eta etxeko lanetan ere nahiko fin nabil. Beraz, laguntza apur bat behar baduzu, ez egin duda eta baldintzak negoziatu genitzazke. Ibai. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 646 09 83 90

Oñati. Erizain laguntzaile tituluduna, prest nagusiak zaintzeko eta baita etxeko lanak egiteko ere. Goizez. Maite. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara:677-05 39 06.

Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Bergaran, Arrasaten, Eskoriatzan edo Aretxabaletan zapatu eta domeka goizetan lan egiteko gertu. Pertsona nagusiak zaindu eta bestelako lanak. Interesatuak deitu ezazue telefono hauetara: 696 84 19 51 edo 943 53 29 18

Sukaldaria. Esperientzia duena, lan egiteko prest. Lorea. 677 64 84 82 edo 943 53 34 24

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Aretxabaleta. 1. DBHko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. Trukean, etxeko garbitasunak egin edo umeak zainduko nizkioke. 659 -62 02 49.

Arrasate. Ingeleseko eskolak hartuko nituzke, unibertsitateko ikaslea naiz. Arrasaten, eskoriatzan edo aretxabaletan. 636-05 36 18.

Durangaldea. Ingeles eskola partikularrak jaso nahi ditut goizetan. Tel.: 605-73 41 80.

Durango. Batxilergoko 2. mailako ikaslea, goizetan ingeles eskola partikularrak jasotzeko irakasle bila. Tel.: 669-69 24 59.

502. EMAN

"Ikasteko teknikak" ikastaroa. Ikastaro trinkoa. 90 minutuko 10 saio. Ikas ezazu hobeto ikasten eta praktika itzazu metodo egokiak. Talde dinamika estimulagarri eta dibertigarriak. Gutxienez sei laguneko taldeak. Adina: 10 urtetik 17ra. Bergaran, Arrasaten eta Onatin. Interesatuok deitu honetara: 634 59 55 94

Bergara. Eskola partikularrak emango nituzke Lehen Hezkuntzan, lehenengo mailatik 6. mailara arte. 943 76 14 14 edo 618 39 03 74

Biolineko klase pertsonalizatuak. Biolineko klase pertsonalizatuak: ume, gaztetxo nahiz nagusientzat, hasiberri nahiz maila aurreratukoentzat, estilo ezberdinak. Goi mailako irakasle eta graduondoko tituluduna, biolinjole eta irakasle modura esperientzia zabala. Musika egiten ikasi, gozatu eta ondo pasa nahi baduzu, deitu eta informatu! 666 -73 90 44.

Durangaldea. Neska euskalduna batxilergoarekin eta administrazio tituluarekin, etxeetan eskolak emateko prest. Tel.: 662 -36 41 67/ 94-681 39 40.

Durangaldea. Ekonomian lizentziatutako neska, eta DBH eta batxillergoan irakasle izateko masterduna, eskola partikularrak emateko prest, LH, DBH zein batxillergoan. EGA eta First tituluekin. Tel.: 635-74 67 98.

Durango. Eskola partikularrak ematen ditut astelehenetik larunbatera. Hizkuntzak: euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa eta latina. DBH-n esperientzia. Filologian lizentziatua eta EGA titulua daukat. Tel.: 605 -74 77 99.

Durango. Lehen Hezkuntza bukatzear dagoen neska euskalduna etxeetan eskolak emateko prest dago. Esperientziarekin. Tel.: 628-83 27 10.

Oñati. Neska euskalduna Debagoienean eskola partikularrak emateko prest. Desplazatzeko arazorik gabe. LH, DBH zein Batxilergoa. Ingenieritzan lizentzuatura eta CAP tituluarekin. Klase indibidualizatuak ematen esperientziaduna. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 616 52 50 22

Villabona. Klase partikularrak ematen dira matematika,fisika,-kimika, frantsesa eta inglesa. Taldeka edo bakarka. Ingenieritzan tituluduna. 664-16 02 68 eta continental56@yahoo.es.

6. MOTORRA

601. SALDU

Honda Hornet cb 600 motorra salgai. Honda Hornet cb 600 motor horia salgai. 2008. urtekoa. 10.200 km. Bi jaka (Alpinestar L tamaina eta Levior M tamaina), hiru kasko (Hebo L tamaina, Lem S eta M tamainak) eta eskularru pare bat oparitzen ditut. Prezioa: 5.600 euro. Informazio gehiagorako, deitu konpromiso barik. Tel.: 629-45 52 41.

Quad ibilgailua. Quad ibilgailua salgai, Adly ATV-300 4t markakoa. Egoera oso onean, 7.000 km, kolore gorria, plaza bi. Ikusi nahi izanez gero, konpromiso barik deitu. Tel.: 609 -56 75 37 (Jose).

Renault Trafic salgai. Lotarako altzariekin, 5 plaza, 2. Bateria eta berogailu autonomoa, 4 txirrindak eramatekoa, 100 zp, 150.000 km. Tel. 645 -71 91 81/ 658-71 45 72.

Toyota rav4 autoa salgai. 2010. Urteko Toyota Rav4 (4x4) autoa salgai. 44.000 kilometro. Prezioa: 25.000 euro. Tel.: 615 -70 12 25.

602. EROSI

Mobilete bila. Mobilete bat hartu, trukatu (bateria elektriko edo gitarra akustiko bategatik) edo erosiko nuke (prezio onean). Papelak eduki ditzala. Mila esker. 615 734 553

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Txintxillak salgai. Txintxillak salgai. Emea zuria da eta arra bioleta kolorekoa. Emea haurdun dago. Umeekin egotera ohituta daude. 50 euro gehiagogatik, urtebeterako janaria emango nuke, dendan baino askoz merkeago. 634-77 84 58.

703. EMAN

Ardi txakurkumeak ematen dira Urbiako fondan. Ardi txakurkumeak ematen dira Urbiako fondan. Telefonoa: 943 -78 13 16.

Bull terrier eta Cocker arteko nahasketa diren txakurkumeak ematen dira opari. Bull terrier eta Cocker arteko nahasketa diren txakurkumeak ematen dira opari. Hiru hilabete dute. 686-07 61 60.

Perikitoak. Perikito bikote bat ematen da opari. Arra berdea eta emea horia. Kaiola ere oparitzen da. Telefonoa: 943-71 82 74/ 685-75 31 29.

Txakurkumeak oparitzen dira. Leongo mastin arrazako kumeak oparitzen dira. Tel.: 646 -76 68 74.

704. BESTELAKOAK

Arratoi txakurra galdu Meatzerrekan. Arratoi txakur beltza eta gaztea galdu da Arrasateko Meatzerreka auzo inguruetan. Mesedez, inork ikusiko balu, eskertuko nuke telefono hauetariko batera deitzea. Eskerrik asko, aldez aurretik. Argazkia: http://bit. Ly/18kd6pj 629-42 25 84 / 669-13 31 71.

8. DENETARIK

801. SALDU

.**Bizikleta eramateko barra salgai.** Kotxearen bolan lotuta doan bizikleta eramateko barra salgai. Thule markakoa, ref.: sweden945. Dendan 660 euro nik 450eurotan saltzen dut. Behin erabilita. 686-42 69 37 / 94-620 11 42.

Ohe artikulatua. Ohe artikulatua, elektrikoa, salgai. 1,05m zabalerakoa. 750 euro. 653 73 80 65 edo 943 76 07 55

Roomba 531 salgai. Oso gutxi erabilitako roomba 531 saltzen dot 150,00eurotan. Interesatuak dei ezazue hurrengo telefonora. Tel.: 637-41 64 38.

Thule markako bizikletak eramatekoa salgai. Thule clik on 9111 markako porta bizikleta salgai. Hiru bizikleta garraiatzeko lekua, edozein ibilgailutara egokitzen da. Porta matrikula opari. Tel.: 626-46 44 22 (Mikel)

Triziklo berria salgai. Triziklo berria salgai, 98 euro kostatu zitzaidan eta 65 euroan dago salgai. Tel.: 634-77 84 58. Berri -berri dago.

Umeentzako bizikleta salgai. Umeentzako bizikleta salgai. 10 urtera arte erabiltzeko. Ondo zainduta dago, egoera onean. Merkea. Tel.: 648-63 58 06.

802. EROSI

Bizikletak eramatekoa. Volkswagen Caddy batentzat balio dezakeen bizikletak eramatekoa behar dut, atzeko portoian jartzen den horietakoa. Ez dut bolarik, ezta zapaian jartzeko nahirik ere. Eskerrik asko. 660 43 64 29

Mendiko bizikleta erosiko nuke. Mountain bike moduko bizikleta erosiko nuke, parrilla eta gurpi babesleduna. Deitu zenbaki honetara: 617-21 89 74.

804. HARTU

Erradiadoreak. Etxetik kentzeko dituzun erradiadoreak hartuko genituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 626 13 07 56

806. GALDU

Betaurrekoak Urbian. Joan zen larunbatean, irailaren 21ean, galdu nituen Urbian eguzkitarako betaurreko graduautak. Aurkitu dituenak deitu dezala, mesedez, zenbaki honetara: 669 15 64 02 edo 943 76 31 01

Eskumuturreko bat galdu dut. Eskumuturreko bat galdu dut. Bertan honako hau dago idatzita: Jone 1971-06-24. Norbaitek aurkituko balu, bueltatzea eskertuko nioke, mesedez. Garrantzitsua da. Eskertu egingo da. 634-43 36 97 (Jone).

Peruko boligrafoa (Cusco) galdu Aretxabaletan. Opor hauetan bereziki perutik ekarritako boligrafoa galdu dut aretxabaletako lausitta eta errekabarren kaleko inguruetan. «Cusco» jartzen du eta koloretsua du. Norbaitek jaso badu mesedez deitu, eskerrik asko. 616-62 18 70.

807. AURKITU

Betaurreko batzuk aurkitu dira. Mo markako betaurreko batzuk (morauak) agertu dira lurretako jaietan plazan, kaja marroi (multiopticas) baten barruan. lurretako munizipaletan daude.

Larunbatean eskumuturreko bat aurkitu nuen. Larunbatean inizialak zituen eskumuturreko bat aurkitu nuen Garaiko pilotalekuan. Jabeak deitu dezala. Tel.: 633 -33 55 83.

808. BESTELAKOAK

Arrasate-Elgoibar. Astelehenetik ostiralera Arrasatetik Elgoibarrera joaten naiz lanera autoan. Arratsaldez irten eta gauez itzultzen naiz Arrasatera. Elgoibarren lan egin edo IMHko ikasle bazara, adibidez, bidaiaren gastuak konpartitzeko prest nago zurekin. 600 77 05 56

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

75 urteko emakumea adiskidetasu bila. 75 urteko emakume alargunak, antzeko adineko baiona, biarritz, donostia edo inguruko gizon nahiz emakumeekin adiskidetasun bat bilatzen du, pasieran ibiltzeko, museoetara joateko, hizketan aritzeko. Zerbait gehiago jakin nahi izanez gero deitu telefono zenbaki honetara: (0034) 697 -23 28 83 (Marisol).

Jende berria ezagutu. 35 urteko neska gipuzkoarra. Jende jatorra ezagutu nahi dut adiskide berriak egin eta aktibitateak partekatzeko: zinera joan, txangoak egin,... ortzimuga@hotmail.com

Mutil atsegin bat neska atsegin baten bila. Mutil atsegin bat naiz eta neska atsegin baten bila nabil,46 urte ditut,altua eta morenoa naiz,ez ditut kargarik. Alaia naiz eta bidaiatzea gustatzen zait. Deitu telefono honetara 609-48 11 24.

Saskibaloian jolastu nahi duzu? Astelehenetan, 19:00etan, Almenen saskibaloian jokatzeko taldekide bila gabiltzan 18 urtetik gorako neska talde bat gara. Anima zaitez! saskineski@gmail.com 653 74 86 26 edo 670 35 79 13



Telebistako kontrolarekin eta Twitterren logoarekin egindako irudikapena . | TWITTERMANIA.NL

Twitter eta telebista lotzeko sistema gertu dago

Ikusleak ze saiori buruzko iruzkinak egiten dabiltzan igar dezake sistemak, eta publizitatea txertatu

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Telebista saioekin lankidetzarako egitasmoak garatzen dabil Twitter, bi jarduerek elkarren artean duten harreman estuari zukua atera guran. Nielsen enpresarekin batera dagoeneko hasi dira AEBetan ikusle gehien dituzten telebista saioen jarraipena egiten eta helburua da ordenagailu eta gailu eramangarriak telebista paintailaren *bigarren pantaila* areagotu bilakatzea. Gaur egun, izan ere, jada ohiko bihurtu da sare sozialetan erabiltzaileek momentu horretan telebistan ikusten dabiltzanari buruzko uste eta iritziak partekatzea. Aurtengo udaberrian aurkeztu dituzte lehen proiektuak. Ezagunena da Twitter Amplify eta iragarle zehatz batzuei denbora konkretu baten txioen artean iragarki laburrak txertatzen uzten die. Hori bai, kateko saio konkretu hori ikusten diharduten erabiltzaileei bakarrik. Sistema, beraz, gauza da erabiltzailea une horretan ikusten dabilen telebista katea eta saio igartzeko. Bada, *TV Ad Targeting* izena ipini diote publizitate modu horri. AEBetan soilik daude sistema horiek indarrean eta fase nahiko mugatu eta esperimentalean, baina dagoeneko diru kopuru handia hasi da mugitzen sistema berria eta helburua da publizitate kanpaina erraldoi horien zati bat halako egitasmoetan geratzea. AEBetan telebistak hartzen du publizitate inbertsioaren zatirik handiena, baina datuek erakusten duten Interneteko inbertsioaren gorakada.

Mahai-gaineko ordenagailuen salmentak, berriz ere behera

Erosteko ahalmenaren murrizketa da arrazoia

J.B. | ARRASATE

Mahai-gaineko ordenagailuen merkatuak etenik gabe jarraitzen du behera egiten, bai PC delakoena zein Mac-ena. Kontsumitzaileen erosteko ahalmenaren murrizteak, tableten hazkundeak eta smartphone merkeagoen etorrerak eragin zuzena izan dute, datuen arabera. Horrek guztiak mahai-gaineko ordenagailuak bigarren planora bultzatu ditu erosleen lehentasunetan.

PCen merkatua da murrizketa handienak izan dituena. Salmentek, IDC ikerkuntza etxearen datuen arabera, %8,6-ko beherakada izan dute urteko lehen hiru hilabeteetan. Orain dela urte gutxi arte, gehiago edo gutxiago, baina urte bakoitzean aurreko urtean baino salmenta handiagoak izaten ziren PCetan. Hala ere, orain dela urtebetetik hona, ez da halakorik gertatu, lehen aldiz historian. Bada, lehenengo begiratuan, tablet eta smartphoneen zabalkunde handiak eragin nabaria izan duela ematen du eta horren aurrean erabiltzaileek ekipamendu zaharra berritzeko erabakia geroratzea ere ondorio da.

Apple ere ez dago joera horretatik kanpo. Lehen baino Mac gehiago saltzen badira ere, hazkundea geldiagotzen dabil poliki-poliki. Oraindik ere, noski, PCen eta Mac-en salmenta proportzioan askoz ere handiagoa da eta erabiltzaileak ere ez dabiltza mahai-gaineko ordenagailuak tablet eta mugikorrekin ordezkatzen. Krisia da mahai-gainekoen salmenten urritzearen arrazoi garbi eta nagusia, IDC etxearen txostenak ondorioztatzen duenez.

Jokabide aldaketa

AEBak, Europa eta Hego Amerika dira merkaturik sendoenak eta horietan guztietan kontsumitzaileek erosteko ahalmena galdu dute. Etxerako ekipamendu informatiko berria erosteko erabakia atzeratzen dabiltza kontsumitzaileak, geroago eta gehiago. Batetik, ekipamenduaren bizitza ahalik eta gehien luzatzen saiatzen dira jabeak. Horrela, gero eta sarriago jotzen da piezak ordezkatu edo hardwarea zatika hobetzen jotzera eta lehen ordenagailuan egiten zituzten lan asko erabiltzaileek orain mugikor eta tabletetan egiten dituzte. Badago bigarren joera bat ikerketak azaleratu duena; antza, tablet aukera geroago eta merkeagoa izanda, denda batera ordenagailu berri bat erostera joandako asko etxera mahai-gaineko berriarekin barik tablet batekin itzultzen dira eta ekipamendu zaharra guztiz matxuratu arte dagoenetan lagatzea erabakita, nonbait. Joera ez da gailu batek bestea ordezkatzea, erabilpen helburuak dira gailuen artean definitu direnak. Eramangarriak edukien kontsumo, kontsulta eta aisialdira bideratzen diren moduan, lanerako tresna gailu ezberdinek osatutako ekosistema teknologikoaren ardatz bezala, mahai-gaineko ekipamenduek segitzen dute.

Erabiltzaileek ezingo dute profila Facebooken bilaketatik ezkutatu

Aukera hori desgaitu egingo dutela iragarri dute

J.B. | ARRASATE

Orain arte Facebookeko erabiltzaileek euren profila bilaketetatik ezkutatzeko aukera izan dute. Hala, nahiz eta profil aktibo baten jabe izan, aukera zegoen beste erabiltzaile batek haien izena bilatuz gero emaitzetan ez agertzeko.

Hori desgaitzea erabaki du Facebookek erabiltzaile guzti-guztientzat. Lehen abisu moduko bat egin zuten abenduan, ordurako aukera hori erabiltzen ez zuten erabiltzaileei desgaituko zietela esanda. Orain, ostera, profil mota guztiei eragingo die erabaki horrek.

Arrazoien artean, azaltzen dute bilatzaile moduan sendotu egin gura dutela sare sozialeta eta bilaketaren beraren erabilgarritasuna oztopatzen zuela aukera horrek, ezagunen artean zenbait lotura egitea ere galarazten zuelako. Are beharrezkoagoa gertatu zaien hori, Graph Search aplikazioa luze eta zabal erabiliko zutela erabaki zutenean. Bilaketa berri horren emaitzetan mota guztietako informazioa sartu gura dute, Facebookeko erabiltzaileek eurek osatzen dutena.

Emaitza osatuak

Profil guztiak publiko egiterakoan erlazionatutako informazioa emango da, eta horregatik zaie beharrezkoa erabiltzaile guztien agerikotasuna. Izan ere, *Bilbon bizi diren surflariak* bilaketa eginez gero, termino horiekin lotutako erabiltzaile, leku eta negozioen loturak emango lirateke, eta, emaitzak ahalik eta osatuenak izateko, erabiltzaile guztien agerikotasuna ezinbestekoa zaie.

LA VANGUARDIA

Pantaila ukigarri erraldoiak erredakzioan

Fox telebista kate estatubatuarreko albistegi zerbitzuek eraldaketa teknologiko erabatekoa egin dute. Erredakzioa kameren aurrean ipini eta kazetariei ordenagailuak barik pantaila ukigarri erraldoiak ipini dizkiete lan egiteko. Pantaila erraldoi horiekin, kazetariei pantaila batekin baino gehiagorekin lan egiteko modua errazten diete, istorio bera hainbat komunikazio kanaletan aldi berean kontatu ahal izateko.

TELE-BEGI

OIHAN VEGA

Gezurrik ez, mesedez

Oraingo honetan, irakurle maitea, zurekin sartuko naiz, errespetu osoz, mesedez, begirunez, gezurrik ez.

Izan ere, mundu guztiak dio: "Kalitatezko telebista bat nahi dugu", "telebista publikoak kulturala behar du izan", "ETBn albiste lokalak entzun nahi ditugu". Gezurra galanta! Niri ez engainatu! Hor duzue egunero ETB-1en, *Airean* saioa, bere garaian egin genuen *Arratsaldero* saioaren tankerakoa, hori bai, 5 ordu izan beharrean 2 orduko saioa, non tokian tokiko gaiak jorratzen diren, arlo kulturalari buruz hitz egiten den eta eztabaida politikorako tokia dagoen, ikuspuntu objektibo batetik ahots eta iritzi guztiak entzuteko. Ondoren, 19,00etan, *Euskal Herria zuzenean* duzue, albistegietan sartzen ez diren gaiak jorratzeko aukera ematen duen saioa, herri txikietako kontuekin eta ekintzaileak diren pertsona eta artistei oihartzuna eskainiz. Horra eskatzen zenuten telebista kultural, lokal eta euskalduna. Zertarako? Norentzat? Zuretzat? Benetan? Gezurrik ez!

Audientzia datuak ikusita euskaldun GEHIENAK Telecinco ikusten ari dira: *Salvame*. Audientziek ez dute engainatzen, nor da orain demagogoa?

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 14

'Harmailatik'

Asteburuko Arrasate -Oñati lasterketa nola joan den ikusi ahal izango dugu, besteak beste. | **21:25**

12:00 Magazinea
12:45 Kantari
13:15 AsteON
13:45 Ikusten
14:18 Ikusten
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:15 Eguraldia
15:18 Zorion Agurrak
15:23 Ikusmira
15:54 Zorion Agurrak
16:01 Onein
16:31 Berriak
17:01 Eguraldia
17:04 Zorion Agurrak
17:09 AsteON
17:39 Altxorraren bila
18:09 Jaiak: Oñatiko jaiak
19:00 Zorion Agurrak
19:05 Berriak
19:30 Eguraldia
19:33 Kantari
20:03 Zorion Agurrak
20:10 Magazinea
20:55 Berriak
21:20 Eguraldia
21:25 Harmailatik
22:10 Berriak
22:35 Eguraldia
22:38 Magazinea
23:23 Gurean gaur

MARTITZENA, 15

'Magazinea'

Lope de Agirreri buruz esandakoak argitzeko Oñatin egingo den hamabostaldia berbagai. | **20:10**

12:00 Magazinea
12:45 Harmailatik
13:25 Kantari
13:50 Ikusmira
14:08 AsteON
14:38 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Harmailatik
15:58 Onein
16:28 AsteON
16:58 Berriak
17:23 Eguraldia
17:26 Ikusten
18:01 Harmailatik
18:46 Ikusmira
19:01 Zorion Agurrak
19:06 Berriak
19:31 Eguraldia
19:34 Kantari
20:04 Zorion Agurrak
20:10 Magazinea
20:55 Berriak
21:20 Eguraldia
21:23 Bertso Txapelketa Nagusia
22:08 Berriak
22:33 Eguraldia
22:36 Magazinea
23:21 Gurean gaur
00:10 Gurean gaur

EGUAZTENA, 16

'Asmatu baietz!'

Hartu parte zuzenean Goiena telebistaren lehiaketan 943 25 05 03 telefonora deituta. | **19:43**

12:00 Magazinea
12:45 Onein
13:05 Kantari
13:35 Ikusten
14:10 AsteON
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Klaketa
15:43 Harmailatik
16:28 Zorion Agurrak
16:33 Berriak
16:58 Eguraldia
17:01 Harmailatik
17:41 Onein
18:06 Ikusmira
18:37 Zorion Agurrak
18:42 Erreportajea
19:00 Berriak
19:20 Eguraldia
19:23 Bideo klipak
19:43 Asmatu baietz!
20:13 Magazinea
20:58 Berriak
21:23 Eguraldia
21:25 Ekogune
21:55 Berriak
22:40 Eguraldia
23:10 Magazinea

EGUENA, 17

'Planik bai?'

Astebururako planik bai? Mireia Bikuñak emango dizkizu izango diren kultura ekitaldien berri. | **17:47**

12:00 Magazinea
12:50 Onein
13:10 Kantari
13:40 Ekogune
14:10 Bideo klipak
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Ikusmira
15:34 Zorion Agurrak
15:39 Altxorraren bila
16:09 Ikusten
16:44 Berriak
17:09 Eguraldia
17:12 Onein
17:47 Planik bai?
18:07 Ikusmira
18:28 Ekogune
18:58 Berriak
19:18 Eguraldia
19:21 Planik bai?
19:41 Kantari
20:08 Magazinea
20:53 Berriak
21:18 Eguraldia
21:21 Planik bai?
21:41 Berriak
22:11 Eguraldia
22:14 Magazinea
22:59 Gurean gaur

EGUBAKOITZA, 18

'AsteOn'

Astean zehar Debagoienean albiste izan diren berri esanguratsuenak emango dizkizugu. | **21:24**

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Kantari
13:30 Bideo klipak
13:55 Ikusten
14:25 Planik bai?
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Jaiak: Oñatiko jaiak
16:03 Zorion Agurrak
16:09 Planik bai?
16:33 Berriak
16:58 Eguraldia
17:01 Ekogune
17:31 Bideo klipak
17:51 Ikusmira
18:06 Altxorraren bila
18:36 Planik bai?
18:56 Zorion Agurrak
19:01 Berriak
19:31 Eguraldia
19:36 Kantari
20:06 Planik bai?
20:31 Zorion Agurrak
20:36 Berriak
21:01 Eguraldia
21:04 Planik bai?
21:24 AsteON
21:54 Ekogune
22:24 Planik bai?
22:44 Berriak
23:09 Eguraldia
23:12 AsteON

ARRASATE IRRATIA

'Bide Ertzean' musika taldeak emango duen kontzerturako sarrerak

Kooltur ostegunak egitasmoaren barruan, eguenean Arrasateko Gaztetxean izango dira Tolosako Bide Ertzean taldeko kideak. Kontzerturako sarrerak lortu nahi badituzu deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Hartu parte zozketan eta zorte on!

Goiena gidari buruzko elkarrizketa gaur, astelehena, 11:00etan

Martxan da 2014ko gida, Goiena Komunikazio Taldeak lantzen duena, eta urte hasieran banatuko dute Goienako bezeroen artean. Horri buruz hitz egiteko Mireia Larrañaga Goienako zuzendari komertziala izango dugu *Igo autobusera!* irratsaioan gaur, astelehena, 11:00etan.

Errugbi taldeko entrenatzailea elkarrizketatuko dugu

Asteburu honetan emango zaio hasiera errugbiko ligari eta Arrasateko errugbi taldeko Igor Isasi entrenatzailea gonbidatuko dugu astean Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaiora. Denboraldi berriari buruz hitz egingo dugu berarekin eta jokalariak nola ikusten dituen ere azalduko digu Isasik.

TELE-ALBISTEAK

'Slow fashion'-aren gainean, 'Ekogune' saioaren itzuleran

Eguaztenetan izango da, 21:20an, eta Gazte Ekoliderrei buruz ere jardungo du oraingoan

Gazte Ekoliderrak. | 'EKOLIDERRAK.NET'

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Bueltan da *Ekogune* saioa, Kutxa Ekogunearekin elkarlanean Goienak ekoizten duen iraunkortasun eta ekologia gaiei buruzko telebista saioa. Julen Iriondok gidatuta, eguazten honetan izango da sorta berriko lehenengo atala.

Eguazteneko programan hainbat gai izango dira, ohi bezala. Erreportajea Gazte Ekoliderrak programari buruzkoa izango da. Bosgarren edizioa du aurtengoa gazteak iraunkortasun gaietan eta lidergoan trebatzea helburu duen Kutxa Ekogunearen programak. Trebakuntza jasotzeaz gain, iraunkortasun alorreko proiektu bat gauzatzeko aukera izaten dute parte-hartzaileek. Urriaren 28ra arte eman daiteke izena; *www.ekoliderrak.net* helbidean dago informazio dena.

Tytti Thusbergekin

Elkarrizketaren tartean, berriz, Tytti Thusbergekin jardungo du Julen Iriondok. Aspaldiko urteetan Euskal Herrian bizi den diseinatzaile finlandiarrak *slow fashion* deritzonaren irizpideen arabera egiten du lan; erabili beharreko materialak, material hauen izaera, ekoizteko moduak eta ekoizleen lan baldintzak zaintzen ditu, besteak beste, jarduteko era horrek. Thusbergek oihalak eta bestelako gaiak berrerabiliz egiten ditu arropak. Azkenik, Donostiako Ulia mendiko interpretazio zentroa ezagutuko dugu saioan.

Euskarazko tokiko telebistetan egongo da *Ekogune* ikusteko aukera, eta baita *www.goiena.net*, *www.tokiko.tv* eta *www.ekogunea.net* helbideetan.

Donostiako Uliako interpretazio zentroa ere bai, eguaztenekoan

ZORION AGURRAK

OÑATI
Unax Inza Galdos
Urriaren 20an, 3 urte. Zorionak, Unax! Kandelei fuerte putz einaz zelebratuku zeure eguna! Mila kilo zorion, etxeko danon partetik!

OÑATI
Malen Osinaga Osinaga
Urriaren 20an, 8 urte. Zorionak, potxola. Ondo pasatu zeure urtebetetze eguna. Muxu handi bat etxekuen partetik.

OÑATI
Sara Aberasturi Galdos
Urriaren 18an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi-handi bat etxeko guztien partetik. Mua!

ARRASATE
Jone Barandiaran Sánchez
Urriaren 18an, 10 urte. Zorionak, Jone. Etxeko guztion partetik, ondo pasatu zure egunean eta muxu potolo bat.

OÑATI
Unai Izura Astigarraga
Urriaren 18an, 9 urte. Zorionak, mendizale! Ondo pasatu egun berezi hau eta muxu handi bat, etxeko danen partetik.

OÑATI
Oier Zubizarreta Iñarra
Urriaren 17an, 6 urte. Zorionak, poxpolin! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi-handi bat, etxeko guztien partetik.

ARRASATE
Mikel Lopez
Urriaren 15ean, 65 urte. Zorionak eta urte askotarako, tio Mikel! Pastel ederra janez zelebratuku zeure eguna. Etxeko danon eta batez be bi txoritxuen partetik, mila kilo zorion.

ARETXABALETA
Unai Romero Tellaetxe
Urriaren 14an, urtebete. Zorionak, Unai! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat maite zaitugun guztion partetik. Mua!

ARETXABALETA
Paula Luri Vazquez
Urriaren 14an, 2 urte. Zorionak, Paula! Asko maite zaitugu, sorgin irribarretsu hori! Aitatxo, amatxu eta Swill.

ARRASATE
Nora Garcia Alvarez
Urriaren 14an, 2 urte. Zorionak familiaren partetik!

BERGARA
Uxue Garitano
Urriaren 13an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Egun polita pasatzea espero dugu! Muxu asko Marisaren etxekoen partetik, bereziki Kenar.

BERGARA
Nahikari Lopez Manterola
Urriaren 12an, 6 urte. Zorionak, printzesa. Muxu handi bat familia guztiaren eta, bereziki, aitaren, amaren eta anaiaren partetik.

BERGARA
Miren Moñux Garcia
Urriaren 12an, 8 urte. Zorionak zure urtebetetzean. Asko disfrutatu, txiki. Andoni, June eta Aitor.

ARETXABALETA
Liher Sanchez Borrego
Urriaren 12an, urtebete. Zorionak, Liher! Pitxintxo, asko maite zaitugu! Patxo potolo bat etxekoen eta, bereziki, Aneren partetik!

BERGARA
Oihana Tabares Bueno
Urriaren 12an, 3 urte. Zorionak, Oihana. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta milaka muxu, etxeko guztien partetik.

ARETXABALETA
Auritz Villar Urrutia
Urriaren 11n, 3 urte. Zorionak, Auritz! Ondo pasatu zure egunian. Txokomarrubizko muxu potolo-potoloak aitatxoren, amatxoren eta, bereziki, Ilargiren eta Xubanen partetik. Pa!



ARRASATE
Danel Garmendia Jausoro
Urriaren 10ean, 14 urte. Zorionak, Danel! Ondo pasatu zure egunean. Mila kilo zorion zure arrebaren eta lehengusuen partetik.

BERGARA
Hugo Cachafeiro Rodriguez
Urriaren 10ean, 10 urte. Zorionak, maitxia! Muxu handi bat, Lucia, Danel, Jon eta zure familia osoaren partetik. Asko maitxe zaitxugu.

ESKORIATZA
Oinatz Gonzalez Idigoras
Urriaren 10ean, 2 urte. Zorionak, Oinatz! Muxu handi bat Xabaten, aitatxoren eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Maialen Lezeta
Urriaren 10ean, 17 urte. Zorionak, prexioxa! Urtetxo bat gehixaukin zure irribarriak igual jarraitu dezala. Zure neska tornilleroak. Oh.: ligatzeko aukera paregabia, Goienan agertzia! Aprobetxatu!



ARRASATE
Anje Blazquez del Pozo
Urriaren 9an, urtebete. Zorionak, maittia! Jarraitu hain alaia izaten. Mila kilo zorion etxekoen eta, bereziki, Unaxen partetik!



BERGARA
Telmo Irizar Arzamendi
Urriaren 8an, 5 urte. Zorionak, maitxia! Bost urteko mutikotxo honentzat muxu handi bat, aitatxo, amatxo eta Mirenen partetik. Asko maitxe zaitxugu.

ESKORIATZA
Ibai Sanz Eraña
Urriaren 8an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Josebaren, Anaren, Juneren eta Manexen aldetik.

OÑATI
Alaia Perez
Urriaren 8an, 33 urte. Zorionak, amatxo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Muxu potolo-potoloak familia guztiaren baina, bereziki, Marioren eta Enzoren partetik.

ARRASATE
Ainho
Urriaren 8an, 22 urte. Zorinak, Ainho! Fan zinen "pal zur" baina desietan gaz harutza fateko gu be! Inbitazinua noizko? Egun ederra pasatu eta patxo handi bat gure partetik! Pila bat disfrutatu!

ARRASATE
Lorea Ibarra Gallardo
Urriaren 8an, 11 urte. Zorionak, Lorea! Aitatxo, amatxo, Unai eta lagun guztien partetik!

ANTZUOLA
Eider eta Aitana Mendia
Eiderrek urriaren 6an, 23 urte eta Aitanak urriaren 8an, urtebete. Egun oso ederra pasatu. Muxu handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Ibanen partetik.

ARETXABALETA
Maddi eta Gaizka Kortazar
Urriaren 5ean, 2 eta 37 urte. Zorionak, biko-urre! Patxo handi bat aitatxori eta gure matrakatxoari, Oierren eta amatxoren partetik!

ARRASATE
Noa
Urriaren 4an, 7 urte. Zorionak. Muxu handi bat. Amatxoren, aitatxoren eta Mararen partetik.



ESKORIATZA
Irati Apraiz
Irailaren 17an 4 urte. Zorionak. Muxu handi bat, txapelduna. Amatxoren, aitatxoren eta ibairen partetik.

ARRASATE
Gorka Zubizarreta
Urriaren 17an urteak betetzen dituzu baiña duzun adinaz ez lotsa zu ardoaz lez hoberantz zoaz, brabo! Zorionak, Apotza! Ondo pasatu eta muxu handi bat! Lagunen, etxekoen eta Edurneren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.
Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK

Lur Ibarguren Txintxurreta

Bergara. 2,950 kilo. Urriaren 8a. Gurasoak: Arantzazu eta Iker. Argazkian, Lur jaioberria amarekin.

Nikole Dulugea Ojanguren

Arrasate. 3,920 kilo. Urriaren 4a. Gurasoak: Aitziber eta Ioan. Argazkian, Nikole gurasoekin.

Malen Llodio Azkarate

Arrasate. 3,660 kilo. Urriaren 6a. Gurasoak: Nagore eta Illart. Argazkian, Malen jaioberria ahizpa Araitzekin.

Ariane Uribe Coves

Aretxabaleta. 3,280 kilo. Urriaren 4a. Gurasoak: Aitor eta Quiteria. Argazkian, Ariane aitarekin eta amarekin.

Euri Iturbe Alonso

Muxika. 3,470 kilo. Urriaren 7a. Gurasoak: Iratxe eta Aritz. Argazkian, Euri gurasoekin batera.

Danel Amenabarro Arregi

Oñati. 3,510 kilo. Urriaren 8a. Gurasoak: Maider eta Ibai. Argazkian, Danel aitatxoren besoetan.

Izaro Esnaola Tello

Bergara. 3,100 kilo. Urriaren 10a. Gurasoak: Inma eta Osvaldo. Argazkian, Izaro izeba Olatzen besoetan.

Haizea Pagalday Garro

Aretxabaleta 3,500 kilo. Urriaren 4a. Gurasoak: Eneritz eta Aitor. Argazkian, Haizea jaioberria aitaren besoetan.

Asier Barbero Zumarraga

Bergara. 4,050 kilo. Urriaren 9a. Gurasoak: Maite eta Iker. Argazkian, Asier amaren besoetan.

Martin Gabilondo Larrañaga

Bergara. 3,440 kilo. Urriaren 9a. Gurasoak: Maite eta Ibon. Argazkian, Martin gurasoekin batera.

Garazi Biain Urzelai

Oñati. 3,400 kilo. Urriaren 5a. Gurasoak: Edurne eta Mikel. Argazkian, Garazi jaioberria amaren besoetan.

Eroski hipermerkatuaren partetik,

zorionak

jaioberriei eta gurasoei

Eroskik, zuen lehen beharretarako,
10 euroko bonua* egingo dizue opari
Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI zurekin

* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

			* Elgetako auzoa / Guztiz, zeharo	▼	Haran / Atsegina	▼	Mendiko atea / Abaoa ▼
			▶		▼		▼
			Emea gura-soekiko / Izkina ▶				
Indarrik gabeak / Lapurdiko herria	▼	Txori bidaiariak / Zuloaren erdian	▶ ▼				
▶		▼				Jainko egiptoarra / Mezaren hasieran	▶
Nafarroako udalerria / Galderetan	▶					▼		Korrikaren antolatzailea
▶		Herri hizke-ran, zer / Hektarea	▶		Nafarroako urtegia / Erbioa	▶		▼
Hegazti mota / Bizkaiko ibaia	▶	▼			▼	Suari dario / 1000	▶	
▶			Hiltzeko tresnak	▶		▼		

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK



BILA-BILA 7



AI, ENE!

Zein hitzetan geratu nintzen azken aldian?

Orri osoak berriz irakurtzea gustuko ez duenak hortxe du konponbidea. Hori bai, erdi lo bazaude, hobe askorik ez fidatzea...
www.nopuedocreer.com

AHOBERO

"Londresen zorua garbitzen dabiltzanek eredu sozialistarekin ikasi zuten"

MIGUEL ANGEL RODRIGUEZ | TERTULIAKIDEA

Aznarren garaian Gobernuko bozeramailea izan zenak eta egun kate askotako mahai-inguruetan partaide denak bereak bota ditu berriz ere. Joan direnek eta geratu direnek, denek eredu berarekin ikasiko zuten, ezta? Gakoa benetan hor al dago?
La Sexta

EGURALDIA

Max. 20º
Min. 8º

Eguzkia espero da, goi-hodei batzuekin. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da.
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA
goiena
2013-10-14

HAMARREKOA

Aitziber Garmendia Gaztea da, baina Topagunearen azken kanpainako protagonistak eskarmentu handia du, bai telebistan eta baita antzerkian ere; laster ikusiko dugu berriz agertokietan | **TXOMIN MADINA**

"Telefonoa isiltzen denean, beldur handia sentitzen da"

1. Azkena ez duzu makala: Supermintzalaguna superheroia zara!
Bai! Kepa Errasti eta biok gara Supermintzalagunen aurpegi publikoa, baina pila bat daude Euskal Herrian. Proiektuak itxura ona zuen, bultzada eman nahi genion eta animatu egin ginen.

2. Orain, beste obra baten entseguekin zabiltza.
Ondoko tipoa da, Txalo konpainiarena, eta Iker Galartza eta biok gara aktoreak. Komedia erromantikoa da; barre egiteaz gain aparteko xede barik. Entseguetan nire lan handiena barreari eustea da, Ikerrekin zaila da-eta! Urtarrilaren 10ean estreinatuko dugu.

3. 30 urte eta aktore beteranoa zaitugu dagoeneko...
Eskerrik asko! 18 urterekin hasi nintzen profesionalki lanean eta sekulako zortea izan dut, geldialdi gutxi izan ditut-eta. Esperientziarekin nabari da aldea, norbera lasaiago egoten da.

4. Atzera begira jarrita, zein lanekin geratu zara gusturen?
Beti diot nire lan fetitxea *Emakumeak izarapean* obra dela. Orain arte gehien gozatu dudan lana izan da: politena, oso xamurra, betea.

5. *Goenkale*-n agertu ez den euskal aktore bakarrenetakoa izango zara...
Elena Irureta eta biok! Horixe komentatzen dugu... Ez dakit zergatik; ez dut hartzen ez onera ez txarrera, baina grazia egiten dit.

AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Jarri beharrean, kendu"

"Gauzak jarri beharrean, kendu egingo nituzke. Munduan hainbeste iruzurti, gezurti, *txorizo* eta tranpati daude, denak kenduko nituzke. Kasualitatez, gainera, gehienak goi karguetan daude. Horiek kenduz gero, bere kasa jarriko litzateke ordena normal bat".

6. Espainia aldean ere ibili zara antzerki biran. Zelan erdaraz?
Geroz eta hobeto. Zaldibiarra naiz eta haurtzaroan ez dut erdararik ezagutu. Hasieran, kosta zitzaidan; baina saiatu naiz, dikzio klaseak-eta hartu ditut Madrilen, eta uste dut dezente hobetu dudala. Eta hobetu nahi dut!

7. Maleta egin eta Euskal Herria uzteko prest?
Betiko, inoiz ere ez. Baina hilabete pare baterako maleta txiki bat egitea ez litzaidake axolako.

8. Zelako pertsonaiek erakartzen zaituzte?
Fisikoak pertsonaia mota batzuk egitera mugatzen du, sarri norberarengadik gertu daudenak. Baina nigandik oso ezberdinak diren pertsonaiak antzeztea gustatzen zait.

9. Inoiz telefonoa isilduko den beldurrik?
Bai, aktore guztiek bezala. Isildu izan da tarte batzuetan, eta beldur handia sentitzen da, hutsune bat bezala; ez da ondo pasatzen. Baina honetara dedikatzeko erabakia hartzen denean, onartu egin behar da hori gerta daitekeela.

10. Txarrenera jota, beti hor izango dituzu Zuzenbide ikasketak.
Baina txarrenera jota; nahiago beste edozein lan! Ez dakit zeri begira nengoen matrikulatzean. Burugogorra naizenez, amaitu egin nuen, gainera! Hainbat gauza jakiteko balio arren, ez dut nire burua abokatu moduan ikusten.

BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRRETA

Cup-esne bat

Aurreko astean konprobatu ahal izan dut, Madrilgo "kaberna", zeharo amorratuta dabilela. Espainiar poliziak, Euskal Herrian burutu duen sarekada, bortitza bezain zentzugabea izan da. Ez dakit 2020ko joko olinpikoetarako toki-o-n moduan, Aretxabaleta aukeratu behar zutela bazekitelako izan den ala beste arrazoiren bat egon daitekeen. Agian "a relaxing cup of cafe con leche", kafesne bihurtu zaielako izan daiteke. Dena den, euskaldunok, beti aurkariaren zelaian eta heuren arauei jarraituz jokatu beharrean aurkitzen gara, behin eta berriz eta ezinbestekoa da korritzen ari garen maratoiak helmuga, Euskal Herrian izatea. Maritxuk, halaxe interpretatu du eta Herrirako korrikalari guztiak herrira ekarri dizkigu; baina oraindik euskal hiritar ugari dugu, merezi ez duen kartzela zigorraz mehatxaturik bizi denik; oraindik euskal maratoilari ugari kartzela baten pareten muga barruan bakarrik korri dezakeenik. Balizko 2020a uste baino hurbilago dugu, onerako eta txarrerako; olinpiadok prestatzeko denon lana izango da beharrezko, Euskal Herriak bere maratoia denpora duin baten barruan buka dezan. Hortarako baina, ezin dugu egon Maritxuren mirarien zain; hortarako, aurreko larunbatean Bilbon egin genuen bezala, herritarrok mugitu beharko dugu. Herritik Herrira.

EKOGUNE
DENBORALDI BERRIA!

GOIENA TELEBISTA | EKOGUNEA
EGUAZTENERO, 21:20 | JULEN IRIONDOK AURKEZTUA
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena